

ADIERAZLE-SISTEMA. EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA

SISTEMA DE INDICADORES. IGUALDAD MUJERES Y HOMBRES EN LA CAE



GIDA / GUÍA



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako Erankunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



Zuzenean
aurkezpenera joatea

Ir direktamente
a la presentación

IZENBURUA: Adierazle-sistema. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasuna
TÍTULO: *Sistema de indicadores. Igualdad mujeres y hombres en la CAE*

EDITOREA: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea
EDITA: *Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer*
Manuel Iradier, 36 01005 Vitoria-Gasteiz

KOORDINAZIOA: Eva Alfama, Marta Cruells
COORDINACIÓN:

AUTOREAK: Eva Alfama, Marta Cruells, Maria de la Fuente, Neus Martí, Anna Obradors
AUTORAS:

DATA: 2012ko abendua
FECHA: *Diciembre 2012*

DESKRIBATZAILEAK: Genero-adierazleak, berdintasunerako politikak, ekintza planen ebaluazioa, genero ikuspegia, ahalduntzea, genero-indarkeria, gidak

DESCRIPTORES: *Indicadores de género, políticas para la igualdad, evaluación de planes de acción, perspectiva de género, empoderamiento, violencia de género, guías*

ISBN: 84-695-6602-4 978-84-695-6602-2

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
1 SARRERA	7
1.1 ADIERAZLE SISTEMAREN HELBURUAK ETA IRISMENA	9
1.2 METODOLOGIA.....	11
2 ADIERAZLE SISTEMAREN OINARRIAK	13
2.1 SISTEMAREN IKUSPEGIA	14
2.2 ADIERAZLEAK NEURTZEKO TRESNA GISA	15
2.3 EAEKO DESBERDINTASUNA NEURTZEKO TRESNAK	16
3 EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO POLITIKAK EBALUATZEKO ADIERAZLE SISTEMAREN PROPOSAMENA	18
3.1 ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA ETA SISTEMAREN ARKITEKTURA	19
3.2 EZAUGARRI OROKORRAK	21
3.3 ADIERAZLE ESTRATEGIKOEN SISTEMA.....	27
3.3.1 <i>1. eremua: Berdintasunaren gobernantza</i>	29
Kontzeptualazioa: Zer esan nahi du berdintasunaren gobernantzak?	30
Gobernantza-indizeak eraginkor bihurtzea	32
Gobernantza-indizea zabaltzeko oharpenak	34
Indizean sartu beharreko beste tresna batzuk lehenestea.....	35
3.3.2 <i>2. eremua: Jabekuntza</i>	38
2.1 funtsezko helburua. Norberaren autonomia handitzea	40
2.2 funtsezko helburua. Baliabide ekonomikoen eta sozialen eskuragarritasuna	42
2.3 funtsezko helburua. Parte-hartze soziopolitikoaren eskuragarritasuna	45
2.4 funtsezko helburua. Balio aldaketa	48
3.3.3 <i>3. eremua: Gizarte antolamendu erantzunkidea</i>	49
3.1 funtsezko helburua. Oreka denboren erabilerean eta lan-zaman.....	50
3.2 funtsezko helburua. Ekonomia eta gizarte baliabideen bidezko banaketa.....	53
3.3 funtsezko helburua. Zaintzaren gizarte-erantzukizuna.....	55
3.3.4 <i>4. eremua: Emakumeen aurkako indarkeria</i>	58
4.1 funtsezko helburua. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	59
4.2 funtsezko helburua. Emakumeen aurkako indarkeriarekiko tolerantzia errotik kentzea.....	60
3.4 KONPARATZEKO INDIZE KONPOSATUAK.....	61
3.4.1 <i>Estatu mailako sintesi indizeak</i>	62
Indizeen aurkezpena.....	63
Balorazioa	70
3.4.2 <i>Nazioarteko sintesi indizeak</i>	71
Indizeen aurkezpena.....	73
Balorazioa	79
4 AZKEN GOGOETAK	84
5 BIBLIOGRAFIA	87
6 ERANSKINAK	93
6.1 1. ERANSKINA: ADIERAZLE ESTRATEGIKOEN PARAMETRIZATZE FITXAK:.....	94
2. Eremua. Jabekuntza.....	94
3. eremua. Gizarte antolamendu erantzunkidea	103
4. eremua. Emakumeen aurkako indarkeria.....	108
6.2 2. ERANSKINA: XEHETASUN METODOLOGIKOAK	110
6.3 3. ERANSKINA: EAEKO BERDINTASUNERAKO POLITIKEN ADIERAZLE SISTEMAREN BERRIKUSPENA	112
6.4 4. ERANSKINA: GOBERNANTZA ADIERAZLEEN BALIZKO OSAGIAK ERAGINKOR BIHURTzea INFORMAZIO SISTEMAKO GALDEREN ARABERA.....	115
6.5 5. ERANSKINA: GENERO ADIERAZLEEN DATU-BASE ETA SISTEMA NAGUSIEN DESKIPZIOA.....	122
6.6 6. ERANSKINA: AZTERTUTAKO INDIZEEN EZAUGARRI TEKNIKOEN LABURPEN TAULA	123
6.7 7. ERANSKINA: EB-15EKO HERRIEN RANKINGA ERKATZEKO BIDERAGARRIAK DIREN NAZIOARTEKO 3 INDIZEETAN:.....	124

1. Irudia. Helburuaren irismena	10
1. taula. Proposatutako sisteman sartu diren adierazle motak.....	10
2. taula. EAEn dauden genero-adierazleen iturri nagusien egoera	17
2. irudia. Adierazleak eratortzeko sistemaren osagaiak.....	20
3. taula. Adierazle-sistemaren kontzeptuzko erreferentzia-esparruaren laburpena: eremuak, helburuak eta funtsezko faktoreak.....	20
4. taula. Lehentasuneko adierazleen proposamenaren laburpena.....	22
5. taula. Proposamenak dauzkan adierazle mailen laburpena.....	23
6. taula. Adierazle nagusi eta osagarrien proposamenaren laburpena	24
3. irudia. Adierazleak erabilgarritasun mailaren arabera	27
4. irudia. Adierazleak esleipen mailaren arabera	28
5. irudia. Adierazleak erreferentzia-puntuaren arabera.....	28
7. taula. EAeko berdintasunaren gobernantza-tresnak 4/2005 Legearen, V. Planaren eta informazio-sistemaren arabera	31
8. taula. Berdintasunaren gobernantza-indizeari buruzko fitxa (1).....	33
9. taula. Gobernantza-indizearen eratze teknika	34
10. taula. Gobernantza-adierazlea (zabaldua) osa lezaketan eremuak, tresnak eta funtsezko faktoreak	36
11. taula. Berdintasunaren gobernantza-indizeari buruzko fitxa (2).....	38
12. taula. Jabekuntzari buruzko adierazle nagusien proposamenaren laburpena*	39
13. taula. Gizarte antolamendu erantzunkideari buruzko adierazle nagusien proposamenaren laburpena*	50
14. taula. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko adierazle nagusien proposamenaren laburpena.....	59
15. taula. Genero berdintasunaren Indizearen -IIG- osagaiak.....	63
16. taula. Genero Desberdintasunaren Indizearen -IDG- osagaiak	65
17. taula. Genero Desberdintasunaren Indizearen -INDESGEN- osagaiak.....	67
18. taula. Genero Berdintasunaren Sintesi Indizearen -ISIG- osagaiak	68
19. taula. IIG, IDG, IDESGEN eta ISIGen eta EAerako proposatutako sistemaren ezaugarrien konparazioa... ..	70
20. taula. Generori buruzko Giza Garapenaren Indizearen -GGGI- osagaiak	73
21. taula. Genero Jabekuntzaren Indizearen -GJI- osagaiak.....	74
22. taula. Genero Desberdintasunaren Indizearen -GDI- osagaiak	75
23. taula. Genero eta Gizarte Erakundearen Indizearen -GGEI- osagaiak	75
24. taula. Emakumeen Aukera Ekonomikoen Indizearen -WEOI- osagaiak.....	77
25. taula. Genero Aldearen Indizearen -GGI edo GAI- osagaiak.....	78
26. taula. Genero Zuzentasunaren Indizearen -GZI- osagaiak.....	79
27. taula. Aztertutako nazioarteko indizeen sistematizazioa	80
28. taula: Lehen hautaketako bi indizeen -GGI eta GDI- AMIA analisia	82

AURKEZPENA



EAEko Berdintasunerako Legearen aginduari jarraituz, EAEko botere publikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta bultzatzeko ezarri dituzten neurriak ebaluatzen ditu Emakundek. Aspalditik, ebaluazio horretan, hainbat emaitza kuantitatibo jaso dira, aldizka, eta berdintasuna lortzeko inbertitu diren baliabide publikoak zenbatu dira. Hala ere, berdintasunerako politika publikoen ebaluazioa ezin da mugatu ekintzak eta baliabideak zenbatzera soilik; halaber, neurtu beharra dago aipatu ekintzek zenbaterainoko eragina duten gizarte-aldaketak sustatzean, eta ondorioz, berdintasun-maila handitzean. Anbizio horri erantzutera dator azterlan hau.

Eusko Jaurlaritzaren IX. Legegintzaldiko Berdintasunerako V. planaren ebaluazioaren diseinu orokorrean, Emakundek lau ebaluazio mota zehatz ezarri zituen: emaitzena, prozesuena, koherentziarena eta eraginarena. Argitalpen honetan jasotzen diren adierazleak proposatzen dira eragina ebaluatzeko tresnatzat. Horretarako, adierazle estrategiko batzuk hautatu nahi izan dira, egoeraren analisia ez ezik, beste azterketa batzuk ere -konparatuak eta luzetarakoak- egin ahal izateko. Izan ere, azterketa horiei esker ikusiko da emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan botere publikoek ezarritako neurriek helburu hori betetzen duten, eta zenbateraino betetzen duten. Laburbilduz: adierazle estrategikoen ahalbidetu behar digute gure gizartea sakon behatzea eta Berdintasun Planean ezarritako helburuak lortzen aurrera egin dugun aztertzea.

Eragina ebaluatuko duten 12 adierazle estrategiko hauek proposatzeko, zehatz mehatz aztertu ditugu eragin-ebaluazioa egiteko alde aurretik zeuden adierazleak, baita erabil daitezkeenak ere, eta ondoren, proposamen interesgarri eta esanguratsu bat egin dugu. Nahi genuke proposamen hori iraunkorra izatea, eta guretzat baliagarria, berdintasuna lortzen zer aurrerabide edo -okerrenean- zer traba edo atzerapen gertatzen ari diren jakiteko, datu objektiboetan oinarrituta.

Gure ustez, proposatzen dugun tresna baliotsu honek, aldizka aplikatuz gero, informazio konparatua sortuko du, luzerako irismeneko, eta, horrez gain, informazio baliotsua emango digu, gizarte berdinzaleagoak eta zuzenagoak lortzeko helburuan berdintasun-politikek zer nolako eraginkortasuna duten ikusteko.

María Silvestre Cabrera
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

1. SARRERA

Azken urteotan politika publikoen emaitzen eta eraginen ebaluazioa gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da. Eraginkortasun handiagoa bilatu eta esku-hartze publikoen ahalmen estrategikoa sendotzeko helburuarekin, ebaluazioa funtsezko tresna bilakatu da erabakiak hartzeko; batez ere, aurrekontu-murrizketak gero eta handiagoak diren egungoa bezalako testuinguruan.

Zehazki, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari dagokionez, gertakari oso konplexua da, dimentsio anitzekoa, eta alderdi askotan aldatzeko izugarri zaila. Urteetan esparru honetan gertatutako aldaketek hainbat erritmo izan dituzte: alderdi batzuetan aldaketa ikusgarriak gertatu diren bitartean, beste batzuetan, ordea, oso motelak izan dira. Horregatik guztiagatik, **emaitzen eta gizarte-eraginen ebaluazioa bereziki garrantzitsua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politiketarako.**

Ikuspegi horri jarraituz, «EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. plana. IX. legealdirako ildoak» izeneko planean berdintasunerako politikek gizarte mailan dituzten ondorioak –bai espero direnak bai ezustekoak– ebaluatu beharra aurreikusitako da, honako galderari erantzun ahal izateko:

Nola aldatu da berdintasunerako politiken hartzaileen egoera?

Nola aldatu da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoera gizartean orokorrean?

Zer tresnak ahalbidetu dute berdintasunaren helburuan gehiago eragitea, zer arlotan aurreratu da azkarren, eta zeinetan daude oztoporik sendoenak?

Txosten honetan **adierazle-sistema** bat garatzeko egindako lan-prozesua aurkeztu da. Sistema horrek **EAEko gizon eta emakumeen arteko desberdintasun mailaren berri eman behar du eta, aldi berean, horri buruz sustatutako politika publikoekiko sentikorra izan.** Mota horretako aldian aldiko monitorizatzearen bidez desberdintasunaren bilakaera aztertzen lagundu nahi da, erakundeentzat eta gizartearentzat ikaskuntzak sortuko dituen ebaluazio adikorreko prozesu baten esparruan.

Proposatutako adierazle-sisteman euskal errealitateari buruzko adierazle sinple batzuk eta sintesi-adierazleen berrikuspen eta proposamen bat sartu dira, EAEk beste autonomia erkidegoen eta nazioarteko estandarren aldean dituen aurrerapenak erkatu ahal izateko. Proposatutako sistema egiteko, EAEko berdintasunerako politiken dimentsioak eta helburuak hartu dira abiapuntu, egileek, Emakundek eta Eusko Jaurlaritzako Saitetako berdintasun-agenteei, batera egindako hausnarketa prozesuaren bitartez. Hortik abiatuta, adierazle-sistema espezifikoak, dimentsio anitzekoa eta komunikatzen erraza eraiki da, eta, hari esker, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburu estrategiko nagusietan lortutako aurrerapenak irakurketa osoa eta laburtua egin daiteke.

Aurkezpen kapitulu honetako hurrengo ataletan lan honen helburuak eta irismena zehaztu dira, eta adierazle-sistema gauzatzeko erabilitako metodologia azaldu da.

Ondoren, 2. kapituluan, garatutako sistemaren oinarriak azaldu dira, eta haren ikuspegi orokorra, diseinatutako adierazleen tipologiaren deskribapen laburra eta EAEko desberdintasuna neurtzeko eta sistema elikatzeko dauden tresnen berrikuspena ere sartu dira.

Hirugarren kapituluan sakontasunez prestatutako adierazle-proposamenaren deskribapen xehea egin da. Hala, hurrenez hurren, eremu, helburu, funtsezko adierazle eta proposatutako erreferentziazko adierazle bakoitzaren kontzeptualizazioa eta justifikazioa garatu dira, eta sistemaren erreferentzia-esparruaren aurkezpena ere jaso da.

Laugarren kapituluan, azken ondorio eta oharpenetan, proposatutako adierazle-sistemarekin egindako ekarpen nagusiak baloratu dira.

Amaitzeko, egindako azterlanari eta adierazleen parametroei buruzko intereseko informazio osagarria jaso da zenbait eranskinetan.

1.1 ADIERAZLE SISTEMAREN HELBURUAK ETA IRISMENA

Proiektu honen helburu orokorra **adierazle esanguratsu eta estrategiko multzo txiki bat definitzea** izan da, EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikan ezarritako helburu nagusiak zer mailatan lortu diren kalkulatu ahal izateko (ikus 1. irudia).


Zehazki, adierazle multzoak honakoak ahalbidetu behar dizkio Eusko Jaurlaritzari:

- Berdintasunerako politiken funtsezko elementuek **denboran izandako aurrerapenak monitorizatzea** eta luzetarako konparazioak egitea.
- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren zer dimentsio** birbideratu behar den identifikatzea, **erabakitze prozesuen** testuinguruan.
- EAEko emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren egoerak lurralde batetik bestera dituen aldeak **erkatzea**, nazioarteko testuinguruaren barruan. Horretarako, adierazle sinpleetatik harago, nazioarteko sintesi-adierazleren bat ere sartu da multzoan (ikus 3. irudia).
- Euskal gizarteak berdintasunerako bidean duen arrakasta maila modu erraz eta intuitiboan **komunikatzea iritzi publikoari**, gizarte-sentsibilizazio prozesuak errazteko.
- Emakundek gainerako herri-administrazioek abian jarritako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikei egiten dien **jarraipen-lanetan laguntzea**. Zentzu horretan, multzo hori eta dauden adierazle-sistemak, bai instituzionalak bai eraginetakoak (Zifren txostena, sailek darabiltzaten sektore-adierazleak, eta abar) elkarren artean lotu ahalko dira etorkizunean.

Horrekin guztiarekin, baztertu egin da sistemak zenbait helburu betetzea, hala nola Eusko Jaurlaritzako Sailen eta beste administrazio batzuen berdintasun-planen emaitzak monitorizatzea, Eusko Jaurlaritzaren administrazio-antolakuntzaren araberako informazioa ematea edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiten duten gertakari guzti-guztien diagnostiko sakona egitea.

Honako irudian, laburbilduta (ilunduta), proposatutako adierazle-sistemaren irismena eta berdintasuna sustatzeko esku-hartze publiko nagusiekin duen lotura (gorriz) islatu ditugu.

1. irudia. Helburuaren irismena



Beraz, proposatutako adierazleetako batzuk gehiago dagozkie berdintasunerako politikaren **helburu estrategikoen** eta esku-hartze publikoaren funtsezko eremuen jarraipenari, eta beste batzuk, ordea, lotuago daude desberdintasunaren gertakariaren dimentsio batzuetan dauden **aldaketen edota erresistentzien** berri ematearekin.

Gehienbat, EAEko egoeraren bilakaera baloratzea bilatzen dute adierazleek –ahal den heinean, erkatuta-. Halaber, **konparaziozko ikuspegi** zabalagoa lortze aldera, nazioartean prestatutakoen arteko sintesi-adierazleren bat sartzea gomendatu da.

1. taula. Proposatutako sisteman sartu diren adierazle motak

Adierazle motak	Helburua	Xedea	Hartzaile nagusiak	Egitura/ dimentsioak
Adierazle estrategikoak	Eraginen ebaluazioa	Komunikazioa, legitimazioa, politiken diseinua	Euskal gizartea, Emakunde, Eusko Jaurlaritza	EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken helburu estrategikoak
Nazioarteko sintesi-adierazleak	Gizarte errealitatearen konparaziozko diagnostikoa	Komunikazioa, legitimazioa	Euskal gizartea, Emakunde, Eusko Jaurlaritza	Adierazleari lotutakoa

1.2 METODOLOGIA

Adierazle multzoa 2011ko udazkenaren eta 2013ko udazkenaren arteko aldiaren eraike da.

Adierazleek euren helburuekiko duten erabilgarritasuna eta garrantzia bermatzeko, ezarri den lan-metodologiak eztabaida- eta laguntza-esparruak ezarri nahi izan ditu Emakunderekin eta Eusko Jaurlaritzako sailtetako berdintasun-agenteeekin.

Jarraian, garatutako metodologia-prozesua azalduko dugu, laburki:

a) Alde batetik, haren **kontzeptuzko oinarria** garatu eta adierazle-sistemaren erreferentziazko esparrua definitu zen: politika horietako sakoneko helburuak eta balio estrategikoak sistematizatu ziren, V. Planean, aurreko planen ibilbidean eta berdintasunari buruzko 4/2005 Legean definitu moduan, eta azken urteetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna nabarmen handitu edo murriztu dela antzeman zaien alderdi, eremu edo gaiak identifikatu ziren.

Hala, *lehentasunezko elementurik esanguratsuenak* identifikatu ziren. Politiken eraginaren ebaluazioak haiei heldu behar ziren. Halaber, helburuen balizko berrikuspenak, hedapenak eta berregituraketak aztertu ziren, haien potentzialtasuna garatu eta haien arteko loturak eta sinergiak bistaratzeari begira.

Emaitzak berresteko, lan saio bana egin zen Emakunderekin, alde batetik, eta Eusko Jaurlaritzako sailtetako berdintasun-agenteeekin bestetik; hala, erreferentziazko esparru horretan berdintasunerako politikak ezarri behar dituzten arduradun nagusien ezagutzak eta lehenetsiak sartu ahal izan ziren.

b) Bestetik, genero-adierazleei edota sexuaren arabera bereizitako adierazleei dagokienez, **gaiaren egoeraren** sintesia eta azterketa egin zen nazioartean, Europan eta Estatuan, garrantzizko bibliografia eta dauden datu-baseak eta adierazle-sistemak aztertu ziren, horri buruz dauden proposamen, joera eta hausnarketa nagusiak ezagutu ahal izateko. Hala, haien ezaugarri nagusiak eta hartutako ikuspegiak deskribatu dira, baita haien potentzialtasunak, mugak edo eragin dituzten kritikak ere.

c) EAEn dauden **adierazle multzo nagusiak sistematizatu ziren** (V. Planean, «Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak» urteko txostenetan, eta EUSTATen zehaztutakoak), kontzeptualizazioari eta praktikari dagokienez, berdintasunerako politiken helburu estrategikoetan kokatzeko eta, aldi berean, dauden informazio iturri nagusien lehen balorazioa egiteko. Funtsezko eremu eta helburu bakoitzean zer gairentzat dagoen informazioa, datu horien potentzialtasuna eta hutsune esanguratsuak dituzten alderdiak jaso ziren.

Horri guztiari esker, adierazle estrategikoak eraikitzeke prozesurantz aurrera egin ahal izan da, haien egiazko bideragarritasunaren ikuspegi argiagoa izanda. Adierazle multzo txiki eta antolatua hartu da abiapuntu, V. Planaren eta «Zifrak» urteko txostenaren artean definitutako ia 500 adierazleren aldean. Hala, xehetasun handiagoz ezagutu ahal izan dira adierazle multzoa eraikitzeke prozesuari datxezkion potentzialtasunak eta zailtasunak, eta EAerako berezko sistema definitzeke oinarriak ezarri ahal izan dira.

d) Ondoren proposamen hau osatu duten **adierazleak hautatu ziren**, eta Emakunderekin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta, zehazkiago,

gai espezifiko jakin batzuetan adituak diren zenbait pertsonarekin¹ egindako elkarrizketekin berrikusi ziren. Amaitzeko, hautatu adierazleen **parametroak** xehetasunez **ezarri ziren**, adierazle bakoitzarentzat fitxa berezia prestatu zen eta Excel matrize bat eraiki zen; horri esker, monitorizatzen diren unean grafikoki irudika daitezke eta emaitzak sistematizatzen dira.

¹ Sara Moreno (Eguneroko bizimoduari eta lanari buruzko azterketa soziologikoen QUIT zentroa, Universitat Autònoma de Barcelona, 2010/7/4), Tània Verge (Zientzia Politikoaren Saila, Universitat Pompeu Fabra, 2010/7/4) eta Beatriu Masià (Tamaia elkarteak, Viure sense violència, 2012/7/25) elkarrizketatu genituen, honako gaiak aztertzeko, hurrenez hurren: oreka lanaren banaketan eta denboraren erabileretan, emakumeen parte-hartze soziopolitikoa eta emakumeen aurkako indarkeria; bihotz-bihotzez eskertzen diegu proiektuan emandako laguntza.

2. ADIERAZLE SYSTEMAREN DINARRIAK

2.1 SISTEMAREN IKUSPEGIA

Politika publikoak ondo bideratu eta funtzionatzeko, ezinbestekoa da gizarte premiei eta biztanleria sektore guztien premiei buruzko informazio egokia eta eguneratua izatea. Hori dela-eta, monitorizatu eta ebaluatzeko tresnak garatu behar dira, eta haietan, kudeaketa publikoaren eraginkortasunaren berri ez ezik, gizarte gertakarietan duten eraginaren berri ere emango diguten gizarte-adierazleak sartu behar dira.

Zentzu horretan, esku-hartze publikoek gizarte arazoak konpontzeko eta nahi diren emaitzak eta ondorioak eragiteko duten gaitasuna baloratzea ebaluazio motarik konplexuenetako bat da, beharbada.

Haren erronka nagusia sustatutako erakunde-politiken eta -programen eta emaitza jakinen arteko kausalitate erlazio bakar eta linealak ezartzea da. Eraginen ebaluazioak elementuak eman behar ditu, arazo bat hobetu edo okertu den ez ezik, esku-hartze publikoak eragin dion ere ezagutzeko. Zailtasuna zera da, emaitza jakin bat esku-hartze publikoari unibokoki egoztea, zuzendu nahi den arazoari eragin liezaioketen beste eragile eta aldaketa-dinamika batzuekin dauden erlazioak kontuan izanda, politika eta programa publikoen ebaluazio-metodologietan gero eta ageriago geratzen ari denez (Blasco eta Casado 2009).

Epe labur edo ertainean politika horien berehalako emaitzak identifika badaitezke ere, epe luzerako eraginak egoztea zalantzagarrigoa da. Izan ere, zio bakarra esleitzeko esku-hartzearen eta ikusitako aldaketaren arteko kausazko erlazio linealak identifikatu eta haien artean legokeen balizko erlazioari buruzko ondorioak atera behar dira. Esku-hartze jakin batek eragin jakin bat zenbat eta zer neurritan eragin duen esleitzea ebaluazioetan erantzun beharreko galderarik konplexuenetako bat da, eta eztabaida handia pizten du, ikuspegi epistemologikotik, politika eta gizarte zientzien esparruan.

Zailtasun hori gainditzeko, garrantzitsua da ebaluazioan ikuspegi adikorra erabiltzea eta, beraz, monitorizatzeko tresnak eta dimentsio anitzeko adierazle-sistemak diseinatzea. Ebaluazio adikorraren eta gizarte-sistemen konplexutasunaren esparruan, onartu egiten da aldaketa hainbat eragileri egotz dakiokela eta, beraz, aurrean- ezintasun maila bat datxekiola, baita, halaber, hainbat aldagaik eragin dezaketela ere. Era berean, onartu egiten da testuinguru aldaketek aldagai aniztasun horri ere eragiten diotela (Mayne, 1999; Earl et al. 2001).

Ikuspuntu horretatik, politika publikoak ebaluatzeko praktiketan hainbat metodologiaren uztarketa erabiltzen da kausalitatea egiaztatetik, egotzitakoa aditzeraino paradigma-aldaketari laguntzen diona. Praktika horietan, gertakari baten esanahi estatistikoa bilatu eta haren doitasuna neurtu beharrean, hura hobeto ulertu, ebaluatutako politikan ondo dabilena identifikatu eta ondorioz emaitzen ziurgabetasuna murrizten laguntzen duten metodologiak hartzea da gertakari nagusietako bat. Hortaz, interesgarria da ulertzea zer politikak funtzionatzen duten, zein programa jakinen bidez, zergatik, zer testuingurutan, eta abar (EVALSED, 2010).

Planteamendu horren arabera, adierazle-sistema egiteko prozesua gizarte-irizpide aniztuneko ebaluazio-metodologietan oinarritu da (Munda, 1995, 2004, 2008). Metodologia mota hori egokia da adierazle-sistemak diseinatzeko, ebaluazio prozesuen abiapuntua ebaluatzen ari den gertakariari datxekion konplexutasuna eta hainbat dimentsio eta aldagaitan eragindako aldaketak behatu beharra onartzea denean. Gizarte-irizpide aniztuneko ebaluazio-metodologiaren esparruan, aintzat hartu beharreko aldagai garrantzitsuen identifikazio prozesuaren sendotasunak eta gardentasunak

sistemaren legitimazioa eta irmotasuna indartzen dituzte. Zentzu horretan, funtsezkoa da adierazle-sistema diseinatzeko prozesuan zerikusia duten agenteek parte hartzea.

2.2 ADIERAZLEAK NEURTZEKO TRESNA GISA

Gizarte adierazleak informazioa sortzeko tresnak dira; gizartearen alderdi jakin batzuk gutxi gorabehera erakusten edo islatzen dituzten datuak. Haien eraikitze kontzeptu esparru esplizitu bat hartzen da oinarri, eta erreferentziako gizarte-testuinguru bati lotuta egon behar dute, emaitzak hartatik interpretatzeko (Domínguez eta Simó, 2003). Adierazle sendo batek informazio *esanguratsua* eman behar du aztertu nahi den gertakariari buruz eta, bestalde, *zehatza*, *neurgarria*, beste adierazleetatik *independentea* –posible den heinean–, aldaketekiko *sentikorra*, eta interpretatzen *erraza* izan behar du (EVALSED, 2010).

Duten informazio motaren arabera, bi adierazle mota bereizi ohi dira: bakunak edo bi aldagaikoak, eta konposatuak edo sintesikoak (EVALSED, 2010).

Adierazle bakunak (hots, proportzio bat, ehuneko bat, tasa bat edo indize bat) gertakariaren –kasu honetan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna– eragin neurgarriari buruzko informazio zuzena eman ohi dute aldagai jakin eta zehatzetan. Hala, esaterako, gizonen eta emakumeen arteko soldata desberdintasuna, soldata-arrakala ere deritzona, batez beste gizonen eta emakumeen kobotzen dutenaren, hots, gizonen eta emakumeen soldataren arteko aldeari dagokio. Adierazle horrek genero-desberdintasunaren emaitza nabarmenetako bati buruz hitz egiten digu: lan-merkatuan gertatzen den bereizkeriaz (bereizketa bertikal eta okupazionala, emakumeen eta gizonen egindako lanari ematen zaion balio desberdina, edo erantzunkidetasunik eza direla-eta, besteak beste), eta desberdintasun horren eraginetako bat atzematea bilatzen du: soldatan duen eragina.

Zentzu horretan, euren eskuragarritasunagatik, kostu txikiagatik eta interpretatzeko erraztasunagatik nabarmentzen diren adierazle bakun batzuk alderdi estrategiko bati begira egon daitezke, gizarte-aldaketekiko eta politika publikoekiko oso sentikorra baita. Adierazle horiek aztertutako gertakari guztiak azaltzeko duten ahalmenagatik dira interesgarriak, eta haien arteko kausa-efektu erlazioen konplexutasunaren berri ematen dute.

Genero-desberdintasunari buruzko adierazleak eta azterlan estatistikoak nazio mailan eta nazioartean miatu dira, eta genero-adierazle bakunen sistemen eta sexuaren arabera bereizitako datu-baseen mapa oparoa dagoela erakutsi du horrek (ikus 5 eta 6. eranskinak). Nazioartean, genero-berdintasunaren bost adierazle-sistema identifikatu dira; NBEk, UNECEk, Munduko Bankuak, CEPALek eta Eurostatek bultzatu edota mantentzen dituztenak; era berean, EB bere genero-adierazle sistema diseinatzeko ari da egun. Espainiar Estatuan Genero Adierazleen Estatu Sistema (SEIG) azpimarratu behar da. Berdintasunaren idazkaritzak egin du, eta nabarmentzekoak dira autonomia erkidegoak erkatzea ahalbidetzen duten adierazleak. Bestalde, sistema autonomikoak ere badaude, hala nola Euskadin urtero kalkulatu dena: *Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak*.

Bestalde, **sintesi-adierazleak (indize edo adierazle konposatuek)** zenbait dimentsio eta adierazle bakun sartzen dituzte euren kalkuluan, eta aintzat hartzen dituzte haien arteko loturak. Genero-berdintasunaren egoerari era bateratuan hurbiltzeko balio

handiko beste tresna bat dira; izan ere, gehienetan gertakari bati lotutako hainbat aldagai biltzen dute parametro bakar batean, eta haren interpretazioa errazten dute errealitate konplexuen esparruan (ELGA, 2008). Sintesi-adierazleen bertuteetako bat da haien bidez herri edo eskualde desberdinen arteko konparazio bateratu eta intuitiboa egin daitekeela eta, beraz, oso erabilgarriak dira herritarrei komunikatzeko.

Adierazle konposatuek, ordea, muga garrantzitsu batzuk ere badituzte. Zehazki, azpimarratu behar da genero-desberdintasunaren tankerako gizarte-gertakarien konplexutasuna eta dimentsio aniztasuna ezkutatuta gera daitekeela, adierazle bakarra lortzeko aldagaiak batzen direnean. Bateratze hori oso erabilgarria izan daiteke berdintasunaren aurrerapena edo atzerapena laburbildu eta erakusteko, baina, era berean, interpretazio eta ondorio sinplistetara eraman dezake, politika publikoak berrikusteko prozesuan; izan ere, neurri handi batean, eraikitze prozesuan hartutako erabakien mende (esaterako, zer osagai edo aldagai hautatu diren, kalkulatzeko zer formula, haztapan faktoreak sartu diren, eta abar) daude adierazleak hartuko dituen balioak. Bestalde, sintesi-adierazle bat eraikitze, hainbat aldi eta baldintzatan egindako inkestetatik ateratako datuekin lan egin behar da maiz. Hala, gerta daiteke eredu teorikoki sendo batzuek ematen dituzten balioak oso fidagarriak ez izatea, eta erabaki okerrak harraraz ditzakete, emaitzen zehaztasunik eza dela-eta. Horregatik guztiagatik, indizeak definitu eta kontrastatzeko prozesua funtsezkoa da.

Edonola ere, nazioarte mailan, berrogeita hamarretatik hona herriek genero-berdintasunari buruz izandako lorpenak neurtzeko sintesi-adierazleak ugaritu egin dira. Beste erakunde batzuen artean, NBGPk, ELGAK eta MBk aldian-aldian monitorizatzen dituzte lorpen horiek eta euren indizeen emaitzak argitaratzen dituzte, herriak haien aldeko politikak egitera bultzatzeko. Espainiar Estatuko herri-administrazioek, aldiz, ez dute neurtzeko sintesi-tresna hori hautatu, eta Andaluziako Erkidegoa salbuespen nabarmena da (3.4 atalean xeheago aztertu eta erkatu dira atzemandako indizeak).

Argitalpen honetako proposamen nagusia **adierazle-sistema mistoa** eraikitzea izan da, adierazle bakunak eta konposatuak sartuz. Horrela, honakoak lortu nahi izan dira: i) EAEn genero-desberdintasunak duen egoera modu erraz eta intuitiboan interpretatu eta komunikatzea, eta ii) Euskadin emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen konplexutasuna eta dimentsio aniztasuna jasotzea, politika publikoak haiek murriztera bideratu ahal izateko. Beraz, ebaluaziorako gizarte-adierazle sistema den neurrian, esku-hartze publikoak arlo horretan dituen helburu jakinetan izandako balizko aurrerapen edo atzerapenen berri ematea ahalbidetu behar du, politika publikoak errazago ikasi, hobetu eta haien kontuak emateko.

2.3 EAEKO DESBERDINTASUNA NEURTZEKO TRESNAK

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. planak ebaluazio eta jarraipeneko 193 adierazle ezarri ditu, eta helburu operatiboei eta jarduketa eremuei esleitu zaizkie; haietatik 29 berdintasunerako gobernantzari dagokion kapituluari lotuta daude, eta 163 esku-hartze ardatzei. Gehienak eragin-adierazleak dira, baina Planaren jarduerari eta emaitzei buruzkoak ere sartu dira. Zehaztu denez, adierazle horietako 104 erabilgarri daude eta beste 88 eraiki behar dira.

Adierazle horiek EAEn lehendik zeuden beste berdintasun-adierazle sistema eta multzo batzuei batu zaizkie –besteak beste, Emakundek sustatutako «Euskadiko emakumeen

eta gizonen egoerari buruzko zifrak» urteko txostenean jasotako adierazle multzoa, V. Planaren esparruan sailetan ezarritako berdintasunerako planetan definitutako jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak, edo genero-aurrekontuak eta araudiaren genero-eraginari buruzko txostenak egiteko prozesuei lotutakoak-.

Honako taulak identifikatutako informazio-iturri nagusiak laburbildu ditu.

2. taula. EAEn dauden genero-adierazleen iturri nagusien egoera

Mota	Izena	Helburua	Xedea	Hartzaile nagusia/k	Egitura/dimentsioak
Adierazle-sistemak	V. Plana	Politiken ebaluazioa (prozesua/eragina/emaitzak)	Legitimazioa, kontuak ematea, erakundeen ikaskuntza	Emakunde, Eusko Jaurlaritza	Planaren egitura operatiboa
	Sailetako planak	Programen eta ekintzen ezarpena eta emaitzak monitorizatzea	Kontuak ematea, erakundeen ikaskuntza	Emakunde, sailak	Plan(ar)en egitura operatiboa
Estatistika-adierazle multzoa	Zifrak	Gizarte-errealitatearen bilakaeraren diagnostikoa	Komunikazioa, Planen diseinua	Euskal gizartea, Emakunde	Sektore-eremuak + V. Plana
	Aurrekontuak	Aurrekontuaren eraginaren ebaluazioa	Kontuak ematea, Planen diseinua	Emakunde, Sailak	----
	GBI	Eraginaren ex ante ebaluazioa	Planen diseinua	Emakunde, Sailak	GBIren nazioarteko arauak

Azken urteotan, beraz, ahalegin handia egin da EAEko berdintasunerako politiken eraginaren balorazioa gehiago zehazteko eta haien adierazleen eraginkortasun maila hobetzeko; prozesua amaitzeke dago oraindik.

Proposatutako adierazle multzoa maila operatiboan oso maneigarria ez dela eta ikuspegi orokorra erraz emateko zabalegia dela baloratu da eta, beraz, **funtsezko adierazle-sistema murriztua** diseinatzeko prozesua bultzatu du Emakundek. Adierazle horiek EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politiken helburuen eta sakoneko balioen bilakaeraren berri eman behar dute. Sistema horretan sartutako adierazleek *estrategikoak, ulergarriak, sozialki baloratuak* eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunerako funtsezkoak diren gaietan aurrerapen sozialarekiko *sentikorrak* izan behar dute.

3. ADIERAZLE SYSTEMAREN PROPOSAMENA

3.1 ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA ETA SISTEMAREN ARKITEKTURA

Lan honetan proposatutako berdintasun-adierazle sistemaren kontzeptuzko oinarria Euskadiko Autonomia Erkidegoan azken urteetan garatu den berdintasunaren ikuspegia da. Zehazki, Eusko Jaurlaritzaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako azken planetan (IV. eta V., zortzi eta bederatzigarren legealdikoak) ezarritako ikuspegia eta lehentasun politikoak aztertu dira, baita Berdintasunaren 4/2005 Legeak definitutako planteamenduak ere; genero-politikan espezializatutako nazioarteko eta Estatuko literaturarekin erkatu dira haiek, beste gertakari garrantzitsu batzuk ere bistaratu ahal izateko.

EAEko berdintasunerako politiken esparru-estrategiak lau jarduketa-ardatz nagusitan oinarrituta kontzeptualizatu ditu politika horiek: emakumeen **jabekuntza**, **erantzunkidetasuna** bultzatzea maila guztietan, **indarkeriaren** aurkako borroka eta azkenik **berdintasunaren gobernantza** (edo genero-*mainstreaming*) botere publiko guztietan ezartzea. Gobernantzari buruzko azken puntua jarduketa-ardatz gisa -IV. Plana- zein berez kapitulu berezia izanik -V. Planaren kasuan- definitu da.

Lau ardatz nagusi horietan, Berdintasunerako IV eta V. Planen pean, politika publiko horien funtsezko helburu multzo bat bildu da; gainera, berdintasunaren 4/2005 Legearekin bat datoz eta nolabaiteko segida eta barne-koherentzia maila dute -2011n egindako koherentziaren ebaluazioan adierazi zen bezala-.

Proposatutako adierazle-sistema emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko **esku-hartze eremu** eta **helburu estrategiko** horietatik adierazleek izan duten bilakaera logikoa da. Horretarako, berdintasunerako garrantzitsutzat jotako eremu bakoitzean, hura lortzeko helburu desiragarri jakin bat edo batzuk ezarri dira -EAEko berdintasunerako politiken eta Emakundek eta berdintasun-agenteei identifikatutako esku-hartze lehentasunen ibilbidea abiapuntu hartuta-. Helburuak ezarri ondoren, haietako bakoitzarentzat **funtsezko faktoreak**, helburu horiek lortzeko garrantzitsuen irizitakoak, identifikatu dira. Funtsezko faktoreak garrantzi oso handia duten edo aldatzeko bereziki zailak diren helburuen osagai estrategikoak dira; beraz, haietan gertatutako atzerapenen edo aurrerapenen arabera, berdintasunaren helburuen lorpenean izandako bilakaeraren berri ematen digute. Azkenik, hautatutako **adierazleak** esanguratsuenak izateagatik hautatutako funtsezko faktoreei dagozkie (ikus 2. irudia).

Hala, proposatutako lau eremuetako bakoitzarentzat intereseko bi eta lau helburu artean identifikatu dira (9 guztira). Era berean, helburu bakoitzarentzat funtsezko 2 eta 4 faktore artean identifikatu dira (25 faktore guztira) eta adierazle bana lotu zaie. Horren ondorioz, 25 adierazle nagusi dituen sistema lortu da, eta haien artean 12 lehenetsi dira ondoren.

Ikusten denez, izpirituan eta edukietan oso hurbil egon arren, sistemaren arkitektura ez dator guztiz bat V. Planeko hedatze operatiboarekin. Horrela, berdintasunaren 4/2005 Legearekin eta EAEko berdintasunerako politiken ibilbidearekin ahalik eta koherentzia handiena duen adierazle-sistema lortu nahi izan da, aldi berean Berdintasun plan estrategikoa bezalako tresna batek, derrigorrez aldi baterakoa izanik, zorrotz hertsirik egon gabe, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen duten elementu nagusien ebaluazioan segida eman ahal izan dezan.

2. irudia. Adierazleak eratortzeko sistemaren osagaiak



Honako taulan adierazle-sistemaren **kontzeptuzko erreferentzia-esparrua** laburbildu da. Eremuen, helburu estrategikoen eta funtsezko faktoreen irismen kontzeptualaren deskribapena eta justifikazioa 3. kapituluko atal bakoitzean aurkeztu dira.

3. taula. Adierazle-sistemaren kontzeptuzko erreferentzia-esparruaren laburpena: eremuak, helburuak eta funtsezko faktoreak

EREMUAK	FUNTSEZKO HELBURUA	FUNTSEZKO FAKTOREA
1. Berdintasunaren gobernantza	1.1 Berdintasunerako esfortzu publikoa	1.1.1 Berdintasunaren gobernantzaren garapena
2. Jabekuntza	2.1 Norberaren autonomia handitzea	2.1.1 Autopertzepzioa
		2.1.2 Norberaren eremuko erabakimena
		2.1.3 Familia eremuko baliabideei buruzko erabakimena
	2.2 Baliabide ekonomikoen eta sozialen eskuragarritasuna	2.2.1 Errentaren eskuragarritasuna
		2.2.2 Bizigarritasun duineko baldintzen eskuragarritasuna
		2.2.3 Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak eskuratzea eta menderatzea
	2.3 Parte-hartze soziopolitikoaren eskuragarritasuna	2.3.1 Erabaki- eta prestigio-guneetarako irigarritasuna
		2.3.2 Emakumeek eztabaida publikoan hitza izatea
		2.3.3 Botere politikoan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua
		2.3.4 Presentzia parte-hartze sozialeko guneetan

	2.4 Balio aldaketa	2.4.1 Genero-estereotipoak gainditzea
		2.4.2 Feminizatutako jarduerak sozialki baloratzea
3. Gizarte antolamendu erantzunkidea	3.1 Oreka lanen banaketan eta denboraren erabileretan	3.1.1 Oreka lan-zama osoan
		3.1.2 Ordaindutako lanaren banaketa
		3.1.3 Ordaindu gabeko lanaren banaketa
	3.2 Baliabide ekonomikoen eta sozialen banaketa ekitatiboa	3.2.1 Birbanaketa-politikak
		3.2.2 Lan berdintasuna
		3.2.3 Berdintasuna sektore estrategikoetan: I+G
	3.3 Zaintzaren gizarte-erantzukizuna	3.3.1 Zaintzarako baliabide publikoak
		3.3.2 Kontziliazioa enpresetan
		3.3.3 Zaintza errazteko lurralde-antolamendua
4. Emakumeen aurkako indarkeria	4.1 Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	Idem
	4.2 Emakumeen aurkako indarkeriarekiko tolerantzia errotik kentzea	Idem

3.2 EZAUGARRI OROKORRAK

Proposatutako adierazle-sistema mistoa da eta irizpide anitzeko ikuspegitik diseinatu da. Erkaketarako sendotutako **sintesi-indizeren** bat hartzeko gomendioa egin du bere, eta harekin batera **adierazle estrategiko** multzo bat ere sartu da, berdintasuna lortzeko funtsezko helburuei lotutako aurrerapenak monitorizatzeko. Bigarren maila horretan, hautatutako lehentasunezko 12 adierazle proposatu dira, sistema mugatu eta maneigarria lortzeko helburuarekin. Haien hautatzeko irizpideak honakoak izan dira: i) funtsezko faktorearen garrantzia (gutxienez adierazle bat sartu da funtsezko helburu bakoitzeko, eta adierazle osagarriren bat ere sartu da garrantziagatik edo ikuspegi orokorrari egindako ekarpenagatik esanguratsuen iritzi zaienetan); ii) datuen erabilgarritasuna² eta iii) komunikaziorako erabilgarritasuna.

Hautatutako **lehentasunezko 12 adierazleak** jarraian aurkeztu dugun 4. taulan zehaztu dira, eta haietako bakoitzaren azalpena eta parametro zehatzak 3.3 atalean garatu ditugu.

² Hala ere, proposatutako adierazle batzuk epe laburrean ez daude erabilgarri baina sartu egin ditugu interes handia dutelako.

4. taula. Lehentasunezko adierazleen proposamenaren laburpena

Eremua	Funtsezko helburua	Funtsezko faktorea	Adierazlearen izena
Adierazle estrategikoak			
1. Berdintasunaren gobernantza	1.1 Berdintasunerako esfortzu publikoa	Berdintasunaren gobernantzaren garapena	Berdintasunaren gobernantza indizea
2. Jabeakuntza	2.1 Norberaren autonomia handitzea	Familia eremuko baliabideei buruzko erabakimena	Emakumeak aurrekontu komunaren antolakuntzan parte hartzen duten familien proportzioa
	2.2 Baliabide ekonomikoen eta sozialen eskuragarritasuna	Errentaren eskuragarritasuna	Bizitzeko baliabide nahikoak (errenta) dituzten emakumeen proportzioa
		Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak eskuratzea eta menderatzea	Ordenagailua erabiltzeko gaitasun aurreratuak dituzten emakumeen proportzioa
	2.3 Parte-hartze soziopolitikoaren eskuragarritasuna	Erabaki- eta prestigio-guneetarako irisgarritasuna	Emakumeen presentzia zuzendaritza karguetan
		Botere politikoan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua	Emakumeen presentzia erantzukizun publikoko kargu hautetsietan
	2.4 Balio aldaketa	Genero-estereotipoak gaititzea	Sexuaren araberako bereizketa derrigorrezkoak ez diren ikasketen hautaketan
3. Gizarte antolamendu erantzukidea	3.1 Oreak lanaren banaketan eta denboraren erabileretan	Ordaindu gabeko lanaren banaketa	Emakumeek egindako etxeko produkzioaren pisua etxeko produkzioaren guztizko balioarekiko
	3.2 Baliabide ekonomikoen eta sozialen banaketa	Lan-berdintasuna	Soldata-arrakala
	3.3 Zaintzaren gizarte-erantzukizuna	Zaintzarako baliabide publikoak	<i>EAEn epe luzerako zaintza-politiketarako erabiltzen den BPGd-aren proportzioa</i>
4. Emakumeen aurkako indarkeria	4.1 Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	Idem	Azken urtean indarkeria motaren bat pairatu duten emakumeen proportzioa
	4.2 Emakumeen aurkako indarkeriarekiko tolerantzia errotik kentzea	Idem	Emakumeek eurek eragindako emakumeen aurkako indarkeria kasuak daudela esatearekin ados dauden pertsonen proportzioa
Gomendatutako konparaziozko adierazleak			
1. sintesi-indizea	GDI-NBGP	Genero-desberdintasunaren indizea	
2. sintesi-indizea	GGI-WEF	Genero-aldearen indizea	

* *Letraketa etzan eta urdinean, erabilgarri ez dauden adierazleak idatzi dira.*

Arazoaren ikuspegi zabalagoa, eta ñabardurak sartu eta informazio hutsuneak zuzentzeko gaitasun handiagoa lortzeari begira, ordea, 27 adierazle nagusi (haien barruan lehentasunezko 14ak eta 13 osagarriak sartu dira) eta 17 osagarri deskribatu dira guztira.

5. taula. Proposamenak dauzkan adierazle mailen laburpena

Adierazle mota	Ezaugarriak	Proposatutako adierazle kop.
Lehentasunezko adierazleak	Ikuspegi laburtu eta orokorra ematen dute EAEn berdintasunak izandako aurrerapena modu azkar eta errazean komunikatzeko.	14 (12 adierazle estrategiko + 2 indize gomendatu)
Adierazle nagusiak.	EAEko berdintasunerako politiken funtsezko faktore eta helburu estrategiko bakoitza baloratzea ahalbidetzen dute.	27 (14 lehentasunezko adierazle + 13 osagarri)
Adierazle osagarriak	Ñabardurak eta informazio osagarriak ematen dituzte arestiko adierazle multzoak osatu edota kontrastatzeko.	17

6. taula. Adierazle nagusien eta osagarrien proposamenaren laburpena

Eremua/ Funtsezko helburua	Funtsezko faktorea	Adierazle nagusiaren izena	Adierazle osagarriaren izena
1. eremua: Berdintasunaren gobernantza			
1.1 Berdintasunerako esfortzu publikoa	1.1.1 Berdintasunaren gobernantzaren garapena	1 Berdintasunaren gobernantza indizea	1.C.1 Helburuen betetze-ehunekoa gobernantzaren garapenean
2. eremua: Jabekuntza			
2.1 Norberaren autonomia handitzea	2.1.1 Autopertzepzioa	2 <i>Euren itxura fisikoa onartzeko arazorik ez duten emakumeen proportzioa</i>	-
	2.1.2 Norberaren eremuko erabakimena	3 Eguneroko jarduera pertsonalei dagozkien erabakietan kontrol maila handia dutela uste duten emakumeen proportzioa.	3C1 <i>Euren sexu-desirei buruz hitz egitera ausartzen ez diren emakumeen proportzioa</i> 3C2 <i>Ugalketari lotutako kontuetan (metodo antikonzeptiboak, laguntza bidezko ugalketa, seme-alaba kopurua, eta abar) erabakitze askatasuna dutela uste duten emakumeen proportzioa</i>
	2.1.3 Familia eremuko baliabideei buruzko erabakimena	4 Emakumeak aurrekontu komunaren antolakuntzan parte hartzen duten familien proportzioa	-
2.2 Baliabide ekonomikoen eta sozialen eskuragarritasuna	2.2.1 Errentaren eskuragarritasuna	5 Bizitzeko baliabide nahikoak (errenta) dituzten emakumeen proportzioa	5C1 Irabazi txikiak dituzten soldatapeko guztien artean emakumeen proportzioa 5C2 Emakume-biztanleriaren errenta-dispersioa
	2.2.2 Bizigarritasun duineko baldintzen eskuragarritasuna	6 Etxebizitza egokietan bizi diren emakumeen proportzioa	-
	2.2.3 Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak eskuratzea eta menderatzea	7 Ordenagailua erabiltzeko gaitasun aurreratuak dituzten emakumeen proportzioa	-
2.3 Parte-hartze soziopolitikoaren eskuragarritasuna	2.3.1 Erabaki- eta prestigio-guneetarako irisgarritasuna	8 Emakumeen presentzia zuzendaritza karguetan	-
	2.3.2 Emakumeek eztabaida publikoan hitza izatea	9 <i>Emakumeek hedabideetako informazio- eta eztabaida-saioretan iritzi sortzaileak izateko duten presentzia</i>	9C1 Azken urtean interneteko eztabaida politikoko foro edo talde batean parte hartu dutela dioten pertsonen artean emakumeen proportzioa 9C2 Azken urtean hedabide batean gai politiko bati buruz duten iritzia adierazi izana (zuzendariarentzako gutunak, deiak irratitari,...) onartzen duten pertsonen artean emakumeen proportzioa
	2.3.3 Botere politikoan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua	10 Emakumeek betetako erantzukizun publikoko kargu hautetsien proportzioa	-

	2.3.4 Presentzia parte-hartze sozialeko guneetan	11 Emakumeen proportzioa aurreko urtean sindikatu, gizarte-mugimendu, auzo-elkarte, alderdi edo bestelako talde antolatu batean erabaki publikoetan eragiten ahalegintzeko parte hartu duten pertsona guztietatik	11C1 Partaidetza soziopolitiko maila handia (hiru mailaren artean) duten emakumeen proportzioa
2.4 Balio aldaketa	2.4.1 Genero-estereotipoak gainditzea	12 Sexuaren arabera bereizketa derrigorrezkoak ez diren ikasketen hautaketan	-
	2.4.2 Feminizatutako jarduerak sozialki baloratzea	13 Soldata-arrakala jarduera feminizatuen eta maskulinizatuen dauden jarduera-arloen artean	-
3. eremua: Gizarte antolamendu erantzunkidea			
3.1 Oreka lanen banaketan eta denboraren erabileretan	3.1.1 Oreka lan-zama osoan	14 Genero-arrakala eguneko lan-zama osoan (lan ordaindua + etxeko eta zaintzako lana + joan-etorri guztiak)	14C1 Kotizaziopeko alargun-pentsioen balio erlatiboa kotizaziopeko erretiro-pentsioekiko
	3.1.2 Ordaindutako lanaren banaketa	15 Genero-arrakala kotizatutako batez besteko urteetan	15C1 Gainokupaturiko langileen proportzioa 15C2 Genero-arrakala eguneko ordaindutako lan-zaman
	3.1.3 Ordaindu gabeko lanaren banaketa	16 Emakumeek egindako etxeko produkzioaren pisua etxeko produkzioaren guztizko balioarekiko	16C1 Etxeko eta etxean pertsonak zaintzeko ordaindu gabeko lanean gizonen emandako batez besteko orduen proportzioa emakumeek emandakoekiko 16C2 Lanaldi partzialaren eta zaintzako arduren arteko erlazioa gizonengan eta emakumeengan
3.2 Baliabide ekonomiko eta laneko baliabideen banaketa bidezkoa	3.2.1 Birbanaketa-politikak	17 Genero-arrakala gizarte transferentziei esker murriztutako txirotasun-arriskuan	-
	3.2.2 Lan berdintasuna	18 Soldata-arrakala	-
	3.2.3 Berdintasuna sektore estrategikoetan: I+G	19 Jarduera zientifikoetan diharduten emakumeen proportzioa (AOB)	-
3.3 Zaintzaren gizarte-erantzukizuna	3.3.1 Zaintzarako baliabide publikoak	<i>20 EAEn epe luzerako zaintza-politiketarako erabiltzen den BPGd-aren proportzioa</i>	20C1 Prestaziorako eskubidea daukaten eta hura jaso duten onuradunen proportzioa (mendekotasun mailaren arabera) 20C2 Familiaren nahiaz besteko arrazoiengatik haurtzaindegi edo ikastetxe batean zaintzen ez dituzten 0 eta 2 urte arteko biztanleen proportzioa
	3.3.2 Kontziliazioa enpresetan	21 Baimenak eskatzeko zailtasunak dituela uste duen biztanleria okupatua	21C1 16 eta 64 urte arteko soldatapekoak familia zioak direla-eta lanaldiaren hasiera edo amaiera gutxienez ordu batean aldatzeko duten posibilitatearen arabera
	3.3.3 Zaintza errazteko lurralde-antolamendua	22 Hurbileko zerbitzuak eta ekipamenduak eskura ditzaketen pertsonen proportzioa	-

4. eremua: Emakumeen aurkako indarkeria			
4.1 Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	4.1.1 Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	23 Azken urtean indarkeria motaren bat pairatu duten emakumeen proportzioa	23C1 Egun indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen proportzioa, hura duela urte bat eta hamar urte artean gertatzen ari delarik
	4.2 Emakumeen aurkako indarkeriarekiko tolerantzia errotik kentzea	24 Pairatzen duten indarkeria egoera identifikatzen ez duten emakumeen proportzioa	-
		25 Emakumeek eurek eragindako emakumeen aurkako indarkeria kasuak daudela esatearekin ados dauden pertsonen proportzioa	-
Gomendatutako konparaziozko adierazleak			
1 GDI-NBGP sintesi-indizea	Genero-desberdintasunaren indizea		
2 GGI-WEF sintesi-indizea	Genero-aldearen indizea		

** Letraketa etzan eta urdinean, erabilgarri ez dauden adierazleak idatzi dira.*

Honakoak dira hautatutako adierazleen **ezaugarri orokorrak**:

- Erreferentziazko sistemarekin sendotasunez datoz bat; adierazleak hari tinko lotuta daude.
- Berariazkoak dira eta ezagutarazi nahi duten gertakariari zuzenean lotuta daude.
- Esanguratsuak eta egokiak dira politikak aplikatzeko: 1) sektoreko egoera nagusia deskribatzen dute, 2) xedeak ezarri eta haiek ekintza bihurtzea ahalbidetzen dute.
- Argiak eta ulertzeko errazak dira, euren esanahiari buruz zalantzarik ez sortzeko.
- Fidagarriak eta zehatzak dira, eta haien formulazioa esplizitua da, zer balio mota den (absolutua edo erlatiboa, tasa, indize batena, eta abar) ulertzeko.
- Helburu argiak dauzkate nahi den egoeratik zer distantziara gauden ebaluatzeko eta erabaki egokiak hartzeko.
- Erabilgarri dauden –edo epe labur edo ertainean lortu ahal izatea aurreikusten den– datuetatik kalkula daitezke.


Kapitulu hau osorik erabili dugu adierazleak deskribatu eta justifikatzeko. Lehen atalean (3.3) adierazle estrategikoei heldu diegu eta, ondoren, konparaziozko sintesi-indizeei (3.4).

3.3 ADIERAZLE ESTRATEGIKOEN SISTEMA

Atal honetan sakonki deskribatu dugu adierazle estrategikoen sistema, eta proposatutako eremu, helburu, funtsezko faktore eta erreferentziazko adierazle bakoitzaren kontzeptualizazioa eta justifikazioa garatu ditugu, hurrenez hurren. Ikuspegi osoa eman ahal izateko, adierazle nagusiak eta osagarriak aletuko ditugu.


Identifikatutako 25 adierazle nagusietatik, % 75 erabilgarri daude EAEko edo, bestela, espainiar Estatuko estatistika-sisteman edo datu-sorkuntzakoan. Bestalde, adierazleen % 8 lehendik dauden adierazleak birformulatzeko proposamenak dira –adibidez, inkestako galderetan aldaketa batzuk sartuz– (3. irudia).

3. irudia. Adierazleak erabilgarritasun mailaren arabera




Bestalde, kalkulatu denez, 25 adierazleetatik % 84k zuzenean heltzen diote aztertu beharreko funtsezko faktoreari, eta % 16k zeharka heltzen diote (4. irudia).

4. irudia. Adierazleak esleipen mailaren arabera



Adierazleen erreferentzia-puntuaren arabera, adierazleen % 48k monitorizatutako faktorea betetzen duten emakumeen proportzioa adierazten dute, eta adierazleen % 32 emakumeen eta gizonen arteko arrakala gisa agertuko lirarteke (5. irudia).

5. irudia. Adierazleak erreferentzia-puntuaren arabera



25 adierazle nagusietako bakoitzaren **parametroak** 6.1 eranskinean jaso dira. Deskribapen-fitxetan honako parametro hauek sartu dira: adierazlearen izena, hura kalkulatzeko formula, hura kalkulatzeko datuak egiaztatzeko iturria, datuak sortzen dituen erakundea, hura kalkulatzeko oharpen batzuk eta balio erantsiaren identifikazioa ikono sistema baten bidez. Azpimarratu behar da haren kalkulurako oharpenen atalean adierazleen barneko desagregazioa egiteko parametroak iradoki direla, adierazle jakin horretarako dauden desberdintasunak sakonkiago aztertzeko³.

Jarraian adierazleak aurkeztuko dira, eremuen eta funtsezko helburuen arabera antolatuta. Adierazleen erreferentziak (zenbakiak) Eranskineko parametrizatze taulan erabilitakoei dagozkie.

³ Hala ere, kontuan hartu behar da inkestatik datozen datuetan, desagregazioa egiteko posibilitateak laginaren tamainaren araberakoak izango direla eta, beraz, adierazle askotarako datu desagregatuak erabilgarri ez egotea gerta daitekeela.

3.3.1 1. EREMUA: *BERDINTASUNAREN GOBERNANTZA*

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak ebaluatu ahal izateko monitorizatu behar den funtsezko elementuetako bat **herri-administrazioek** gai horrekiko duten **engaiamenduan egindako aurrerapenen jarraipena** da.

Genero-desberdintasunen nonahikotasuna dela-eta, politika publikoen ohiko alderdi guztiek heldu behar diote arazoari; horretarako, gobernuaren *mainstreama* edo ekintza-ildo nagusia birbideratu behar da, berdintasun-printzipioa administrazioaren prozesu eta sektore *guztietan* sistematikoki sartuz. Hortaz, estrategia argi eta iraunkorrak definitu eta ezarri behar dira administrazioen aldaketa instituzionala sustatu, eta egiturak, erakundeen dinamikak eta antolakuntza kulturak sakonki aldatzeko, hala genero-ikuspegia politiken diagnosi, diseinu, ezarpen eta ebaluazio prozesu guztietan sartzeko.

Administrazioaren beraren baitan aldaketa instituzionala sustatzea bilatzen duten ekimenak, beraz, garrantzi handiko helburua dira berdintasunerako politiketarako. Estatu eta nazioarte mailan, ordea, sarritan aldaketa instituzionaleko osagai hori ez da genero-politiken ikuspegi sektoriala bezain esplizitu eta sistematikoki garatu.

Horretarako zioetako bat aldaketa instituzional horiek gauzatzeko modu zehatza oraindik genero-berdintasunerako politiken erronka handietako bat izatea da. Zenbait testuinguru eta unetan, hainbat estrategia ezarri dira, zenbait erakunde-arkitektura, esku-hartze eredu, politika publikoko tresna eta metodologiarekin. Hala ere, orokorrean, haren aplikazio praktikoa eta eragiteko gaitasuna nahiko mugatuak eta irregularrak izan dira⁴.

Konplexutasun eta aniztasun horiek eta zehaztasunik eza direla-eta, eremu horretako jarraipen eta ebaluazio adierazleen definizioa ez da arreta oso handiz aztertu. Izan ere, **nazioarte mailan identifikatutako esperientzia** bakanek gehiago heldu diote ebaluazio adikorrek egiteari denboran izandako aurrerapenak erkatu eta monitorizatu ahal izateko adierazle zehatzak ezartzeari baino⁵.

Nazio Batuen Sistematan, esaterako NBGPk eta UN-HABITATEk txosten bana egin dute genero-*mainstreamingak* (GM) euren erakundeetan duen ezarpena ebaluatzeko; Munduko Bankuak erakundearen genero-politikak ebaluatu ditu, MGren ikuspegitik; eta LANek bere *mainstreaming*-estrategiari buruzko ebaluazioa egiteko metodologia identifikatzeko prozesuari ekin dio⁶.

Hala ere, LANeren azken esperientzia hori baino ez da hurbiltzen MGren strategiak barnean duen bilakaera ebaluatzeko adierazle multzo baten proposamenera (Bastia,

⁴ Hala erakutsi da, esaterako, hemen: Braithwaite, M. (2005) *Gender-sensitive and women friendly public policies: a comparative analysis of their progress and impact*, EQUAPOL proiektuaren azken txostena (2002-2005), EBren V. esparru-programak finantzatuak.

⁵ Proiektu honen esparruan ez da berriazko ikerketa sistematikorik egin nazioarte mailan GM eta aldaketa instituzionaleko indize eta adierazlerik dagoen ikusteko, baina bibliografia sakon aztertu da eta aipatu ekimenak atzeman ahal izan ditugu.

⁶ NBGPk, UN-HABITATEk eta MBk estrategia mistoak darabiltzate hura ebaluatzeko: hirurek aztertzen dituzte euren dokumentuak (proiektu zehatzak, erakundeen adierazpenak edo antolakuntza dokumentuak izan) eta tokian bertan egindako proiektuetako kasuen azterketak edo programak jasotzen dituzten herriak. Beraz, hurbilketa horiek batez ere kualitatiboak dira eta haien helburuek eta genero-*mainstreamingaren* definizioak gidatzen dituzte. Halaber, UN-Habitategen eta NBGPk iritzi-galdeketa egiten dizkiete euren langileei, eta MBk eta UN-habitategen xede berbera duten politikak egiten dituzten beste erakunde batzuekiko interakzioa ere ebaluatzen dute. Informazio gehiago izateko, ikus erantsitako bibliografia.

2000), ebaluazioa guztiz ezarrita ez dagoen arren. Edonola ere, ez du ematen erakunde horietan berdintasunaren gobernantzari lotutako sintesi-indizeei buruzko proposamenik garatu denik, euren jarduketa-eremuan eta egituretan erakunde oso konplexuak direlako.

Estatu eta nazioarte mailako beste administrazio batzuek ez bezala, EAEk ibilbide luzea dauka gobernantzako tresnak definitzen, baita araudi mailan ere, Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen bitartez. Aitzindaria izan da aldaketa instituzionaleko estrategia eraginkor bihurtzen, eta bere koherentzia eta sendotasun maila altuagatik, eta eremu horretako helburuen eta are ebaluazio-adierazleen zehaztasun mailagatik nabarmendu da⁷.

Beraz, lege-esparru argi eta anbizio handikoa egonda, eta lehenago egindako lanaren eta gobernu maila guztietako plangintza eta esku-hartze tresna indartsuen (legealdi bakoitzeko berdintasunerako planak, besteak beste) ezarpenaren ibilbidea sendoa izanik, EAE egoera ezin hobean dago genero-*mainstreaming*ean eta berdintasunaren gobernantzan egindako aurrerapenak aldian-aldian ebaluatzeko gai den adierazle bat garatzeko.

Xede horrekin, **indize** bat eraikitzea proposatu dugu. Haren oinarria EAEk **berdintasuna gobernatzeko** ezarri dituen **helburuen betetze mailari** buruz dagoen informazioa da. Helburu horiek oso identifikatuta eta garatuta daude EAEko lehenagoko araudian eta politiketan eta, gainera, bat datoz literatura espezializatuak eta nazioarteko esperientziek berdintasuna sustatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten funtsezko elementuekin.

Mainstreaming-indize horren irismena EAEko **herri-administrazio guztiak** dira, ez baitago eremu pribatuari buruzko datuak ematen dituen informazio-sistemarik. Etorkizunean enpresei buruzko datu sistematikoak egonez gero (berdintasunerako planen ezarpenari buruzko informazioa, adibidez), gai hori ere besterekin batera balora liteke.

Horren ondorioz, proposatu dugun gobernantza-indizeak euskal administrazio guztiek -gobernu mailen arabera bereizteko posibilitatearekin- berdintasunaren gobernantzaren funtsezko elementu batzuen ezarpenean izandako aurrerapena baloratzeari heldu dio.

Hurrengo ataletan, hasteko, gobernantzaren kontzeptualizazio prozesua deskribatu dugu, adierazlearentzat erreferentzia-esparrua ezartzeko, eta ondoren, gobernantza-adierazlearen proposamena deskribatu dugu xeheago.

Kontzeptualizazioa: Zer esan nahi du berdintasunaren gobernantzak?

Gure ikuspuntutik, indizearen osagaiak eta dimentsioak EJK orokorrean eta Emakundek bereziki euren ibilbidean berdintasunaren gobernantzak esan nahi duenari buruz garatu duten kontzeptualizazioan oinarritu behar dira. 4/2005 Legeak genero-ikuspegia

⁷ Hurrenez hurren egondako Berdintasunerako planetan eta EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005 Legean zenbait tresna eta lortu beharreko helburu ezarri dira botere publikoek euren funtsezko prozesuak eraginkortasunez aldatu eta berdintasun-printzipioa sar dezaten. Izan ere, indarrean dagoen Planak eta aurrekoek berariazko atala izan dute berdintasunerako gobernantzaren helburuak garatu eta zehazteko. Halaber, aldaketa instituzionalaren eremuan egindako apustuaren jarraitutasun eta egonkortasun maila altuak azpimarratu behar dira; era berean, jarraipen eta ebaluazio tresnak sistematikoki eta zabaltasunez garatzen ere aitzindariak izan dira.

botere publikoek gauzaten dituzten politika eta ekintza guztietan integratu behar dela xedatu du⁸.

Laburbilduta, EAEko berdintasunerako politiketan honako gobernantza-tresnak garatu dira:

7. taula. EAEko berdintasunaren gobernantza-tresnak 4/2005 Legearen, V. Planaren eta informazio-sistemaren arabera

Eremuak*	Gobernantza-tresnak	4/2005 Legea	V. Plana (multzoak)	Informazio-sistema (multzoak)	
Plangintza	Berdintasunarena	II. Titulua	A	A	
	Barnekoa	III. Titulua	-	B	
	Sektoriala	II. Titulua	J	K	
Egiturak	Unitateak edota agenteak	I. Titulua	B	C	
	Koordinazioa	I. Titulua	C	D	
	Partaidetza	Zeharka I. Titulua ⁹	M	E	
Ekonomikoak	Aurrekontuak	I. Titulua ¹⁰	I	F	
	Kontratazioa eta diru-laguntzak	II. Titulua	K	L	
Langileak	Barne-prestakuntza	II. Titulua	E	H	
	Giza baliabideen hautaketa	II. Titulua	F	I	
	Parekotasuna	Epaimahaiak	II. Titulua	L (id.)	M
		Kontsulta eta partaidetza organoak eta prozesuak	III Titulua	M (id.)	
Arauk (GBI)		II. Titulua	H	J	
Estatistikak		II. Titulua	D	G	
Hizkuntza ez sexista		II. Titulua	G	-	

*Tresnak eremu handiagoetan biltzea egileen proposamena da, alderdi komunak batu eta sintesi-indize baten osagaien definizioan aurrera egiteari begira. Guztiz eztabaidagarria da, ordea, eta erraz pentsa litezke bestelako elkarketak (adibidez, barneko plangintza langileen eremuan sartuz, besteak beste).

⁸ Lege horren ondoretarako, honela ulertzen da genero-ikuspegia integratzea: «emakumeen eta gizonen egoerak, baldintzak, nahiak eta premiak sistematikoki aintzat hartzea, desberdintasunak ezabatu eta politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta plangintza, egikaritze eta ebaluazio fase guztietan berdintasuna sustatzea bilatzen duten berariazko helburu eta jarduketak sartuz». Horretarako, II. tituluaren zenbait neurri xedatu dira genero-ikuspegia euskal botere eta herri-administrazioen jardueran integratzeko: II. kapituluaren, estatistika eta azterlanetan; III. kapituluaren, administrazioaren langileen gaikuntzari dagokionez; IV. kapituluaren, legegintza eta administrazioaren jardueran (genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa, hizkuntzaren erabilera ez sexista, genero-ikuspegia balorazio irizpideetan aintzat hartzea diru-laguntzak emateko eta kontratatzeke, eta bereizkeriarik gabeko hautapen-prozesuak egitea).

⁹ Zehazki, honakoa zehaztu da: «Harremanak eta partaidetza eta lankidetzak bideak ezartzea euren xede eta eginkizunengatik toki-mailan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzen duten erakunde publiko eta pribatuekin».

¹⁰ III. kapituluaren. Finantza-keta (administrazio guztiek Legea ezartzeko baliabideak euren aurrekontuan urtero zehaztu behar dituztela zehazten da).

Funtsezkoa da, beraz, berdintasunerako gobernantza garatzeko sintesi-indize batean osagai horiei guztiei edo haietako batzuei buruzko informazioa sartzea.

Gobernantza-indizeak eraginkor bihurtzea

Proposatutako adierazleak **oinarrizko gobernantza-tresnak garatu dituzten agenteen ehunekoaren** jarraipenari heltzen dio –euskal administrazioak izanik agenteak–.

Egin dugun **indize-proposamenaren** abiapuntua EAeko herri-administrazioetan ezarritako gobernantza-tresnei buruzko datuen erabilgarritasun mailaren balorazioa da, eta, berdintasunaren gobernantza-adierazle kalkulagarri eta erraza izanik, proiektu honetan eraikitako adierazle multzoan sartu da.

Indizearen balio erantsi nagusia EAeko gobernantza-politika hedatzeko faseei *egokitzeko gaitasuna* da. Zentzu horretan, gobernantzaren hedapen biziagoa egiten den heinean, indizearen osagaiak eta aldagaiak zabaltzeko aukera dago, espero diren emaitzen sakontasun mailari egokitzeko. Printzipioz, EAeko berdintasunerako politikaren informazio eta jarraipen sistemak, ezarpena sendotu ahala, zabaltze hori egitea ahalbidetuko luke.

Azken gogoetei buruzko atalean etorkizunean indizearen osagaiak zabaldu ahal izateko aintzat hartu beharreko elementu batzuk aipatu dira.

INDIZEAREN AZALPENA

Adierazi denez, egun kalkula litekeen gobernantza-indizea **berdintasunaren gobernantzaren oinarrizko tresnak ezarri dituzten agenteen batez besteko ehunekoa** neurtzen duen adierazlea litzateke (1. adi.).

Bildu dituen oinarrizko hiru tresnak honakoak dira: BERDINTASUNERAKO PLANAK; BERDINTASUNERAKO erakundeak, organoak edo UNITATEAK egotea¹¹; eta berdintasunerako erabiltzeko BERARIAZKO AURREKONTU AURREIKUSPEN bat egotea. Alegia, Legeko I. tituluko II. eta III. kapituluak eta II. tituluko I. kapitulua (V. Planeko A, B eta I multzoak). Osagaiak hala hautatuta, gutxieneko esku-hartze tresnei erreparatu diegu, haiek gabe, dagoen literaturak dioen bezala, oso zaila edo are ezinezkoa baita berdintasuna bultzatzea. Beraz, tresna horiek *beharrezkoak dira baina ez nahikoak*.

Era berean, halako adierazle bati esker gobernantzaren *hedadura* balora daiteke, baina ez *intentsitatea*. Hots, agenteek unitatea daukaten edo berariazko aurrekontua zehaztu duten jakingo dugu, esaterako, baina ezingo da baloratu langile horiek edo aurrekontuak berdintasunarekiko engaiamendu minimoa ala handia dakarten. Hala ere, egungo testuinguruan, EAeko herri-administrazio guztietan gobernantza-tresna arau-emaile horien hedapen maila erabatekoa ez denean, uste dugu indize proposamena oraindik dela esanguratsua eta estrategikoa berdintasunerako politikaren fase horren hedapena administrazio guztietan ebaluatzeko.

Proposatutako **berdintasunaren gobernantza-indizea** Berdintasunaren gobernantzaren 1. eremuan garatutako adierazle multzoan sartu da.

¹¹ Legeak xedatutako derrigorrezkotasun mailaren balorazioaren arabera eta konparagarria izan ahal izateko, baloratu behar litzateke berdintasunerako unitateak egotea baino sartzen ez den ala, aitzitik, berdintasunean berariaz diharduten langileak izatea nolabait parekotzat jotzen den.

8. taula. Berdintasunaren gobernantza-indizeari buruzko fitxa (1)

Adierazlearen izena	Berdintasunaren gobernantza-indizea
Eremua	1. Berdintasunaren gobernantza
Iturria	EAEko berdintasunerako politiken informazio-sistema
Erabilgarritasuna	Bai
Sail/ erakunde arduraduna	Emakunde
Adierazlea kalkulatzeko formula	(plana dutela dioten agenteen % + unitatea dutela dioten agenteen % + berdintasunerako berariazko aurrekontu-aurreikuspena dutela dioten agenteen %) /3 Kalkulatzeko beste formula bat hiru betekizunak betetzen dituzten agenteen % (zorrotzagoa) edo, aitzitik, gutxienez betekizun 1 edo 2 betetzen dituzten agenteen % (zabalagoa) izan liteke.
Unitateak	Agenteen proportzioa (herri-administrazioak)
Heina	% 0-% 100 (edo 0-1)
Joera	↑
Neurketaren periodikotasuna	Urterokoa izan liteke emaitzen urteroko ebaluazioa egiten bada.
Desagregazio faktoreak	Gobernu mailak Gobernantza-tresna mota (planak, unitateak, aurrekontu-aurreikuspena)
Oharrak	<p>* Adierazlea EJko sailei, Foru Aldundiei, mankomunitateei eta udalei, eta bestelako administrazioei –bestelako erakunde publikoei– aplikatuko litzaieke; ez litzaieke aplikatuko enpresa publikoei.</p> <p>* Beharbada informazio-sistema informatikoa abiarazi baino lehen egindako IV. Planeko urteroko ebaluazioak hartuta indize honen atzera begirako kalkulua egin daiteke, gutxi gorabehera.</p> <p>* <u>Kalkuluari buruzko oharra</u>: Gure ustez, Legean aspaldi aurreikusitako oinarritzko tresnak direnez gero, ehuneko agente kopuru osoa hartuta kalkulatu behar da, eta ez galderari erantzun dion agente kopurua hartuta; hala, erantzun gabeak ezezkotzat hartuko lirateke.</p> <p>Ikuspegi horrek, ordea, zailtasunak sor litzake toki mailan. Hala, udalei dagokienez, ehuneko kalkulatzeko oinarri hartutako agente kopuru osoa EAEn dauden toki erakundeen kopurua baino txikiagoa izatea proposatzen dugu. Gutxienez, udal handi eta ertain guztiak kontabilizatu behar lirateke, eta udal txikiei dagokienez, kopuru jakin bat ezarri (adibidez, aurreko erantzun mailaren arabera); egiturak sortzeko gaitasun txikia duten herri txikien kopuru handiak eremu honetako aurrerapenaren monitorizatzea distortsionatzea saihesteko.</p>

EGIAZTATZEKO ITURRIA

Proposatutako adierazlea berdintasunaren gobernantzaren oinarrizko tresnak ezarri dituzten agenteen proportzioaren batez bestekotik ateratzen da. Ebaluazio horretarako informazio iturria Emakundek azken hilotan ezarri duen EAEko Berdintasunerako Politiken Informazio Sistemaren galdetegia da.

Honako taulan iturria eta agenteek tresna bakoitza ezarri dutela irizteko –galdetegiari emandako erantzunetan oinarrituta– erabili beharreko eskala aurkeztu ditugu.

9. taula. Gobernantza-indizearen eratze teknikoak

Tresna	Iturri-galdera (informazio-sistema)*	Tresna ezartzen ari dela irizteko erantzunak
Planak	1.A.2 Zure erakundean indarrean dagoen berdintasunerako planik edo programarik daukazu egun?	Bai + diseinatzen
Unitateak	<i>Berariazko langileak daudela sartzeari buruz:</i> 1.C.1 Berdintasuna bultzatzen diharduen langilerik daukazu?	Bai
	<i>Unitate formal bat egotea baino sartzeari buruz:</i> 1.C.9 Formalki eratuta daukazu berdintasunerako organo edo unitate administratibo bat?	Bai + diseinatzen
Berariazko aurrekontua	1.F.2 Sailak, Foru Aldundiak, Udalak, mankomunitateak, bestelako administrazioek edo erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako esleitutako urteko aurrekontua.	Edozein erantzun «Ez daukagu aurrekontuaren banakatze hori» izan ezik.

* Jarri dugun galdetegiaren erreferentzia hura egin den unekoa da. Kontuan hartu beharko litzateke galderaren zenbakia sistema ezartzeko fasean alda litekeela.

Gobernantza-indizea zabaltzeko oharpenak

Proposatutako indizeak aukera ematen du osatzen duten osagaiak zabaltzeko eta, hala, Legean xedatutako gobernantzaren alderdi eta tresnetan haiek sartu ahala sakontzeko; ñabardura gehiagoz jaso daiteke haren aurrerapena hala. Zentzu horretan, Berdintasunerako Politiken Informazio Sistemak, potentzialki, informazio zabalagoa eman dezakeela berretsi da.

Beraz, informazio osoagoa biltzen duen beste indize konplexuago batek epe ertainean oraingo indizea ordeztu lezakeela espero daiteke. Indizea zabaltzeko planteamendu horrek progresiboa izan nahi du, eta zeharkakotasunerako prozesuari berari egokitzea bilatzen du. Hala, dagoen informazio-sistemaren ezarpena sendotu ahala garatu behar da zabaltzea derrigorrez, oraindik oso berria delako. Izan ere, hura eratzeko funtsezko erabaki asko –zer adierazle eta tresna lehenetsi– sistemaren funtzionamenduari eta indizea elika dezaketen galderei emandako erantzun mailari estuki lotuta daude.

Bestalde, halako zabaltzea egiteko honakoak hartu behar lirateke aintzat: a) zein liratekeen interes eta lehentasun handiagoko beste gobernantza-tresna batzuk, b) nola formula litezkeen tresna haiei lotutako adierazleak eta, ondoren, c) nola ezarri haiei dagozkien balorazio-atalaseak. Jarraian helduko diegu gai horiei.

Indizean sartu beharreko beste tresna batzuk lehenestea

Proposatutako indizean lehentasunez kotzat jotako tresna arau-emailei (planak, unitateak eta berariazko aurrekontuak) buruzko informazioa sartu bada, indizearen balizko zabaltzeak 7. taulan deskribatutako tresnetatik zein sartuko diren identifikatu behar du.

Tresna guztien adierazleak sartzeak erabilgarritasun urriko indize konplexuegia sortuko lukeenez gero, tresna horien guztien artean lehentasunak ezarri ahal izateko honakoak hartu behar lirateke aintzat:

- Tresnaren *garrantzia* jarduera publikoan genero-ikuspegia eraginkortasunez sartzeari begira. Zentzu horretan, literatura erkatuaren eta eskarmentu praktikoaren arabera, garrantzitsua da berdintasuna bultzatu edo monitorizatzeko ardura duten BERARIAZKO EGITURAK izatea, «jaberik gabeko lana» bihur ez dadin; halaber, garrantzitsua da eremu EKONOMIKOA eta ARAUEN formulazioa azpimarratzea, administrazioek esku hartzeko duten tresna nagusiak diren heinean.
- Gobernu mailen arteko *konparagarritasuna*. Gobernantza-tresnak ez dira berberak administrazio guztientzat, eskumenak direla-eta; beraz, administrazio guztiak agregatu nahi badira, elementu batzuk baztertu behar lirateke, beharbada –adibidez, araudiaren genero-eraginari buruzko txostenak–.
- Informazioaren *erabilgarritasuna* eta *fidagarritasuna* kontuan hartu beharreko beste elementu batzuk dira. Halako ezaugarriak dituen indize batek, hastapenetik, zailtasunak ditu informazioa lortzeko, baina euren ezaugarriak direla-eta, eremu batzuk bereziki zailak dira. Adibidez, ESTADISTIKA ETA AZTERLANETAN, HIZKUNTZA EZ SEXISTAN, PAREKOTASUNEAN edo LANGILEEN HAUTAKETAN izandako aurrerapenen kontua, zeinek, *a priori*, alderdi horiek bazterraraziko lizkigukete.

Aurrerantzean adierazlean sar daitezkeen tresna osagarriak identifikatzeko eta haiek aldaketa instituzionalaren eta berdintasun-printzipioa sartzearen berri emateko tresnarik esanguratsuenak direla bermatzeko balioko dute irizpide horiek.

ADIERAZLEEN AZALPENA

Indizearen osagaiak zabaldua, gobernantza-tresna gehiago sartu ez ezik, tresnen ezarpenaren zenbait alderdi balora ditzakegu. Tresna/osagai bakoitzeko, ezarri aurretik hainbat alderdi erakusten dituzten zenbait adierazle identifikatzera garamatza horrek. Adibidez, lehen faserako proposatutako indizean erreferentziatzeko adierazlea plana / unitatea / aurrekontu-aurreikuspena *egote* hutsa bazen, fase honetan harago joan eta beste alderdi batzuk, hala nola planen sailartekotasuna edo unitateen ezaugarri esanguratsuak, erakusten dituzten identifika liteke. Horretarako, ordea, astiro baloratu behar dira balorazio-aukerak eta -atalaseak.

Honako taulan indizea aberastu lezaketen eremu, tresna eta funtsezko faktoreen taula aurkeztu dugu:

10. taula. Gobernantza-adierazlea (zabaldua) osa lezaketen eremuak, tresnak eta funtsezko faktoreak

Eremuak*	Gobernantza-tresnak	Funtsezko faktoreak / adierazleak
Plangintza	Berdintasunarena	Berdintasunerako politika plana egotea Prestatzeko sailartekotasun maila Ezartzeko sailartekotasun maila
	Barnekoa	Barneko berdintasunerako plana egotea
	Sektoriala	GB plan sektorialetan (honakoak dauzkatenak: berdintasunerako helburuak edo neurriak, genero-analisia, genero-unitatearen parte-hartzea prestaketan)
Egiturak	Unitateak edota agenteak	Unitatea egotea Berariazko langileak egotea Langileek administrazio egitura osatzea
	Koordinazioa	Sailen barruko eta sailarteko berdintasunerako eta hari lotutako beste gai batzuetarako koordinazio-egiturak egotea
	Partaidetza	Berariazko partaidetza-organoak egotea Berariazkoak ez diren organoetan parekotasuna sartzea Berariazkoak ez diren organoetan berdintasunaren helb. sartzea Berariazkoak ez diren organoetan berdintasunerako erakundeek parte hartzea Berariazkoak ez diren organoetan berdintasuneko adituek parte hartzea
Ekonomikoak	Aurrekontuak	Berariazko aurrekontuak egotea Genero-ikuspegia duten aurrekontuak egotea (adibidez, aurrekontu orokorren edota programen GBI prestatuz)
	Kontratazioa eta diru-laguntzak	Kontratazioan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun-irizpideak sartzea
Langileak	Barne-prestakuntza	Prestakuntza egitea (orduak edota saioak) Prestakuntza-plana egotea Berdintasuneko edukiak dituzten saio ez berariazkoak egitea
	Giza baliabideen hautaketa	Genero-merituak sartzea Genero-edukiak sartzea
	Organoak / parekotasuna	Parekotasuna hautaketa epaimahaietan, kide anitzeko organoetan, beste organo batzuetan
Arauk (GBI)		Araudiaren GBI prestatzea Arauk aldatzea GBIn ondoren

Fase honetan indizearen osagaiak osatuko dituzten *eremuak* eta, haien barruan, funtsezko faktorerik interesgarrienak erakusten dituzten *adierazleak* hautatzeko prozesua egin behar da. Bestalde, beharrezkotzat joz gero, *haztapenak* edo pisu bereziak esleituz osagai bakoitzaren garrantzia modu desberdinean baloratu behar denetz ere erabaki behar da.

Adibidez, hiru osagai, plangintza + egiturak + tresna ekonomikoak, biltzen dituen indize bat ezar liteke; osagai bakoitza adierazle bat edo batzuk erabiliz eratuko litzateke eta adierazleei pisu berdina edo desberdina eman dakieke.

BALORAZIO ATALASEAK

Azkenik, indizean sartutako osagaiak eta adierazleak zabaltzen badira, egiaztatze iturriekiko (kasu honetan, informazio-sistema) *balorazio-atalaseak* ezarri behar litzazkieke adierazleei. Alegia, honakoa bezalako galderei buruz hausnartu: gure ustez, zer erantzunek adierazten du agentea gobernantza-tresna jakin bat garatzen ari dela? (adierazlea kalkulatzeko ahalbidetzen duen galdetegiko galderari dagokionez). Beste erantzun batzuk izan litezke, adibidez, agenteak, maiztasuna gorabehera, ekintza jakin bat egin duela esan badu, edo, aitzitik, modu gutxi gorabehera sistematikoan egiten badu baino ez sartzea. Hortaz, nabarmena da balorazio-atalaseak ezartzeko **hausnarketa instituzionaleko prozesu** bat egin behar dela, eta prozesu horretan berdintasunerako politikaren irizpideak eta balioak ez ezik, hura hedatzeko pentsatutako prozesua ere proiektatu behar direla.

Indizearen osagaien zabaltzea gidatuko luketen faseak azalduta, beste aukera bat ere proposatu dugu: haren orientazioa NORK (hots, gobernantza-tresna jakin batzuk garatu duten agenteen ehunekoa) azpimarratzen duen formulaziotik, ZER (Betetako helburuen ehunekoa gobernantzaren garapenean, 1C1 adi.) azpimarratzen duen formulaziora aldatzeko aukera ere badago. Balizko ikuspegi horrek indizea birbideratuko luke eta, gobernantza-tresnek agenteen artean duten ezarpen instituzionala baino gehiago, haren *intentsitate kualitatiboa* neurtuko luke. Beraz, agenteen arabera kalkulatu beharrean, tresnen arabera kalkulatu litzateke indizea.

EAEko administrazioen jarduera-eremuan gobernantzaren garapen maximoko erreferentzia ezarriko litzateke –orokorra eta tresnaren arabera– eta agenteek zer mailatan aplikatzen duten identifikatuko litzateke. Adibidez, eremu ekonomikoan betetze maximoa Berdintasunerako erabilitako aurrekontu-aurreikuspena izatea + Aurrekontuaren genero-eraginari buruzko txostenak egitea + Kontratazioan eta diru-laguntzetan berdintasun-irizpideak sartzea balitz, aurrekontu-aurreikuspena baino definitu ez duen agente batek gobernantza-helburuen % 33 beteko luke eremu ekonomikoan.

Edonola ere, agente guztien betetze mailaren baturak **governantzaren garapeneko helburuen betetze-indizea** emango liguke, eta ez liguke adieraziko zenbat agentek gauzatu dituzten ildo horretako ekimenak; informazio esanguratsua emango liguke, ordea, gobernantzan aurrera egiteko intentsitate mailari buruz, eta lorpen eta zailtasun nagusiak non dauden ere esango liguke.

11. taula. Berdintasunaren gobernantza-indizeari buruzko fitxa (2)

Adierazlearen izena	Berdintasunaren gobernantza-indizea
Eremua	1. Berdintasunaren gobernantza
Iturria	EAEko berdintasunerako politiken informazio-sistema
Erabilgarritasuna	Printzipioz epe ertainean egongo litzateke erabilgarri adierazlea, baina eraiki eta kontrastatu beharko litzateke.
Sail/ erakunde arduraduna	Emakunde
Adierazlea kalkulatzeko formula	Zehazten amaitzeke Aukera bat litzateke tresna bakoitza osatzen duten adierazleen eta tresnen arteko haztapenak ezartzea.
Unitateak	Garatutako berdintasunaren gobernantzaren helburuen eta tresnen proportzioa
Heina	% 0-% 100 (edo 0-1)
Joera	↑
Neurketaren periodikotasuna	Erabakitzeke. Printzipioz urterokoa izan liteke emaitzen urteroko ebaluazioa egiten bada.
Desagregazio faktoreak	Gobernu mailak Gobernantza-tresna mota
Oharrak	Indizearen osagaiak eta dimentsioak Emakundek gobernantzaren garapenean izandako joera egonkor eta sendotuan oinarritu badaitezke ere, haien datuen iturria EAEko berdintasunerako politiken informazio-sistema litzateke, eta hark lehen urratsak ematen hasi besterik ez du egin. Beraz, indizea garatu edota komunikatzeko mailakako estrategia ezarri beharko da, beharbada. Hura kalkulatzeko orduan gai batzuentzat erantzunik ez egoteak izan dezakeen eragina aintzat hartu beharko da, agian.

3.3.2 2. EREMUA: JABEKUNTZA

Jabekuntza honela ulertzen da: emakumeek, gizarte talde gisa, bizi dituzten egoeretan aldaketa positiboak bultzatzeko dituzten gaitasunak, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa indartzeko prozesua (León, 1997). EAEko berdintasunerako politiken kontzeptuzko esparruan, emakumeen jabekuntzak toki nagusia dauka; hala, uste izaten da berdintasuna banako eta eguneroko mailan nor bere burua garatzen duenean hasten dela, eta garapen hori aldaketa makrosozialen oinarria eta, aldi berean, haien ondorioa ere badela, gurpil bertutetsua sortuz.

Hortaz, funtsezko eremua da eta proposatutako adierazle nagusien % 48 bildu ditu. Haietatik, erdiak norberaren autonomia handitzeari eta baliabide ekonomiko eta sozialak eskuratzeari dagozkie, funtsezko helburu iritzi baitzaie bie. Funtsezko bi helburu horien adierazleen abiapuntua ez da emakumeen eta gizonen egoera erkatzen duen arrakalaren ikuspegia, emakumeen gaitasunak garatzeko funtsezko faktoreak atzeman nahi dituztelako; garapen horretan gizonen ez dute erreferentziatzeko talde inplizitua izan behar.

Jabekuntzaren funtsezko beste bi helburuen ikuspegia makrosozialagoa da: partaidetza soziopolitikoak, eta balio aldaketa. Bigarren talde horretan, arrakalaren ikuspegia beharrezkotzat jo da errealitatea ulertzeko. Lehenengoari dagokionez, gogoeta

demokratikoan eta botere-guneetako partaidetzan emakumeek pairatzen duten eskusio erlatiboaren berri eman nahi du, eta horretarako gizonen eta emakumeen presentzia % 50ekoa izatea izan daiteke legearen xedea. Bigarrenari dagokionez, genero-ideologia deritzonaren iraupena ebaluatu nahi da; ideologia horrek emakumeei lotutzat jotzen diren balioak gutxiesten ditu eta, hala, emakumeari dagokiona bereizi eta hierarkizatzen da, eta gizonak eta emakumeak hautatzeko izan behar dituzten gaitasunak murrizten dira.

Eremu honetako adierazle gehienak erabilgarri egon arren, kontu hauexetan aurkitu ditugu erabilgarritasuneko eta datuak interpretatzeko arazorik handienak (batez ere, norberaren autonomiari dagokionez), eta, halaber, eremu honetan jo da maizen iritzi-inkestetatik ateratako iturrietara, informazio zuzenagoa lortzea zaila delako.

12. taula. Jabekuntzari buruzko adierazle nagusien proposamenaren laburpena*

Funtsezko helburua	Funtsezko faktorea		Adierazlearen zenbakia eta izena	
2.1 Norberaren autonomia handitzea	2.1.1	Autopertzepzioa	2	<i>Euren itxura fisikoa onartzeko arazorik ez duten emakumeen proportzioa</i>
	2.1.2	Norberaren eremuko erabakimena	3	Eguneroko jarduera pertsonalei dagozkien erabakietan kontrol maila handia dutela uste duten emakumeen proportzioa
	2.1.3	Familia eremuko baliabideei buruzko erabakimena	4	Emakumeak aurrekontu komunaren antolakuntzan parte hartzen duten familien proportzioa
2.2 Baliabide ekonomikoen eta sozialen eskuragarritasuna	2.2.1	Errentaren eskuragarritasuna	5	Bizitzeko baliabide nahikoak dituzten emakumeen proportzioa
	2.2.2	Bizigarritasun duineko baldintzen eskuragarritasuna	6	Etxebizitza egokietan bizi diren emakumeen proportzioa
	2.2.3	Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak eskuratzea eta menderatzea	7	Ordenagailua erabiltzeko gaitasun aurreratuak dituzten emakumeen proportzioa
2.3 Parte-hartze soziopolitikoaren izan ahal izatea	2.3.1	Erabaki- eta prestigio-guneetarako irisgarritasuna	8	Emakumeen presentzia zuzendaritza karguetan
	2.3.2	Emakumeek eztabaida publikoan hitza izatea	9	<i>Emakumeek hedabideetako informazio eta eztabaida saioetan iritzi sortzaileak izateko duten presentzia</i>
	2.3.3	Botere politikoan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua	10	Emakumeek betetako erantzukizun publikoko kargu hautetsien proportzioa
	2.3.4	Presentzia parte-hartze sozialeko guneetan	11	Emakumeen proportzioa aurreko urtean sindikatu, gizarte-mugimendu, auzo-elkarte, alderdi edo bestelako talde antolatu batean erabaki publikoetan eragiten ahalegintzeko parte hartu duten pertsona guztien artean
2.4 Balio aldaketa	2.4.1	Genero-estereotipoak gaititzea	12	Sexuaren arabera bereizketa derrigorrezkoak ez diren ikasketen hautaketan
	2.4.2	Feminizatutako jarduerak sozialki baloratzea	13	Soldata-arrakala feminizatuen eta maskulinizatuen dauden jarduera arloen artean

* Letra etzan eta urdinean, oraindik erabilgarri ez dauden adierazleak idatzi dira.

Jarraian adierazle bakoitzaren deskribapena aurkeztuko dugu, funtsezko helburuen arabera antolatuta.

2.1 funtsezko helburua. Norberaren autonomia handitzea

Autonomia giza gaitasuna da, eta eguneroko bizi eremu guztiei, alderdi psikologikoei eta eguneroko bizitzako arlo pertsonal eta familiakoei eragiten die. Jabekuntza posible izateko, beraz, emakumeen autonomia handitu behar da. Horretan, autozainketa eta autoestimua praktika kontzientea eta eguneroko erabakien kontrol gero eta handiagoa sartzen dira. Funtsezko baldintzak dira elementu biak norberaren gaitasunak garatzeko, eta zenbait baliabide, hala nola ordaindutako lana, benetan –eta ez bakarrik formalki– eskuratzeko. Hala ere, autozainketan, eguneroko eremuko autonomian eta autogarapenean izandako aurrerapenei buruzko informazioa lortzea, funtsezkoa bada ere, zaila da. Gehienbat, iritzi-inkesten iturriez fidatu behar da, eta emakumeen eremu horretako errealitatea zuzen ez jasotzea gerta dakieke¹².

Emakumeen jabekuntza errealitatea izan dadin, beraz, emakumeen autonomia eremu psikologikoan –erabakiak eraginkortasun handiagoz hartzeko–, eta eremu fisikoan eta gorputzaren zaintzaren eremuan areagotu behar da (Emakunde, 2010). Osasunerako politiketan autozainketaren alderdi garrantzitsuak sartu, eta lotutako adierazle esanguratsuak ematen dituzten arren (esaterako, autozainketarako zerbitzuak eskuratzeko), gure proposamenean autobaieztapena lehenestea erabaki da. Hari dagokionez, gure ustez garrantzitsua da emakumeen errealitateari egokitutako **autopertzepzioa** (2.1.1 FF) izatea. Autopertzepzio hori,aldi berean, autoestimu eta autozainketa mailaren emaitzatzat eta haren eragiletzat jo daiteke. Hautatutako adierazlea **Euren itxura fisikoa onartzeko arazoak dituzten emakumeen proportzioa** da (2. adierazlea)¹³. Hala, norberaren irudiaren eta gorputzaren pertzepzioa atzeman nahi da, ingurune sozial, ekonomiko eta mediatikoan emakumeak «izaki ezinezkoak» izan daitezen dagoen presio gero eta handiagoari lotuta dagoelako, eta praktikan eragin handia daukalako osasunean.

Autopertzepzioaren elementu horretatik harago, emakumeen autonomia, lehenbizi, eguneroko bizi eremuetan, hots, eremu pertsonal, familiar eta sozialean, benetan erabaki ahal izateko gaitasunaren bidez agertzen da. Horri dagokionez, funtsezko bi faktore identifikatu dira: **Norberaren eremuko erabakimena** (2.1.2 FF) eta **Familia eremuko baliabideei buruzko erabakimena** (2.1.3 FF). Lehenengoari dagokionez, esanguratsua iritzi zaio **Eguneroko jarduera pertsonalei dagozkien erabakietan kontrol maila handia dutela uste duten emakumeen proportzioa** (3. adi.) atzemateari¹⁴. Jarduera horietan aisia eta kultura, denbora erabilgarria, norberaren

¹² Azterlan honetan ikusi denez, edertasun-ereduen presioak eragindako autopertzepzio arazoei, sexu-autonomiaren erabilerari eta familia unitateko kideek duten erabakimenari buruzko datu estatistikoak hobeto ezagutu behar lirateke.

¹³ Horren ordez, hautemandako osasunari edo emakumeengan depresio egoerak nagusitzeari buruzko adierazleak erabil litezke; proposamen honetan, ordea, printzipioz ez ditugu sartu, gure ustez esanguratsua delako emakumeen autoirudiaren arazoari begiratzea, aurre egin behar dieten gehiegizko gizarte eskakizunei buruz (lan-zama, irudia, e.a.) hitz egiten digun adierazlea delako.

¹⁴ Inkestako galdera baten bidez (zure eguneroko jarduerari eragiten dieten erabakiak hartzeko nolako kontrola daukazula sentitzen duzu?) eraikitzen da.

baliabide ekonomikoak, kontsumoa, mugikortasuna, eta abar sar daitezke. Adierazle horrek emaitza onak eman ditu gaur egun (2007an emakumeen % 74k esan zuen erabakiak hartzeko kontrol handia zutela). Era berean, argi dago oso orokorra dela eta emakumeek euren egunerokotasunean dituzten benetako zailtasunen berri ez ematea gerta daitekeela; hala ere, alor honetan informazio erabilgarririk ez dagoenez gero, uste dugu garrantzitsua dela proposatutako sisteman sartzea.

Adierazle osagarrietan, sexu- eta ugalketa-askatasunaren arazoari begiratu diogu, uste dugulako sexualtasun askea, ugaltzeari lotuta ez dagoena, erabiltzea funtsezkoa dela autonomiarako eta, halaber, erresistentzia handiak gertatzen direla gai horretan; izan ere, aldaketak dakartza botere-harremanetan, haren dimentsio pribatu eta barnekoenean (Emakunde, 2010). Horregatik proposatu da Euren sexu-desirei buruz hitz egitera ausartzen ez diren emakumeen proportzioa (3C1 adi.) emakumeek bizitza betea garatzeko hain funtsezkoa den eremu pertsonal hori zer mailatan kontrolatzen duten ezagutzeko modu gisa. Emakumeek ugalketari lotutako kontuetan erabakitze askatasunari buruz duten pertzepzioa (3C2 adi.) jasotzen duen adierazleak ere informazioa ematen du historia osoan emakumeen askatasunean funtsezkoa izan den eremu batean daukaten erabakimenari buruz.

Familia eremuko baliabideei buruzko erabakimenak (2.1.3 FF) baliabideei buruz eta aldi berean, zeharka, elkarbizitza moduei, bizi aukerei eta abarri buruz erabakitze posibilitatea jasotzen du. Familiari eta tradizioari oso lotutako gizarte egitura batean, zeinetan familia unitate bakoitzeko «familiaburuak» tradizioz unitate horretako kide ziren emakumeen garapen autonomoa galarazten baitzuen, ulertu da emakumeek unitate horren baliabideak negoziatzeko duten gaitasuna monitorizatzeko gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanen pixkanakako berregituratzea adieraz dezakeela. Zentzu horretan, etxeko aldaketa mota horiek gizarte eremu guztietako aldaketa sozialen emaitza eta aldi berean oinarriak izan daitezkeela uste da. **Emakumeak aurrekontu komunaren antolakuntzan parte hartzen duten familien proportzioak** (4. adi.)¹⁵ emakumeen jabeakuntzak arlo ekonomikoan izandako aurrerapenak erakuts ditzake, familia bizitzako erabakiak ahalbidetzeko funtsezko elementua izanik.

Norberaren eremuan eta familia eremuan erabakitze gaitasunaz gain, emakumeek gizarte eremuan erabakitze duten gaitasuna ere garrantzitsua da. Emakumeen autonomiarako funtsezkoa den azken alderdi hori, Parte-hartze soziopolitikoaren eskuragarritasuna (2.3 helb.) helburuan sartu da.

¹⁵ Adierazlea inkestako -PGDI- galdera baten bidez eraikitzen da («Nor arduratzen da aurrekontu komuna antolatzeaz?» eta honako erantzunak eman daitezke: Batera; Pertsona nagusia; Ezkontidea edo bikotekidea; Etxeko beste pertsona bat). Etxeko eta zaintzako zereginen ardura duela-eta, maiz eguneroko familia-aurrekontua kudeatzeko arduraduna emakumea dela kontuan izanda, agian negoziatzeko eta egiazko kontrola izateko duen gaitasunari balio handiegia ematen ari zaiola kontuan hartu behar litzateke. Adierazle egokiagoa izan liteke gastu garrantzitsuetara mugatzen dena, pobrezia eta gizarte-desberdintasunei, bizi baldintzei edo kontsumoari buruz dauden inkestetan sartuz. Zentzu horretan, beste datu iturri batzuetan (EINren Bizi baldintzei buruzko 2010eko inkestan, adibidez) bestelako erabakiei buruzko informazio zehatza eman da (erabaki garrantzitsu orokorrak hartzea, kreditua eskatzea -hipotekak eta epekako erosketak biltzen ditu-, aurrezkien erabilera, kontsumo-ondasun iraunkor baten edo altzari baten erosketa, eta haurrei lotutako gastu handiak). Inkesta horrek autonomia erkidegoen arabera bereizitako datuak eman arren, erabaki pertsonalak hartzeko gaitasunaren multzo horri buruzkoak ez daude webean erabilgarri. EINri zuzenean eskatuta EAeri buruzkoak lor daitezkeen ikusi behar litzateke.

2.2 funtsezko helburua. Baliabide ekonomikoen eta sozialen eskuragarritasuna

Baliabide ekonomikoak eta sozialak eguneroko bizirako behar diren hainbat motatako zerbitzuak eta ondasunak dira. Baliabide horiek hezkuntzakoak, osasunekoak, soziokulturalak, ezagutzak, azpiegiturak, mugikortasuna, ekonomikoak (errentak, gizarte-prestazioak barne), jabetzak (enpresakoak, nekazaritzakoak, eta abar) eta lan-baliabideak izan daitezke. Horiek lortzea baldintza minimoa da jabekuntzarako; izan ere, haiek izan gabe, ezinezkoa da norberaren autonomia handitzea, eta bizi-eremu guztietan erabakitzeke gaitasuna lortzea.

Baliabide horiek izatea herritarren gaitasunak garatzeko baldintza minimoa den heinean, haien eskuragarritasunaren ikuspegia hartu da; hots, emakumeen eta haien premien egoera hartu da abiapuntu, eta ez gizonaren egoerarekiko konparazioa, baina interesgarria izan daiteke analisi konparatuaren ikuspegi hori ere sartzeari, adierazleak sakonkiago interpretatu nahi direnean.

Hiru baliabide mota, i) errenta, ii) etxebizitza duina, eta iii) teknologia berriak, lehenestea hautatu da; izan ere, emakumeen jabekuntzarako oso garrantzitsuak direla uste dugu. Beraz, alde batera utzi dira baliabideen eskuragarritasuna monitorizatzeko sartu ohi diren beste elementu batzuk; bereziki, hezkuntza, osasuna, lan eremua eta mugikortasuna.

- *Hezkuntzari* dagokionez, emakumeen jabekuntzan, noski, funtsezko kontua bada ere, EAEko hezkuntza-sistemak estaldura zabala bermatzen duenez eta egun prestakuntza duten emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa izanda, identifikatu dugu hezkuntza eremuan arazoa, hura eskuratzea baino gehiago, bereizkeria dela (alderdi hori ere sisteman sartu dugu, baina berdintasunerako funtsezko beste helburu batean).
- Era berean, egun EAEn *osasuna* eskuratzea bermatutzat jotzen da, baina epe ertainean arreta berezia jarri beharko zaio gaiari, hura eskuratzeko baldintzak gogortzen eta lan-jarduerari lotzen jarraitzen den heinean, egungo krisi ekonomikoa dela-eta lan-jarduera gutxitzen ari denean, hain zuzen ere.
- Bestalde, *lan-eremua* zenbait modutan jaso da adierazle-sisteman, funtsezko beste helburu batzuei lotuta, funtsezko dimentsio horrek emakumeei dakartzkien arazo ugariak, lana eskuratzeari ez ezik, hari eusteari, eskuratutako lan motari, eta abarri ere lotuta daudelako.
- Azkenik, *mugikortasunari* dagokionez, zailtasunak izan ditugu emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ebaluatu ahal izateko adierazle esanguratsuak aurkitzeko eta, beraz, gaia monitorizatzea baztertu dugu.

Errentaren eskuragarritasuna (2.2.1 FF) funtsezkoa da emakumeen jabekuntzarako; izan ere, baliabide ekonomikoen eskuragarritasun minimoak egiazko gaitasuna ematen du euren bizitzan norabideari buruzko erabakiak hartzeko; era berean, funtsezko beste faktore batzuetan gertatu bezala, bitarteko elementua da eta izugarritzko garrantzia duten beste baliabide batzuk eskuratzea errazten du. Esparru horretan, esanguratsutzat jo da **Bizitzeko baliabide nahikoak dituzten emakumeen proportzioa** (5. adi.) identifikatzea. Nahikotzat jotzen den errenta atalasea Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak (PGDI) ezarritakoa litzateke. Atalase hori esanahi

zabalean hartu dugu, metaketako pobrezia eta ongizaterik eza ere bilduta¹⁶. Pobrezia familia mailan ebaluatu ohi bada ere (eta behin eta berriz berretsi da emakumeak buru dituzten familien feminizatzea), garrantzitsua deritzogu banakako mailan behatzeari eta, horregatik, egiaztatzeko iturri, Errenta Pertsonalaren Estatistika erabiltzea iradoki dugu. Hala, ongizate minimorako baliabide nahikorik ez duten emakumeen kopurua handitu edo txikitzen den identifikatu nahi da, zein ere den familia-egituran duten tokia¹⁷.

Horrekin batera, Soldatapeko guztiekiko irabazi txikiak dituzten emakumeen proportzioa¹⁸ (5C1 adi.) ere neurtzea proposatu da; izan ere, lan-eremua funtsezkoa da baliabide ekonomikoak lortzeko, eta eremu horretan emakumeak kolokan egoteak eragin handia dauka. Zentzu horretan, EINen datuen arabera, 2009an espainiar Estatuan irabazi txikiak zituzten soldatapeko guztietatik emakumeak % 64,2 ziren, soldatapeko guztien % 46 izan arren (BAIren arabera).

Bestalde, 5. adierazlean lortutako informazioa Emakume-biztanleriaren errenta-dispersioari (5C2 adi.) lotutako adierazle batekin edo Giniren koefizientearekin kontrolatzea proposatu da. Baliabide ekonomiko gehien duten emakumeen eta baliabide gutxien duten emakumeen arteko tartek murrizteko edo handitzeko joera duen jakin nahi da. Emakumeen errentari aplikatutako Giniren indizeari buruzko daturik aurkitu ez bada ere, badakigu EAEko biztanleria osoarentzat 0,57 dela¹⁹, eta hori da erreferentziatzko balioa etorkizuneko konparazio baterako. Kontuan hartzen bada, Martínezek eta Moranek (2009) deskribatzen dutenez²⁰, emakumeek euren errentak batez besteko errenten azpiko tartetan metatuago dauzkatela gizonezkoek baino²¹, pentsa liteke emakumeei dagokien Giniren indizea txikiagoa litzatekeela; hots,

¹⁶ Pobreziaren definizioan Pobrezia eta Gizarte-Desberdintasunei buruzko Inkestan jasotako pobrezia egoera nagusiak sartu ditugu (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila, 2009: 2): a) Pobrezia-arriskuko edo mantenu-pobreziako egoerak; egoera horiei dagozkien errealitateetan sarrera ekonomikoak ez dira aski premia oinarritzkoenak, batez ere elikadura, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak ordaintzeko ohiko gastuei lotutakoak, bete ahal izateko; eta b) Ongizaterik ezeko arrisku egoerak; azken horietan, sarrera ekonomikoak ez dira potentzialki aski, oinarritzko premiak betetzetik harago, gizarte jakin batean espero diren ongizate eta erosotasun maila minimoei eutsi ahal izateko behar diren gastuei aurre egin ahal izateko.

¹⁷ Errenta atalaseei buruzko adierazleak oso erabiliak eta sendotuak badira ere, kontuan hartu behar da adierazle erlatiboak direla –errenta pertsonal garbiaren medianaren ehuneko baten arabera kalkulatuak. Hori dela-eta, ez da zuzenean baloratzen pertsonen edo familien oinarritzko premia jakin batzuk betetzeko duten gaitasuna, biztanlerian errenta nola banatzen den baizik. Egungo krisi sakoneko testuinguru batean garrantzitsua da ñabardura hori aintzat hartzea; izan ere, gerta daiteke –gertatu egin den bezala– talde jakin batzuen (adibidez, pentsiodunen) pobrezia erlatiboa murriztea, eta egoeraren hobekuntzagatik izan beharrean, biztanleriaren okerragotze eta txirotze orokorragatik eta langabeziaren hazkunde oso handiagatik izatea, horrek adierazle erlatiboak hobetzen dituelako. Zailtasun hori gainditzeko, beste datu iturri batzuetara –hala nola bizi baldintzei edo pobreziari buruzko inkestetara– jo behar litzateke, baina horiek ere zailtasunak izan ditzakete banakoen arabera egin ordez, familien arabera egiten badira.

¹⁸ Alegia, batez besteko irabaziaren 2/3en azpitik.

¹⁹ 18 urte eta gehiagoko biztanleriarentzat, sarrerarik ez dutenak barne (Martínez eta Morán, 2009). Lurreko historiko guztietarako kalkulatuak da, EAE osorako balioarekiko, indizea apur bat handiagoa litzatekeela Bizkaian, 0,58, eta apur bat txikiagoa Araban (0,55) eta Gipuzkoan (0,56).

²⁰ Errentaren mailakako banaketari buruzko datuak administrazio erregistroetatik, hala nola PFEZri dagokion zerga-erregistrotik, ateratako informazioarekin eta informazio estatistikoarekin, hala nola 2001eko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldarekin eta Biztanleria erregistroarekin, batera aztertuta.

²¹ Gizonezkoen % 59k batez besteko errenta –17.820 euro– edo txikiagoa luketen bitartean, emakumeen kasuan, % 66k daukate batez besteko errenta –7.840 euro– edo txikiagoa.

emakumeen artean berdintasun ekonomiko handiagoa legokeela gizonetzkoen artean baino. Zentzu horretan, adierazlea ez da erabilgarria gizonetzko-biztanleriarekin erkatzeko. Oso esanguratsua deritzogu, ordea, adierazle horri jo ahal izateari, emakumeen egoera orokorra hobetu arren emakume talde batzuen baldintzak okertzen diren egoerak identifikatzeko *egiaztatze edo kontrol* faktore gisa; izan ere, dauden politiken planteamendua birpentsatu eta birbideratu behar litzateke hori gertatuz gero.

Bestalde, etxebizitzaren eskuragarritasuna beharrezko baldintza da bizi eremu guztietan garatu ahal izateko, eta mundu mailan oinarrizko eskubidea dela onartuta dago²². Etxebizitzaren eskuragarritasunari –alokairuan zein jabetzan– buruzko datu fidagarri eta esanguratsuak lortzeko zailtasunak ikusita, **Bizigarritasun duineko baldintzen eskuragarritasuna** (2.2.2 FF) nabarmendu dugu funtsezko faktore. Izan ere, etxebizitza-kolokatasuna bizi aukerak murrizten dituen funtsezko faktorea da eta ahultasuneko egoerek konpondu gabe dirautela jakinarazten digu.

Arazo hori atzemateko, **Etxebizitza egokietan bizi diren emakumeen proportzioa** (6. adi.) identifikatzeko adierazle bat proposatu dugu. Hura eraikitzeke bi iturri erabil litezke: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (JLGSS, 2009) eta Bizi Baldintzei buruzkoa (EUSTAT, 2009). Euren eraketa dela-eta bi adierazle apur bat desberdin emango lizkigukete (6.a adi.: Bizigarritasun arazo larririk gabeko etxebizitzetan bizi diren emakumeen proportzioa edo 6.b adi.: Oinarrizko zerbitzuak eta ekipamenduak dituzten etxebizitzetan bizi diren emakumeen proportzioa), baina etxebizitzaren baldintza orokorreari eta ekipamenduari buruzko informazioa emango ligukete biek²³.

Azkenik, pentsa daiteke **Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak eskuratzeak eta menderatzeak** (2.2.3 FF) garrantzi gero eta handiagoa izango dutela pertsonak eta taldeak gizarteratzeko, eta, aldi berean, egungo gizartean norik bere burua garatzeko oinarrizko gaitasuna eta lan, administrazio eta zerbitzu eremuekiko funtsezko bitartekotza tresna bihurtu dela²⁴. Gainera, eremu honetan genero-arrakala handia sumatu ohi da, batez ere profil batzuetan (adin handia, prestakuntza maila txikiagoa, esaterako) eta IKTen erabileraren alderdi batzuetan (erabiltzaile aurreratuak, edukien ekoizpena, alderdi teknikoak, eta abar). Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren arabera (Eustat, 2012), ez-erabiltzaile eta noizbehinkako erabiltzaile kategorietan emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa da. Zentzu horretan, emakumeen % 38,1 ez dira erabiltzaileak; gizonetzkoek dagokienez, ordea, ez-erabiltzaileek pisu txikiagoa dute (% 31). Halaber, adin handiagoko tartetean eta biztanleria ez-aktiboan genero-desberdintasunek are nabarmenagoak diruditela nabarmendu da.

²² Europako Giza Eskubideak Hirian Babesteko Gutuna eta NBren Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Zibilen Nazioarteko Hitzarmena) eta Espainiako Konstituzioa.

²³ Lehenengo kasuan, etxebizitzaren bizigarritasunerako beharrezkotzat jotzen diren elementu batzuk dauden (ur beroko instalazioa, instalazio elektrikoa, irola, bainuontzia edo dutxa, hezetasunik eza, pertsonako 20 m²-tik gorako azalera erabilgarria eta zaratarik eta kutsadurarik eza) galdetzen da eta aldi berean etxetresnak dauden edo etxebizitzaren egoerari eta erosotasun mailari buruzko pertzepzioaz ere galdetzen da. Bigarrenetan, hainbat zerbitzu (besteak beste, ur beroa, segurtasuneko sarraila eta berogailua jo genitzake oinarritzotzat) eta ekipamendu (haien artean, oinarrizko etxetresnak azpimarratuko genituzke: telefono finkoa, hozkailu-izozkailua, garbigailua eta sukaldea) identifikatzen dira.

²⁴ Zentzu horretan, UCMk, Emakumearen Erakundearen babespean, e-berdintasunaren indizea sortu zuen, eremu horretako genero-arrakala neurtzeko, eta interes handia du (Castaño, Martín eta Martínez, 2011).

Hortaz, oinarrizko ekipamenduaren eskuragarritasunetik edo hastapeneko erabiltzaile mailako erabileratik harago, teknologiak nolabait menderatzen izandako aurrerapena baloratzen duen adierazle bat proposatu dugu, epe labur eta ertainean (Internetarako konektibitatearen aurrerapen azkarra kontuan izanda, adibidez, gazteen artean % 90eraino iristen bada, genero-arrakala gero eta txikiagoa izanda) elementu horiek izango baitira eskusio-eragileak. Hala, adierazlearen xedea **Ordenagailua erabiltzeko gaitasun aurreratuak dituzten emakumeen proportzioa** (7. adi.) identifikatzea litzateke, IKTak erabiltzeko gaitasunak baloratu ahal izateko.

2.3 funtsezko helburua. Parte-hartze soziopolitikoaren eskuragarritasuna

Emakumeen parte-hartze soziopolitikoaren haien jabekuntzaren funtsezko oinarria da, banakako eta gizarte osoko mailako erabaki garrantzitsuetan parte hartu eta kontrola izateko funtsezko faktorea delako. Gainera, eremu horretan aurrerapen esanguratsuak gertatu badira ere, erresistentzia handiak ere izan dira.

Zentzu horretan, garrantzitsua da emakumeek gizarte, ekonomia eta politika mailako botere- eta erabaki-guneetan duten presentzia monitorizatzen jarraitzea; baina, era berean, erabakimenari lotutako beste alderdi batzuei ere heltzen hasi behar zaiela uste dugu, gutxiago ikertu izan ohi direlako. Adibidez, emakumeek euren hitza izateko eta eztabaida publikoan parte hartzeko duten gaitasuna, alde batetik, eta erabaki-gune garrantzitsuetan –politikoetan ez ezik, gizarte eta ekonomia erakundeetan eta hedabideetan ere bai– lortzen duten egiazko eragina nabarmendu nahi ditugu. Hori dela-eta, 2.3 helburuko adierazleak erabaki-guneetarako (botere politikokoari ez ezik, gizarte eta enpresa eremuei ere dagozkien esparruak) irisgarritasunari, hedabideetan duten hitzari eta partaidetza sozialeko guneetan emakumeek duten presentziari begira jarri ditugu.

Eremu publiko eta pribatuetan **Erabaki- eta prestigio-guneetarako irisgarritasuna** (2.3.1 FF) izatea ere funtsezkoa da jabekuntzarako, baita, aldi berean, kalitate demokratikoko betekizuna ere. Datuek, ordea, erakusten digute emakumeen hezkuntza, lanbide eta okupagarritasun mailak hobetu arren, eragin ekonomiko eta politiko handieneko erabaki-posizioek erresistentzia handia egiten diotela emakumeak era orekatuan sartzeari²⁵. Zentzu horretan, Lanaren Munduko Erakundeak ohartarazi du beheko zuzendaritza mailetan emakumeak estrategikoak ez diren sektoreetan eta langile- eta administrazio-kudeaketako postuetan kokatu ohi direla, eta ez erakundeen gailurrera zuzenean daramatzaten lanbide- eta kudeaketa-karguetan. Maiz, hasierako desabantaila horiei sare sozial eta pertsonal formal eta informaletarako irisgarritasuna ukatzea erantsi behar izaten zaie, enpresaren egituraren aurrera egiteko funtsezkoak izanik (ILO, 1998: 7). Hori dela-eta, sektore publiko eta pribatuan **Emakumeek zuzendaritza-karguetan duten presentzia** (8. adi.) baloratzen duen adierazle bat proposatu dugu. Iturria Lan Merkatuaren Erroldan «Zuzendaritza-kargua» lanbide-kategoriari buruz jasotako datuak lirateke²⁶. Gainera, kasu honetan garrantzitsuagoa deritzogu gizonek duten

²⁵ Lan eremuan oztopoak lantokiko diskriminazioari, genero-estereotipoari eta zaintza lanetako ardura maila desorekatuari lotuta daude, baita goi-zuzendaritzako postuak eskuratzeko «oztopo ikusezinak» deritzenak gainditzeko zailtasunei ere. Horrek guztiak barneko promozioetan sartzeko edo kargu horietan genero-erreleboak bermatzeko zailtasunak dakartza zuzenean, besteak beste. (ILO, 1998)

²⁶ Kategoria horretan zuzendariak, gerenteak eta goi-mailako koadroak/ teknikari profesionalak sartzen dira, zehazki, CNO-11ko 11-15 kategoriak (botere betearazleko eta legegintza-kidegoetako kideak; herri-

gehiegizko ordezkapena bistaratzeari emakumerik eza bistaratzeari baino; hori dela-eta, adierazlearen formulazioak (gizonezkoak diren zuzendaritza-karguen %/emakumezkoak diren zuzendaritza-karguen %) gizonak zuzendaritza-postuetan duten proportzio handiagoa baloratzea bilatzen du.

Emakumeek euren hitza entzunarazteko eta hala eztabaida publikoaren eraketan eta erabakietan eragiteko posibilitateei dagokienez, identifikatu den funtsezko faktorea **Emakumek eztabaida publikoan hitza izatea** da (2.3.2 FF). Agenda publikoa emakumeen interesak sartu ahal izateko aldatzeko oinarrizko betekizuna dela uste da. Eztabaida publikoan hitza izateak aukera ematen du bestelako diskurtsoak edo arrazoibideak emateko eta lehentasunak aldarazteko.

Gure ustez, hedabideak dira esparrurik garrantzitsuena eremu publikoan emakumeen hitza jasotzeko. Informazio-sistematiko gutxi edo batere ez dago emakumeen hitzak hedabideetan duen presentzia ezagutzeko. Dauden datu apurrek erakusten dutenez, emakumeek hedabideetan duten presentzia oso urria da eta aditu, komunikatzaile edo iritzi eragile egiten dituzten ekarpenak ikusezin bihurtzen dira. Adibidez, Estatuko datuekin egindako Hedabideak Monitorizatzeko Proiektu Orokorrak (GMMP: 2010) ondorioztatu du informazioan agertzen diren pertsonen % 23 baino ez direla emakumeak, eta gizonak, aldiz, erabateko gehiengoa direla albisteetako aditu -% 91- eta bozeramaile -% 82- posizioetan. Esparru horretan, pentsatu da **Emakumeek hedabideetako informazio eta eztabaida saioetan iritzi sortzaileak izateko duten presentzia** (9. adi.)²⁷ funtsezkoa dela neurtzeko emakumeek noraino dituzten hitza erabaki publikoetan, agenda aldatzeko aukera eta eztabaida sozial eta politikoa eragiteko posibilitatea. Mementoz adierazlea ez dago erabilgarri, baina oso esanguratsua eta estrategikoa da gure ikuspuntutik; izan ere, zenbait desberdintasun bistararaziko lituzke, eta haiei buruz, errealitatea ikuspegi androzentrikotik behin eta berriz kontatzen laguntzen duten arren, kontzientzia eta informazio gutxiago daukagu egun. Horrekin batera, hedabideetan eta eztabaida publikoetan ematen diren joerak zuzentzeko neurriak sartu beharra erakutsiko luke (GMMP, 2010; CAC et al., 2011). Bestalde, aldian behin kalkula liteke, komunikabide nagusien informazio-emankizun zerrenda aztertuz, eta a priori ez da zailtasun handirik aurreikusit²⁸.

Adierazle osagarriari dagokienez, bi adierazle pentsatu dira, eta hain zuzenekoak ez badira ere, abantaila bat dute, noizbait kalkulatuak izan baitira: Emakumeen proportzioa azken urtean hedabide batean gai politiko bati buruz duten iritzia adierazi izana (zuzendariarentzako gutunak, deiak irratitari,...) onartzen duten pertsonetikiko (9C2 adi.) edo Emakumeen proportzioa azken urtean interneteko eztabaida politikoko foro

administrazioko eta interes sozialeko erakundeetako zuzendariak; zuzendari exekutiboak; administrazio eta salmenta sailen zuzendariak; produkzio eta eragiketen zuzendariak; ostatu, sukaldaritza eta merkataritzako enpresetako zuzendariak eta gerenteak; beste epigrafeen pean sailkatu gabeko beste zerbitzu-enpresetako zuzendariak eta gerenteak).

Ikus: http://www.eustat.es/documentos/codigos_c.html#axzz27rDH5nWS

²⁷ Adierazlea emakumeek hitza duten denboran edo duten parte-hartze kopuruan adieraz baliteke ere, iritzi sortzailetzat jotzen diren programetan dauden emakume aurkezle edo gonbidatuen ehunekoan adieraztea hautatu da. Hala, alde batetik, hitz garrantzitsua eta askatasunez adierazia duten pertsonetara mugatu nahi da (komunikazioko profesional guztiak zenbatzetik harago), eta, bestetik, hitza eremu politiko demokratikoan garrantzia duten komunikazio esparruetara mugatu (eta horregatik mugatu da gaurkotasan politikoko informazio eta eztabaidako saioetara).

²⁸ Consell de l'Audiovisual de Catalunya egiten duena erreferentzia interesgarria da -konplexuagoa bada ere- genero-ikuspegitik egindako aldian behingo monitorizatzeari dagokionez. Ikus, adibidez, http://www.cac.cat/pfw_files/cma/actuacions/Continguts/IST_1_2009_Informe_pres_ncia_dones.pdf

edo talde batean parte hartu dutela dioten pertsonetikiko (9C1 adi.). Azken horrek abantaila bat du: hedabide digital berriei begira dago eta, seguruenik, etorkizunean eragiteko gaitasun gero eta handiagoa izango dute haiek. Era berean, sare sozialak (hala nola Twitter edo beste batzuk, adibidez) monitorizatzeko tresnak optimizatzen diren heinean, interesgarria izango da emakumeek garrantzitsuenetan duten partaidetza ere kalkulatzeko.

Bestalde, **Botere politikoan gizonen eta emakumeen presentzia orekatuak** (2.3.3 FF) erakunde demokratikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin duten engeinamenduaren eta, beraz, demokraziaren kalitatearen berri ematen du. Funtsezko faktore hori neurtzeko, **Emakumeek betetako erantzukizun publikoko kargu hautetsien proportzioa** (10. adi.) hautatu da adierazle, emakumeek eta gizonen botere politikoa orekaz eskura dezaketenez argitzen baitu. Kargu hautetsiei erreparatu diegunean, honako erakundeak hartu ditugu kontuan: Eusko Legebiltzarra, Foru Aldundien Batzar Nagusiak eta Udalak. Emakunderen arabera (2011), emakumeen presentzia etengabe handitu da 1980az geroztik eta azken garaiotan handitze hori 2005eko martxoan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea onartu izanari lotu zaio²⁹.

Erakundeen eremutik harago, **Parte-hartze sozialeko guneetako presentzia** (2.3.4 FF) ere funtsezkoa da emakumeen jabeakunzia atzemateko; izan ere, ez da mugatzen gizarte-eliteen mailara, eta eguneroko gizarte eremuak ere biltzen ditu, gutxiago erreparatu ohi bazaie ere, eraikuntza kolektiboko eta jabeakuntzako esparru oso garrantzitsuak baitira. Emakumeek sindikatu, gizarte mugimendu, auzo-elkarte, alderdi edo beste talde antolatu batzuetan parte hartzeak erabaki publikoetan duten eragina sendotzen du. Emakunderen arabera (2009), emakumeak lan-merkatuan sartzeak aldaketak eragin ditu bazkideen osaketan eta erakunde horien zuzendaritza-organoetan, emakumeen presentzia handituta.

Emakumeek gizarte erakunde mota horietan dituzten presentzia eta partaidetza, ordea, atzematen zailak dira. Hori dela-eta, parte-hartze politikoaren inguruko azterlan soziologikoetan oinarritutako adierazle bat sartzea proposatu dugu: **Emakumeen proportzioa aurreko urtean sindikatu, gizarte mugimendu, auzo-elkarte, alderdi edo bestelako talde antolatu batean erabaki publikoetan eragiten ahalegintzeko parte hartu duten pertsona guztiekiko** (11. adi.)³⁰. Hori osatzeko, Partaidetza soziopolitiko maila handia duten emakumeen proportzioa (11C1 adi.) ikus daiteke. Hark ere, inkestako datuen bidez, gertakariaren ulermena osatzen du, jarduera politikoen sailkapen zabal baten bidez (adib., insigniak eramatea, kanpaina batean sinatzea, mitin batera joatea, arrazoi politikoengatik erosteari uztea, agintariekin kontaktatzea, hedabideetara kekek bidaltzea, eztabaida, manifestazio edo greba batean parte hartzea edo beste batzuk).

²⁹ Eusko Legebiltzarraren kasuan, emakumeek hautagai zerrendetan presentzia orekatua izatea bermatzen duen neurri bat jaso du Legeak. Manu horrek erakundeetan emakumeen presentzia parekoa derrigorrez xedatu ez badu ere, kasu honetan, aurreko legealdiaren aldean, emakumeen presentzia 15 puntu handitu da haren ondorioz (Emakunde, 2009). Zifrak txostenean (Emakunde, 2011) administrazio maila guztiek denboran izandako bilakaera deskribatu da.

³⁰ Proposatutako adierazleak lehendik dagoen informazio bati zenbait aldaketa sartzea dakar (zehazki, gizarte erakunde mota berriak eranstea: gizarte-mugimendua, auzo-elkarte, alderdia); lehenagoko informazio horrek maiztasun irregularra dauka eta erabaki publikoetan eragiten saiatzeko sindikatu batekin edo «beste talde antolatu» batekin diharduten pertsonak identifikatzea bilatzen du.

2.4 funtsezko helburua. Balio aldaketa

Balio aldaketa, aldi berean, gizartean gizon eta emakumeen artean egiazko berdintasuna iristeko baldintza eta motorra da. Beste gauza askoren artean, aldaketa hori onartu eta sustatzeko, genero-berdintasuna diskurtso sozialetan (emakumeenak zein gizonenak izan) eta hezkuntza sistemaren, politika publikoen eta erakundeen eguneroko jardueren baitan sartu behar da. Hala, banako eta taldeko portaeren aldaketa bultzatzen da, indarkeria arbuiatzeko, generoko rol eta estereotipoak zalantzan jartzeko, eta eremu guztietan berdintasun-printzipioa funtsezko eta lehentasunezko balio gisa sartzeko.

Aldaketa horretako funtsezko faktore bezala, balio eta jarreraren eremuan desberdintasuna eragiten duten kontu nagusietako bi identifikatu dira: alde batetik, genero-estereotipoak, zeinek sexu bakoitzari rol eta portaera *desberdin eta bereziak* esleitzen baitizkio; eta bestetik, femeninoaren eta maskulinoaren balorazioa, zeinek, desberdintasunetik harago, *hierarkia* eta feminizatuari lotutako ororen *mendekotasuna* ezartzen baititu, gizartea egituratzeko joera androzentrikoaren eraginez.

Genero-estereotipoak gainditzeari dagokionez (2.4.1 FF), beharrezkotzat jo da gizartean gizon eta emakumeen artean bereizitako rol eta estereotipoek dirauten ala aldatu diren identifikatzea. Emakumeei pasibotasunari, zaintzari, afektibotasunari eta etxe- eta familia-eremuari lotutako gizarte-rolak, eta gizonei ekimenari, sormenari eta eremu ekonomiko eta politikoei lotutakoak esleitzeko funtsezkoa da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna berriz gerta dadin eta, gainera, gero eta gehiago eratzen du errealitate estereotipatua, eta gizonek eta emakumeek autogarapenerako duten benetako aukera sortatik aldendutako bizi proiektuak izatera bultzatzen ditu herritarrak.

Estereotipo horien iraupena neurtzeko tenorean, herritarren balio edo pertzepzioei erreparatzen dieten adierazleek zailtasun bat dakarte, aldaketak gehiegi balioetsi dezaketelako; izan ere, ez dute zuzenean atzematen genero-estereotipo edo -rolak gainditu diren, gizartean horri buruz «zuzentzat» jotzen den diskurtsoa baizik.

Muga horri heltzeko, estereotipo horiekiko oso sentikorra den gizarte gertakariren bati buruzko adierazlea erabiltzea proposatu da. Zentzu horretan, hezkuntza giltzarria da eta haren diagnostikoan behin eta berriz nabarmendu da alderdi horren iraupena hezkuntzako genero-arazo nagusia dela, emakumeek hezkuntza berdintasunez eskuratu ahal izateko arazoa gainditu ondoren. Horregatik, honako adierazlea erabiltzearen alde egin dugu: **Sexuaren arabera bereizketak derrigorrezkoak ez diren ikasketen hautaketan (Lanbide Heziketa eta unibertsitate-ikasketak)** (Sexuen arabera segregazio handia duten -hots, sexu baten presentzia % 25 baino txikiagoa den-ikasketak ez-derrigorrezkoen proportzioa³¹) (12. adi.). Horren bidez, aldaketarekiko oso erresistentea den gertakari hori atzeman daiteke, neurri handi batean eragin handia baitauka emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak etorkizunean errepika eta proiektu daitezen.

Derrigorrezkoak ez diren ikasketen feminizatzea edo maskulinizatzea emakumeen eta gizon gazteek euren prestakuntzarako egindako *hautaketaren* ondorioa da, eta

³¹ % 25 atalase orientagarri gisa ezarri da, baina beste aukera batzuk ere balora litezke, hala nola % 30 edo are % 20. Izan ere, 2010ari buruzko Zifrak txostenean, Lanbide Heziketaren kasuan % 20 ezarri da, segregatuago dagoelako, eta unibertsitateetan % 25. Gure ustez, % 20 ezartzeak ikasketetako segregazioaren benetako tamaina gutxietsiko luke; beraz, % 25 eta % 30 artean hauta liteke, hautatzekotan.

emakumeak hezkuntzan sartzen arrakasta izan arren segregazio handiak irauteak erakusten digu zenbait karrera eta prestakuntzari lotutako genero-estereotipoek eragin handia dutela gazteek euren hezkuntza espezializaturako egiten duten hautaketan, eta haiei buruzko egiazko eta zeharkako informazioa eman diezaguke. Zentzu horretan, 2010ari dagokion Zifrak txostenean, adibidez, erakutsi da azken urteotan geletan ez dela beti egon berdintasuneranzko bilakaera: egiatan, unibertsitateko karreraren % 45ek sexuaren arabera segregazio handiagorako joera izan dute (34k 75etik). Adierazle horren beste alderdi bat ere nabarmendu behar da: herritar gazteenei heltzen dienez, prospektiboa da, eta interesgarria da hori.

Gizon eta emakumeei jarduera eta balio bereziak esleitzearekin batera, genero-desberdintasuna osatu egiten da jarduera eta balio horiek hierarkizatu eta maskulinizatutakoak gizartearentzat baliotsutzat jo eta feminizatutakoak gutxietsiak edo are ikusezinak direnean. Zentzu horretan, adibidez, jarduera-sektore baten feminizatzeak (kuantitatiboki) gizartean duen esanahia aldaraz dezake, eta haren balioa txikiagotu, soldatak jaitsiz –edo alderantziz–, historikoki zenbait lanbiderekin gertatu den bezala. Haien artean daude, besteak beste, irakaskuntza, moda, (goi-)sukaldaritza, medikuntza, justizia, eta beste asko. Hala, gurpil soroa hasten da. Hartan, **Feminizatutako jardueren balorazio soziala** (2.4.2 FF) txikia da eta, emakumeak ez ezik, haietan diharduten gizonak ere kaltetzen ditu. Feminizatutako jardueren balioa handitzea giltzarria da berdintasunerako balio aldaketa baterako.

Hain ukiezina den dimentsio horretako balizko aurrerapenak monitorizatzeko, gure proposamena lan eremuari erreparatzea da; izan ere, soldatak informazio oso argia eta zuzena ematen digu jardueri gizarteak esleitzen dien balioari buruz; horretarako, **Feminizatu eta maskulinizatu dauden jarduera arloen arteko soldata-arrakalaren** (Ind.13) bilakaera ebaluatzen da. Adierazlea kalkulatzeko, Soldatagiturari buruzko inkestako eta BAiko datuak gurutzatuko lirateke³².

3.3.3 3. EREMUA: GIZARTE ANTOLAMENDU ERANTZUNKIDEA

Adierazle-sistemaren ondoretarako, gizarte antolamendu erantzunkideari emandako definizioaren arabera, gizarte antolamendu horretan lanak eta baliabide erabilgarriak zuzentasunez banatzen dira gizon eta emakumeen artean; era berean, familien esparruan emakumeek egin ohi zituzten zaintza-lanetako batzuk administrazioak egiten ditu bere, eta enpresek lana, zaintza eta langileen bizi pertsonala bateratzeko erraztasunak ematen dituzte.

Eremu honetan, hiru helburu estrategiko hautatu dira, eta haietako bakoitzean funtsezko 3 faktore identifikatu dira. Lehen helburua lanen eta denboren erabileren

³² Formulazio zehatza 5 jarduera adarrik (EJSN-2009 2 digitu) feminizatu eta maskulinizatuenetako urteko batez besteko irabazien batez bestekoan dagoen aldea kalkulatzeko datza. Web bidez, ordea, jarduera adarren arabera soldata-inkestan ez da lortu zehaztasun maila hori duen sexuaren arabera bereizitako daturik, sailka agregatuak baizik, baina printzipioz haiek ere egon behar lukete erabilgarri. Zentzu horretan, datu zehatzago horiek eskuratzea lortzen ez bada, bi sektore segregatuenetako batez besteko irabaziak bakarrik erka litezke (2009rako eta espainiar Estatu osorako, sektore horiek B – Erauzketa-industriak, emakumeak % 8 izanik– eta T –Familien jarduerak, etxeko langileen enplegatzaile eta euren erabilerarako ondasun eta zerbitzuen ekoizle, emakumeak % 91 izanik– dira). Halaber, garrantzitsua da erakustea –2 digituko zehaztapenarekin– maskulinizazio maila handia –% 15eraino– duten jarduera adarrak (17 adar: 7, 5, 8, 43, 41, 3, 33, 24, 2, 42, 39, 38, 49, 25, 16, 45, 23, segregazio handiagotik txikiagora ordenatuta) emakumetxe maila handia dutenak (2 adar, 99 eta 88) baino gehiago direla.

bidezko banaketari dagokio; horren barruan, ordaindutako lanaren, ordaindu gabeko etxeko lanen eta lan-zama osoaren bidezko banaketa sartzen da, lana merkatu-eremuan egin zein ez. Dagozkion hiru adierazleen formulazioak emakumeen eta gizonen egoera erlazionatzen du. Bigarren helburua baliabideen banaketa zuzenari dagokio, eta administrazioak haien birbanaketan jokatzeko duen eginkizuna eta lan eremuko baliabideen generoko arautzea ere sartzen dira (bai orokorrean, soldata-arrakala kalkulatu, bai etorkizuneko sektore estrategiko batean: I+G). Hirugarren helburua, esanenez, zaintzarekiko engaiamendu publikoa da. Horretarako, hiru eremu instituzional hartu dira aintzat: zaintzari lotutako politiketan eskumenak dituzten administrazioak, enpresak eta udalak. Kasu batean zaintzarako erabilitako diru publikoa neurtzen da, eta beste bietan dauden gizarte plangintzak eta antolakuntzak zaintza eta eguneroko bizitzako zeregin guztiak egitea errazten dutenetz behatzen da.

Printzipioz, eremu honetan adierazle guztiak, bat izan ezik (20. adi.), zuzenean erabilgarri dauden datuetan oinarritzen dira, baina adierazleetako batzuetan haiek apur bat ustiatu edo kalkulatu behar dira.

13. taula. Gizarte antolamendu erantzunkideari buruzko adierazle nagusien proposamenaren laburpena*

Funtsezko helburua	Funtsezko faktorea		Adierazlearen zenbakia eta izena	
3.1 Oreka lanen banaketan eta denboraren erabileretan	3.1.1	Oreka lan-zama osoan	14	Genero-arrakala eguneko lan-zama osoan (lan ordaindua + etxeko eta zaintzako lana + joan-etorri guztiak)
	3.1.2	Ordaindutako lanaren banaketa	15	Genero-arrakala kotizatutako batez besteko urteetan
	3.1.3	Ordaindu gabeko lanaren banaketa	16	Emakumeek egindako etxeko produkzioaren pisua etxeko produkzioaren guztizko balioarekiko
3.2 Ekonomia eta lan baliabideen banaketa zuzena	3.2.1	Birbanaketa-politikak	17	Genero-arrakala txirotasun-arriskua gizarte transferentziei esker murriztean
	3.2.2	Lan-berdintasuna	18	Soldata-arrakala
	3.2.3	Berdintasuna sektore estrategikoetan: I+G	19	Jarduera zientifikoetan diharduten emakumeen proportzioa (AOB)
3.3 Zaintzaren gizarte-erantzukizuna	3.3.1	Zaintzarako baliabide publikoak	20	<i>EAEn epe luzerako zaintza-politiketarako erabiltzen den BPGd-aren proportzioa</i>
	3.3.2	Kontziliazioa enpresetan	21	Baimenak eskatzeko zailtasunak dituela uste duen biztanleria okupatua
	3.3.3	Zaintza errazteko lurralde-antolamendua	22	Hurbileko zerbitzuak eta ekipamenduak lor ditzaketen pertsonen proportzioa

* Letra etzan eta urdinean, erabilgarri ez dauden adierazleak idatzi dira.

3.1 funtsezko helburua. Oreka denboreen erabileretan eta lan-zaman

Gizon eta emakumeen bizi baldintzetatik desberdintasuna errotik kentzeko, ezinbestekoa da batzuek eta besteek dituzten denboraren erabileretan eta lan-zaman oreka handiagoa egotea. Halaber, onartuta dago oreka hori baliabide erabilgarrien banaketa zuzenean ere gertatzeak duen garrantzia, 3.2 helburuan azalduko den bezala.

Lan-Zama Osoko (LZO) orekaren bidez (3.1.1 FF) batera balora ditzakegu ordaindutako eta ordaindu gabeko lana; oinarria gizarte batek funtzionatzeko behar

den lan bolumena gizonen eta emakumeen artean berdintasunez banatuta egotea da. Lan munduan orokorrean eta lanaldi osoko lanetan bereziki gizonezkoek presentzia handiagoa izan arren, emakumeek etxeko zaintzako lanetan duten protagonismoa hain da desorekatua ezen esan baitezakegu, gaur egun, emakumeen LZO gizonezkoena baino handiagoa dela, errenta gizonezkoen oso alde banatuta egon arren. Desberdintasun horren bilakaera **Eguneko lan-zama osoko genero-arrakalaren** adierazlearen bidez (14. adi.) identifika daiteke, ordaindutako lanaren zamaren, derrigorrezko mugikortasunaren eta etxeko eta zaintzako lanaren zamaren batura bezala ulertuta.

Adierazle hori osatu eta herriko errenta erabilgarriaren gizonen eta emakumeen arteko banaketa desorekatuan sakontzeko, Kotizaziopeko alargun-pentsioek kotizaziopeko erretiro-pentsioekiko duten balio erlatiboa (14C1 adi.) monitorizatzea proposatu dugu. Adierazle horri esker lan moten banaketako desberdintasunaren eta balorazio sozial desberdinaren beste dimentsio bat atzeman daiteke; horrek, bestalde, funtsezko gizarte-eskubideen eskuragarritasun desorekatuta eta, beraz, emakume nagusien pobreziaren aurreko ahultasun handiagora darama.

Ordaindutako lanaren (OL) banaketari dagokionez (3.1.2 FF), hura ere orekazu banatu behar da gizon eta emakumeen artean; izan ere, gizarte bateko kide guztiek izan behar dute aukera sozialki onartutako eta ekonomikoki ordaindutako zereginak egiteko, eta gainera, oinarrizkoak dira Gizarte Segurantzaren kotizazioan oinarritutako ongizate sistema batean. Hori dela-eta, lan jarduerako desberdintasuna egungo eta etorkizuneko errentako parte-hartze okerrari lotuta dago. Gure testuinguruan, gainera, familiari lotutako tradizioak eta etxeko «*male breadwinner / etxekoandrea*» antolakuntza ereduak okupazioko desberdintasunaren arazoa areagotzen dute, eta gizonen merkatuan duten posizioaren aldeko aurreiritziak indartzen dituzte. Hala, gizonen aldean, emakumeek gutxiago eta baldintza okerragoetan (irabazi gutxiagoko eta aldizkako posizio ezegonkorragoetan) eskuratzen dute ordaindutako lana.

Orokorrean, lan eremuaren ezagutza sistematiko eta sakona daukagu eta, beraz, zaila da berdintasunerako garrantzitsuak diren dimentsio ugariak laburtzen dituen adierazle jakin bat lehenestea. **Kotizatutako batez besteko urteetako genero-arrakala** (15. adi.) hautatu da, gure ustez gizonen eta emakumeen euren bizian lan-merkatuan sartzeko duten posibilitate maila desberdinari buruzko informazio bateratu eta metatua ematen duelako eta, aldi berean, lan ordainduaren eskuragarritasunak biziko garai ez produktiboan ere beste gizarte-prestazio batzuk jasotzeko gaitasunean duen eragina ere bistaratzen duelako. Adierazle horrek lan eremuan diharduten desberdintasun-faktoreen ondorio metagarriak erakusten ditu (adib., behin-behinekotasuna, lanbide-segregazioa, aldizkakotasuna, kontziliazioa, eta abar).

Hori dena osatzeko, egungo lan ereduari buruzko beste bi alderdi osagarri erakutsi nahi dira. Alde batetik, ikuspegi orokor batetik, Gehiegizko lana duten langileen proportzioak – langile guztiekiko erlazioan– (15C1 adi.) duen bilakaera aztertzea proposatu da, langileek familia, norberaren premiak eta lana bateratu ahal izatea erraztu beharrean, lana talde jakin batzuegan pilatzea sustatu eta aldi berean biztanleria sektore handiak lan-mundutik kanporatzen dituen lan-ereduaren berri emateko. Kalkulatzen denez, 2010erako gehiegizko lana izan zuten biztanleak lan-jarduera zuten biztanle guztien % 3,8 izan ziren (Emakunde, 2011). Bestalde, Eguneko ordaindutako lan-zamako genero-arrakalak (15C2 adi.) gertakariaren ulermena osatzen du, ordaindutako lanean emandako denborak emakumeen eta gizonen artean duen banaketari dagokionez, eta lan-zama osoari (14. adi.) eta etxeko –ordaindu gabeko lan-orduen banaketari (16C1) buruzko adierazleek baino informazio askoz gehiago ematen du–.

Azkenik, familia eremuan egindako etxeko eta zaintzako lanari dagokionez, hura beharrezkoa da gizarteak funtziona dezan, baina lan-merkatutik at geratzen da eta, beraz ez da dirutan baloratzen eta ez du gizarte eskubiderik sortzen. Halaber, jakina denez, lana guztiz feminizatuta dago; berriz ere, familiari lotutako «male breadwinner» eredu delata eta; are gehiago kontuan hartzen bada emakumeek pixkanaka OL eskuratzearekin batera gizonen ez dutela dagokien ardura maila hartu OGLri dagokionez –funtsean, familia eremuko pertsonen zaintza eta etxea mantentzea–. Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Bateratzeari buruzko 2010eko Inkestak (LFNBBI, EUSTAT, 2010) nabarmendu duenez, EAEn nolabait okupatutako gizonen erdiek (% 52,4) bi orduz edo gutxiagoz dihardute euren seme-alabak zaintzen eta zazpitik batek (% 15,2) baino ez ditu emakumeak berdintzen ardura horretan. Etxeko lanen banaketari dagokionez, inkesta berak kalkulatu duenez, hamar gizonetatik bederatzik (% 92,2) 2 orduz edo gutxiagoz dihardute horretan, eta emakumeen herenek (% 34,1) hiru orduz edo gehiagoz dihardute.

Hortaz, ordaindu gabeko lanak gizonen eta emakumeen arteko banaketa bidezkoagoa behar du eta gai honetan ematen diren aurrerapenak monitorizatu behar dira. **Ordaindu gabeko etxeko eta zaintzako lanaren (OGL) banaketa** (3.1.3 FF) estrategikotzat jo da –nagusitatzat jo ez bada– gizarte erantzunkideranzko joera identifikatzeko. Zaintzako eta etxea mantentzeko lanak aintzat ez hartzeak lan horien ezegonkortasun ekonomiko handia dakar, merkatura ateratzen direnean, baita engaiamendu publiko urriegia zeregin haietako batzuekiko (hala nola mendeko pertsona batzuen zaintzarekiko) (Moreno, 2005; Borrás et al., 2007). Hortik ondorioztatzen da, ordaindu gabeko laneko berdintasun gero eta handiagoak, berez joera desiragarria izan ez ezik, eginkizun katalizatzailea izan dezakeela, etxe-eremuko eta eremu pribatuko zein eremu publikoko eta merkatu-eremuko gizarte erantzunkidearen alde.

Emakumeek egindako etxeko produkzioaren pisua etxeko produkzioaren guztizko balioarekiko (16. adi.) kalkulaturik emakumeen eta gizonen arteko banaketa desorekatua ezagut dezakegu, haren balorazio ekonomikoaren bidez. Etxeko lana neurtzeko Etxeko Produkzioaren Kontu Sateliteen irizpide teknikoak erabiltzea hautatu da, ordu kopurua zenbatu beharrean, lan horren izaera sinkronikoa eta emakumeek aldi berean ordaindu gabeko zenbait lan mota egiteko duten gaitasuna ez distortsionatzeko; ordaindutako lanean ez baita hori gertatzen. Aldi berean, hurbilketa horri esker egungo krisia bezalako egoeretan gertatzen diren «berretzekotzeko» prozesuak bistaratzen dira; izan ere, familia-sarrerak murrizten direnean lehen kanpoan burutzen ziren jarduera batzuk etxeko eremura itzultzen dira eta, azkenean, emakumeek etxean egindako ekarpena handitu ohi da³³.

Hala ere, horrekin batera OGLn emandako denborako genero-arrakala (16C1. adi.) ere kalkulatzeko iradokitzeari egokia deritzogu. Denbora garrantzitsua da, ongizateari oso lotuta dagoelako: Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Bateratzeari buruzko Inkestak (Eustat, 2010) berretsi duenez, emakumeen laurdenak ia –% 23,9– ez daude pozik euren bizi pertsonalerako, aisiarako edo prestakuntzarako duten denborarekin, egoera bera adierazten duten gizonak % 18,4 diren bitartean. Poztasun maila txiki hori familia osatzen den adinetan, 35 eta 44 urte artean, pilatzen da, eta ondoren jaitzi egiten da.

³³ Prozesu horren adibideen artean, honakoak aipa ditzakegu: eskolako jantokitik jakiontzia prestatzera igarotzea, haurrak edo mendeko pertsonak zerbitzu publiko edo pribatuetatik ateratzea familia eremuan zaintzeko, etxeko edo zaintzako lanetarako kanpoko laguntza ez kontratatzea, osasun arretako edo gizarte zerbitzuetako murrizketak eta horrek dakarren familiaren parte-hartze handiagoa, eta abar.

Adierazle horren interes substantiboaz gain, denboraren erabilerari buruzko beste bi adierazleak (14. adi. eta 15C2 adi.) osatzeko balio du.

Bestalde, ordaindutako lanean eta ordaindu gabeko lanean emandako denboren simetria ez da sinplea. Gizonek eta emakumeek ez dute etxeko eta zaintzako lana neurri berean egiten, ezta lan-merkatuan lanaldi partziala duten taldeetan ere. Enpleguan ematen ez den denbora ez da derrigorrez bideratzen zaintzako edo etxeko lanetara; aitzitik, norbera garatzeko hainbat proiektutan erabil daiteke; eta halaxe gertatzen da maiz, gizonezkoei dagokienez batez ere. Hala, horrekin batera kalkula daiteke Lanaldi partzialaren eta zaintzako arduren arteko erlazioa gizon eta emakumeengan (16C2 adi.)³⁴. Uste denez, gai horretan simetria egoteak beste neurketa batzuetan ezkutututa gera daitekeen berdintasunerako aurrerapena adieraziko luke, derrigorrez lanaldi murriztuak hartu beharra gizonen eta emakumeen artean berdintasun handiagoz banatzen dela adieraziko lukeelako.

3.2 funtsezko helburua. Ekonomia eta gizarte baliabideen bidezko banaketa

Herri-administrazioak funtsezko eginkizuna dauka **Birbanaketa-politikak** (3.2.1 FF) bultzatzeko, biztanle taldeen arteko desberdintasunak murrizten laguntzeko. Emakumeen eta gizonen kasuan, OGLren feminizatzeak, sexuaren araberako rolen desberdintasunaren ondorioz, errenta eta behar diren bestelako baliabide materialak edo sozialak eskuratzeko desberdintasunik ez dakarrela bermatu behar da. Bestalde, helburu honek zereginen banaketari buruzko aurrekoa osatzen du; izan ere, sozialki beharrezkoak diren zaintzako eta etxeko lanak egiteak ez duelako ordain ekonomikorik merkatuan; hortaz, botere publikoek orekatu behar lukete egoera hori. Aldi berean, berdintasunarekiko engaiamenduak genero-ondorio positiboa sortzeko berariazko ekintzak egitera eta dauden arrakalak murrizten aurrera egitera darama.

Elementu hori atzemateko, txirotasunaren eremuan erabili ohi den adierazle bati erreparatzea proposatu dugu, esku-hartze publikoak emakumeen eta gizonengan duen eragina baloratzea ahalbidetzen digulako: **Genero-arrakala txirotasun-arriskua gizarte transferentziei esker murriztean** (17); politika publikoek emakumeen eta gizonen arteko errenta desberdintasunak murrizteko egiten duten ekarpena erakusten du adierazle horrek. Kasu honetan, beraz, gizarte transferentziek genero-ondorio positiboa duten eta, hortaz, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak murriztera zuzentzen diren edo txirotasuna murrizteko erabilgarriak izan arren epe ertain eta luzean berdintasun handiagoa lortzen laguntzen ez duten identifikatu nahi da.

Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak (JLGZS, 2009:79), gizarte transferentziek pobreziaren prebentzioan duten eragina kalkulatu du. PGDIk proposatutako metodoarekin kalkulaturako datuei begiratuta, ikusi da kotizaziopeko prestazioek³⁵ pobrezia-arriskua murrizteko duten eginkizunak eragin kaltegarria daukala gizonen eta emakumeen arteko errentaren birbanatzean; izan ere, emakumeak

³⁴ Adierazle hori Biztanleria Aktiboaren Inkestan oinarrituta kalkula daiteke, lanaldi motari buruzko datuak zenbait aldagairekin gurutzatuta: mendeko pertsonak zaintzen dituzten pertsonen buruzko galderarekin, edo lanaldi partzialean «familia betebeharrerengatik» dihardutela dioten pertsonen buruzkoarekin.

³⁵ Ordaindutakoaren araberako prestazioei ez ezik gizarte prestazio guztiei buruzko datu batzuk ere aurkeztu dira.

buru dituzten etxeetan ongizaterik ezeko arriskua % 49,4 murriztu da, eta gizonak buru dituzten etxeetan, aldiz, arriskua % 64,1 murriztu da (JLGZS, 2009: 81). Horren arabera, arrakala 14,7 puntukoa litzateke. Administrazioak generoaren arabera birbanatzeko duen eginkizuna norbanakoen arabera –eta ez familien arabera– monitorizatu behar dela uste da, arrakala hori identifikatzeko, zein ere den gizon edo emakume bakoitzak etxean duen tokia, balizko distortsioak saihesten direlako hala³⁶.

Bestalde, **Lan-berdintasuna** (3.2.2 FF) funtsezko faktorea da, autonomia ekonomiko eta gizonen eta emakumeen artean bizi baliabideetan berdintasuna dagoela bermatzeko ez ezik, baliabide materialik eta harreman baliabiderik garrantzitsuenetako asko lan jarduerari lotuta daudela ere kontuan hartuta. Haien artean, uste dugu lehentasuna duela **Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala** (18. adi.) azpimarratzea; adierazle oso ezaguna da eta lan-desberdintasunaren alderdiak –lanaldiari, lanaren kalitateari, sektore ekonomikoari eta okupazioari, lanbide-mailari... lotutako desberdintasunak– laburbilduta adieraz ditzake. Emakundek (2011), esaterako, erakutsi du, 2006an, lan-errentaren feminizatze-indizea (Emakumeen errenta/ Gizonen errenta), bolumenagatik errenta nagusietako bat izanik, gainerako errentenak –jarduera-errentak izan ezik– baino txikiagoa zela, baina pixkanaka oneratzen ari dela dirudi.

Horrekin batera, oso esanguratsua litzateke **Ekonomia sektore estrategikoetako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean** (3.2.3 FF) izandako aurrerapenak monitorizatzea. Analisia Ikerkuntza eta Garapenaren (I+G) sektorean ardaztu nahi da, EAEko egungo eta etorkizuneko garapen ekonomiko eta sozialean duen potentzialagatik. Era berean, Eusko Jaurlaritzarentzat lehentasuneko sektorea da – Zientzia, Teknologia eta Ikerkuntzaren 2015erako Planak (Eusko Jaurlaritza, 2011) erakusten duenez–, eta eremu horretan politika publikoak funtsezkoak dira hura bideratu eta sostengatzeko; izan ere, lankidetzaren publiko-pribaturantz oso zuzenduta dago (ZTIP 2015, 2011). Hortaz, emakumeek I+Gn dituzten presentzia eta iraupena ebaluatzeak berdintasunaren alde epe labur, ertain eta luzean egindako lanaren eragina zabal dezake.

Egun, I+G sektorea oso kualifikatua da eta desberdintasun larria gertatzen da, zentzu bitan: i) horizontalki ematen den segregazioaren ondorioz emakumeek presentzia urria dute baliabide ekonomiko gehien lortzen dituzten ikerkuntza arloetan, ii) bertikalki, emakume proportzio txikiagoa dago sendotutako lan posizio eta mailetan (ikerkuntza-ibilbideetako *artazi-efektua* deritzona). Ikerketa Zientifikoko Jarduerari eta Garapen Teknologikoari buruzko Estatistikaren (Eustat, 2008) emaitzen analisi-txostenak berretsi duenez, I+G jardueretan arduraldi osoko baliokidetasunean (AOB) diharduten langile kopurua handitu egin da 1997 eta 2007 artean, 6.729 lanpostutik 14.435era. Sektore horretan emakumeen proportzioa mailaka handitu da, baina 2007an parekotasuna lortu gabe zegoen, eta %33 ziren (Eustat, 2008). Bestalde, Emakundek (2011) erakutsi du EAEn, 2009ko datuen arabera, eremu horretan arduraldi osoko baliokidetasunean ziharduten langileen %66 gizonak zirela. Txosten berean erakutsienez, okupazio mailaren arabera, ez dago parekotasun-printzipioa betetzen duen mailarik –laguntzaileei dagozkienak izan ezik–; hala, emakumeak % 35,2 dira ikerlarien

³⁶ Zentzu horretan, berretsi behar litzateke PGDEko datuetatik kalkula daitekeela, sexuaren araberako adierazleak kalkulatu diren arren, familiei buruzko inkesta bat delako, eta horrek zailtasunak edo distortsioak eragin ditzakeelako. Adierazle kalkulagarriak emakumeak buru dituzten familiak vs gizonezkoak buru dituztenak jasoz gero, haren garrantzia baloratu behar luke. Printzipioz, EINren Bizi Baldintzei buruzko Inkestako autonomia erkidegoen araberako datuetatik ere kalkula liteke adierazlea –kotizaziopeko prestazioak bakarrik sartu gabe–, baina ezin izan dugu aurkitu desagregazio maila hori (Kataluniako IDESCATen, adibidez, kalkulu hori egiten da, eta sexuaren araberako datuak aurkezten dira, baina ezin izan da argitu datu-iturria EIN den ala inkestak eurek egin dituzten).

artean eta % 29 teknikarien artean. Diziplina teknikoan ikasketetan, hala nola ingeniarietan, emakumerik ez egoteari lotu zaio hori. Zentzu horretan, uste da **Jarduera zientifikoetan diharduten emakumeen proportzioak** (AOB) (19. adi.) informazio handia eman dezakeela erakunde publikoek berdintasunerako egiten duten esfortzuari buruz. Esfortzu hori zuzenean egin daiteke, emandako baliabideen kudeaketan, edo zeharka, honakoak erabiliz: i) enpresetako lan-berdintasunaren sustapena, ii) sektoreko enpresa eta erakunde publikoetako ikerketarako laguntza publikoen sistema eta iii) emakumeak eremu teknologikoan sartzea sustatzeko politikak.

3.3 funtsezko helburua. Zaintzaren gizarte-erantzukizuna

Beharra duten pertsonen zaintza gizarte osoak batera egin behar du bere, eta horregatik, gizarte erakundeek (batez ere publikoek, baina ez haiek bakarrik) euren erantzukizunen artean sartu behar dute, zuzenean eginez edo hura egin ahal izatea erraztuz. Helburu horri dagokionez, garrantzitsutzat jo da ematen diren zaintza-zerbitzuak (jartzen diren baliabideak, estaldura, eta abar) eta erakundeak zaintza errazteko antolatzen diren moduak (adib., kontziliazio-politikak) behatzea.

Zaintzarako erabilitako baliabide publikoen (3.3.1 FF) bolumena eta mota funtsezko faktorea dira gizarte batek jarduera horrekin duen engaiamendua identifikatzeko, horri buruz dagoen literatura oparoak erakutsi duenez (ikus, adibidez, Hobson, Lewis eta Siim 2002 eta 2000; Sainsbury 1994, 1996 eta 1999). Hala, tradizioz zeregin horiek emakumeek familia eremuan egiten bazituzten ere, azken hamarkadetan zaintza-zerbitzuak profesionalizatu egin dira nolabait, baina oraindik ere jarduera oso feminizatua da. Ikusienez, ordea, profesionalizatzeko hori ekonomia informalaren³⁷ edo hirugarren sektorearen esparruan gertatu da kasu askotan, eta ez herri-administrazioek zuzenean egindako hornidura unibertsal batetik.

EAEn ELGAko batez bestekoaren aldean epe luzerako zaintza-politiketarako erabiltzen den BPGd-aren proportzioa (20) jasotzen duen adierazleak zaintzaren funtsezko osagaietako bateko gastu agregatua atzematea bilatzen du. Osagai hori epe luzerako zaintzak dira, nazioartean definitu diren bezala³⁸ (ELGA, 2011b). Ikusienez, ELGAko herri gehienetan, epe luzerako zaintza-politiketako gastua handitu egin da azken hamarkadetan eta hurrengo urteetan are gehiago handituko dela espero da, batez ere biztanleria zahartzen ari delako eta, ondorioz, osasun eta gizarte zerbitzu iraunkorrak beharko dituzten pertsonak ere gehiago izango direlako.

Adierazle horren datuak gutxi gorabeherakoak dira eta zailtasun nabarmen batzuk dauzkate.

- Lehenbizi, zaila da politika horietarako erabili behar litzatekeen baliabide bolumena baloratzeko atalasea ezartzea eta, beraz, proposamenaren erreferentzia ELGA-13ren batez bestekoa da eta EAEn daukan aldea

³⁷ ELGAk (ELGA, 2011a) deskribatu duenez, Espainiak adineko pertsonen edota desgaituen zaintzaile informalaren portzentajerik handienetako bat dauka ELGAN, eta langile horien lan-baldintza ezegonkorra sustatzen du horrek.

³⁸ ELGAren proposamen metodologikoa erabiliz, adierazlearen barruan gastu publikoaren zatia sartuko litzateke eta epe luzerako zaintzei helduko lieke, eta honako osasun-osagaiak jasoko litzuzke: gaixo kronikoak, eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza pertsonala, gizarte zerbitzuak, desgaitasunarentzako egoitzen bidezko arreta, etxeko etxeko laguntza, eguneko zerbitzuak edo antzeko beste baliabide batzuk.

monitorizatzen du. Zentzu horretan, ELGak kalkulatu bezala, espainiar Estatuko gastua BPGd-ren % 0,7 bada eta ELGA-13ko batez bestekoa % 1,4 bada, Espainia, bere osotasunean, batez besteko gastuaren % 53an legoke.

- Bigarrenik, zaintzaren dimentsio nagusi batzuei heltzen die –adinekoen eta desgaituen arreta–, baina ez ditu biltzen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari begira garrantzia duten beste batzuk, batez ere haurrei, eta bereziki 0-2 edo 0-3 urtekoei, laguntzeko zerbitzuak.
- Azkenik, kontuan izan behar da zaintzarako erabilitako baliabide publikoen bolumena kontabilizatzea zaila dela, administrazio, zerbitzu eta (zuzeneko zein zenbait motatako transferentzien bidezko) hornidura-tresna asko daudelako nahastuta. Horrek zenbait testuingurutan proposatutako adierazleen arteko konparazioak egiteko arazoak dakartza maiz. Bestalde, espainiar Estatuan eremu horietan dagoen eskumenen banaketa dela-eta zaila izan daiteke politika horietarako gastua bateratzea, baina puntu horretan EAE araubide orokorreko autonomia erkidegoak baino posizio hobean egon liteke kalkuluak egiteko.

Edonola ere, eta kontuz hartu beharreko puntu horietaz ohartarazi ondoren, gogoz gomendatu behar dugu adierazle hori eraikitzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta gizarte erantzunkide eta zuzenago baterantz egiteari dagokienez duen garrantzi handiagatik.

Zaintzarako erabilitako baliabide publikoen bolumen orokorra, gai honi dagokionez, engaiamendu publikoaren funtsezko faktorea bada ere, ordea, esan behar da zenbait esku-hartze publiko motaren artean hautatzeak (zerbitzu publikoak Vs transferentzia pertsonalak, batez ere) genero-eragin oso desberdina daukala. Adibidez, mendeko pertsonen edo haien zaintzaileei transferentzia ekonomikoak egiteak, egitan egiten den lan bat aitortu eta pertsona horien bizi baldintzak hobe baditzakeen arren, aldi berean lan horien feminizatzea sendotzen lagundu ohi dute, lan baldintza duin edo egokirik eman gabe.

Hori dela-eta, horrekin batera esanguratsua izan daiteke zerbitzu jakin batzuen estalduraren bilakaera aztertzea. Zentzu horretan, aipatu adierazlea osatzeko bi adierazle osagai proposatu dira: Prestaziorako eskubidea daukaten eta hura jaso duten onuradunen proportzioa (mendekotasun mailaren arabera) (20C1 adi.) jasotzen duena –adineko pertsonen edo desgaituen zaintza erakutsiko luke–; eta Familiaren nahiaz besteko arrazoiengatik, hots, plaza faltagatik, ordutegiagatik edo gehiegizko kostuagatik, haurtzaindegi edo ikastetxe batean arretarik ez duten 0 eta 2 urte arteko biztanleen proportzioa³⁹ (20C2 adi.) jasotzen duena. Azkenak zerbitzuen estaldurari dagokio⁴⁰ eta haur txikiei (0-2) buruzko informazioa ematen du, adierazle nagusiak ez baitu sektore hori jasotzen. 2010erako, adibidez, Gizarte-Premien Inkestak erakutsi du adierazlearen balioa arretarik gabeko biztanleria osoaren % 11,5 litzatekeela.

Bi adierazleak handitzeak, beraz, genero-zuzentasun handiagoa adieraziko luke, zaintza horiek familia eremutik edo eremu pribatutik kanpo egiten direla esan nahi lukeelako, eta horrek aukera emango lukeelako emakumeak lan-merkatuan sartu eta prestakuntza eta aisialdia izateko; era berean, kultura aldaketa garrantzitsua litzateke, pertsonen

³⁹ Arretarik ez duen biztanleria osoarekiko. Hala, zerbitzuak iristerik izan ez duen pertsona taldea erakutsiko luke zuzenean.

⁴⁰ Dagoen informazioaren arabera, adierazleak estaldura orokorra jasotzen du, publikoa ala pribatua den zehaztu gabe. Kasu baten eta bestearen ondorioak desberdinak dira eta ona litzateke horri dagokion eskaintza publikoa monitorizatu ahal izatea, baina edonola ere, aztertzen ari garenerako, hots, haurren zaintzaren eskuragarritasunaren baloraziorako, adierazleak berdinduko du.

zaintza administrazioek bete beharreko erantzukizun bihurtuko lukeelako, eskubide soziala izateagatik, eta ez eremu pribatuan baino konpondu behar ez den gaitzat hartuta. Zeharka, zaintza-lanaren lan baldintzak goratu litezke, eta horrek merkatu pribatuan ere hura gero eta gehiago onestearen eta duintzearen aldeko kiribila eragin lezake.

Enpresa sektoreak erantzukizun horiek bere egiteari dagokionez, funtsezkotzat jo da lan eremuak etxeko eta zaintzako lana ere erraztea eta haren gizarte premia kontuan hartuta antolatzea, gizonei eta emakumeei **Enpresetako kontziliazioa** (3.3.2 FF) bermatuz, sexu bien balioetan eta praktketan aldaketa ahalbidetzeko. Estatuan, EB-15eko beste herri batzuen (batez ere iparraldeko herrien eta Frantziaren) aldean, aitatasun- eta amatasun-baimenak eta senideak zaintzekoak nahiko urriak badira ere, esan dezakegu Espainiako eta Euskadiko berdintasunaren legeek gizarte-eskubide horiek enpresa-sareak bermatzea bilatu dutela. Sektore pribatuko antolakuntza eta erakunde dinamikek, indarreko esparru juridikoa gorabehera, dauden baimen urriak gizonek eska ez ditzaten eta haiei eman ez dakizkien lagun dezakete. 2010eko Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Bateratzeari buruzko Inkestak (LFNBBE, Eustat, 2010) erakutsi duenez, EAEko okupatuena % 35,1ek diote zailtasun handiak dauzkatala lana eta mendeko senideen zaintza bateratzeko, eta % 29,6k zailtasunak dauzkate lana eta adingabeko seme-alaben arreta bateratzeko.

Beraz, deskribatzen den lan-esparruak neurri handi batean laguntzen du kontziliaziorako zailtasunak egon daitezen. Horregatik, interesgarritzat jo da monitorizatzea biztanle okupatuek zein neurritaraino sentitzen dituzten kontziliaziorako zailtasunak. Horretarako, 2 adierazle posible daude. Alde batetik, **Baimenak eskatzeko zailtasunak dituela uste duen biztanleria okupatuaren proportzioa** (21. adi.) erregistratzea proposatu da. LFNBBERen arabera (Eustat, 2010: 10), baimenak eskatzeko zailtasunean ez da sexuaren araberako alderik sumatu, emakumeek gizonek baino zailtasun txikiagoa daukate, beharbada, genero-rolari buruzko gizarte-estereotipoak direla-eta. Bestalde, hori osatzeko, interesgarritzat jo da Familia zioak direla-eta lanaldiaren hasiera edo amaiera gutxienez ordu batean alda dezaketen soldatapekoen ehunekoari (21C1 adi.) erreparatzea.

Azkenik, **Zaintza errazteko lurralde-antolamendua** (3.3.3 FF) azpimarratu nahi dugu, funtsezkoa baita erantzunkidetasuna eta etxeko eta zaintzako lanak egitea bultzatzeko. Eguneroko bizirako funtsezko zerbitzu eta baliabideen hurbiltasuna bermatu beharra erakusten du. Oso agerikoak izan gabe gizartearentzat beharrezkoak diren zereginak (adib., administrazio-izapideak egitea, adingabeak eskolara eramatea, pertsonen osasun zerbitzuetara edo osteratxo batera laguntzea, eguneroko erosketak egitea) oso zaildu daitezke faktore batzuk, hala nola ekipamendu eta zerbitzu hurbilik ez izatea, irisgarritasunik eta garraiorik eza, gizarte zerbitzuen urritasuna, funtzio bakarrek hiri-plangintza, berdegune hondatuak edo berdegunerik eza, emakumeentzako garraio pribatuen eskuragarritasun urria, eta abar direla-eta (Carrasco et al. 2006:31). Zentzu horretan, gure ustez **Hurbileko zerbitzuak eta ekipamenduak eskura ditzaketen pertsonen proportzioa**⁴¹ (22. adi.) adierazle interesgarria da eta erantzunkidetasun-printzipioa jaso, pertsonarik ahulenen (adingabeak, adinekoak eta desgaituak)

⁴¹ Adierazlea eraikitzeke, Bizi Kalitateari buruzko Inkesta ustiatuko litzateke. Inkesta horretan etxebizitzatik oinez gehienez ere 10 edo 20 minutura dauden hurbileko zerbitzu zerrenda luze batez galdetzen da. Gure ikuspuntutik, BKEk ezarritako kategorien artean hautatutako 8tik (zehazki: farmazia, hiri-autobusen geralekua, anbulatorioa, lehen hezkuntzako ikastetxea, haurtzaindegia, parke edo lorategia, liburutegia, kiroldegia) gutxienez 6 eskura daitezkeenean legoke hurbileko zerbitzu eta ekipamenduen eskuragarritasuna.

autonomia sustatu eta zaintzaileen zereginak arintzen dituzten zerbitzuen eta lurraldeen antolamenduaren berri eman dezake. Lurralde mailako erkaketa egiteko ere izan daiteke esanguratsua, datuek ahalbidetuz gero.

3.3.4 4. EREMUA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Genero-indarkeriarik gabeko bizia ezinbesteko baldintza da emakumeek euren herritartasuna, autonomia eta askatasun osoa eskuratu ahal izan dezaten. Bizi aske hori giza eskubide jo behar da eta herri-administrazioek babesteari ekin behar diote. Emakumeek pairatzen duten indarkeria oso heterogeneoa da eta eremu pribatuan, lanean, komunitatean edo beste eremu batzuetan gerta daiteke, zenbait modutan eta epe oso aldagarrietan, une bateko eraso batetik iraupen luzeko indarkeria egoera errepikatu bateraino.

Duen larritasunagatik EEko berdintasun-politiken ibilbidean berezko eremu gisa heldu bazaio ere, garrantzitsua da adieraztea indarkeriaren erauzketa jabekuntza lortzeko funtsezko helburu kontzeptualiza litekeela: zalantzarik gabe, indarkeriarik eza jabekuntzarako beharrezko baldintza da.

Berdintasunaren ezinbesteko alderdia izanik, batez ere duen larritasunagatik, aipatu gainerako eremuak baino zehatzagoa da eta hori dela-eta funtsezko bi helburu baino ez dauka: gertakari gisa hura errotik kentzea, eta hura errepikatzea eta irautea errazten dituen tolerantzia errotik kentzea. Bigarren helburu horretan, halaber, funtsezko bi faktore sartzen dira: gizarte osoak gertakari horrekiko duen tolerantzia murriztea eta indarkeria bizi duten emakumeek hura identifikatzen aurrera egitea.

Proposatutako adierazle guztiak Barne Sailak egin berri duen Indarkeria matxistari buruzko Inkestatik atera daitezke. Bestelako erregistro-iturrien ordez (judizialak, polizialak, zerbitzuenak, eta abar) inkestako datuak hautatu dira gure ustez askoz fidagarri eta sendoagoak direlako eta, era berean, administrazioen antolamendu eta jarraipen sistemen baldintzatzaileei eta aldaketei hain lotuta ez daudelako. Bestalde, indarkeriaren eremuan, erregistroko datuek, konparagarritasun, egonkortasun eta interpretazio arazo handiak izan ez ezik, gertakariaren zati txiki bat baino ez dute jasotzen. Dauden azterlanek behin eta berriz erakutsi dute arazoak maila sozial eta publikoan agertzen hasi besterik egin ez duela eta oraindik izugarri ezkutatuta dagoela. Inkestako datuetara garamatza horrek zuzenean, periodikotasun maila bera izan ez arren. Beraz, azpimarratu behar da indarkeria matxistari buruzko inkesta hori aldian behin errepikatu behar dela eta Eusko Jaurlaritzaren estatistika eragiketetan sartu behar dela, gaiari buruz datu etengabeak eduki ahal izateko.

14. taula. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko adierazle nagusien proposamenaren laburpena

Funtsezko helburua	Funtsezko faktorea		Adierazlearen zenbakia eta izena	
4.1 Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	4.1.1	Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea	23	Azken urtean indarkeria motaren bat pairatu duten emakumeen proportzioa
4.2 Emakumeen aurkako indarkeriarekiko tolerantzia errotik kentzea	4.2.1	Indarkeriako egoeran dauden emakumeek indarkeria identifikatzea	24	Aitortutako indarkeriaren eta pairatutako indarkeriaren (edo indarkeria «teknikoaren») arteko aldea
	4.2.2	Gizarte-tolerantziaren murrizketa.	25	Emakumeek eurek eragindako emakumeen aurkako indarkeria kasuak daudela esatearekin ados dauden pertsonen proportzioa

4.1 funtsezko helburua. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea⁴²

Argi dago kasu honetan helburu estrategikoa indarkeria matxista ahalik eta gehien murriztea dela, agertzeko duen modu guztietan (indarkeria psikologikoa, fisikoa, ekonomikoa) eta gertatzen den inguru guztietan (familia harremanak, bikote harremanak edo lan eta gizarte eremuan).

Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea (4.1.1 FF) ezinbestekoa da bidezko gizarte batean, baina helburu oso handinahia da. Zentzu horretan, funtsezkoa da emakumeen aurkako indarkeria gehiena noraino murrizten den atzematea. Horretarako, indarkeriari emakumeek bizi eta sentitzen duten bezalaxe heldu beharra nabarmendu nahi dugu, bestelako datuetara (adib., salaketak, eskuratutako zerbitzuak, eta abar) jotzeak ekar ditzakeen mugak eta okerrak saihesteko; izan ere, halako datuek indarkeria egoeran dauden emakumeetatik gutxi batzuk baino ez dituzte jasotzen eta gainera gertakaritik kanpoko zioek aldaketa handiak eragin diezazkiekete.

Daturik berriek (Eusko Jaurlaritzako Barne Saila –BS-: 2012) kalkulatu dutenez, EAEko 16 urte edo gehiagoko emakumeen % 12,5ek pairatu dute inoiz indarkeria matxista motaren bat identifikatutako lau eremuetako baten batean⁴³. Haren arabera, psikologikoa da indarkeria motarik sarriena (genero-indarkeriaren biktima izan direla dioten emakumeen % 78,4), eta haren ondoren, oso urrun, fisikoa (% 38,3). Emakumeen aurkako indarkeria motak hain ugariak izanda, garrantzitsutzat jo da haiek denak biltzen dituen adierazle bat izatea, indarkeriak egun duen eraginaren berri eman dezan.

Horregatik, proposatu dugun adierazlea **Azken urtean indarkeria motaren bat pairatu duten emakumeen proportzioa** (23. adi.) da. BSk azaldu du galdetutako

⁴² Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005 Legeak, 50. artikuluan, emakumeen aurkako indarkeriaren honako definizioa dakar: «sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz (...) baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke, bai eta ekintza horien mehatxuak, derrigortzeak eta eremu publikoan nahiz pribatuan askatasuna arbitrarioki kentzea ere».

⁴³ EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxista txostenean (BS, 2012) 4 eremu identifikatu dira: 1) bikotekidea edo bikotekide ohia, 2) familia barruko generokoa (bikotekidea edo bikotekide ohia alde batera utzita), 3) lan eremuan eragindakoa eta 4) gizarte eremuan edo esparru publikoan burututakoa.

emakumeen % 29,6k esan zutela azken urtean itaundutako indarkeria egoeraren bat bizi izan zutela. Adierazlearen balioa jaisteak hura errotik kentzen laguntzen duten prozesu eta politika guztien bat egitea islatuko duela espero da: balio aldaketa, emakumeen jabetasuna, indarkeria errotik kentzera zuzendutako zerbitzu publikoak, eta abar.

Barne Sailaren azterlanaren arabera, egun gertatzen diren genero-indarkeria kasu asko berritzaileak jo daitezkeela kalkulatu arren (emakumeen % 23,1ek duela urte bat baino gutxiago pairatzen dute egoera hori), emakume proportzio handi bat kronikoki bizi da egoera horretan (% 30,8k urte 1 eta 5 urte artean igaro dute hala eta % 30,8k 10 urte baino gehiago) (BS, 2012: 65). Horregatik, arestiko adierazlea osatzeko, oso interesgarria deritzogu **Iraupen luzeko indarkeria matxista (urte 1 eta 10 urte arteko epean) pairatzen duten emakumeen proportzioaren** (23C1 adi.) bilakaera aztertzeari. Esan behar da indarkeria tipologia hori batez ere familia egituretan bizi diren emakumeengan gertatzen dela, emakumeei beste egoera batzuetan erasan diezaieketen beste indarkeria mota batzuk ez bezala.

4.2 funtsezko helburua. Emakumeen aurkako indarkeriarekiko tolerantzia errotik kentzea

Emakumeen aurkako indarkeria identifikatu, aurre egin eta estigmatizatzeko gaitasuna –batez ere goiz egitea– funtsezko faktorea da hura errotik kentzeko eta era berean bermea da errepika ez dadin.

Indarkeria-egoeran dauden emakumeek **Indarkeria identifikatzea** (4.2.1 FF) funtsezko faktorea da hura errotik kentzeko. Emakumeen aurkako indarkeriaren espezifikoa dela eta eskema subjektibo sakon eta erresistenteetan eta gizarte harremanetako ohituretan finkatuta dagoela kontuan hartuta, ez dugu segurutzat jo behar nahastuta dauden pertsonak eurak egoera edo harreman jakin batzuk indarkeria-egoerak direla jabetzen direnik.

Hala, interesgarria da **Aitortutako indarkeriaren eta pairatutako indarkeriaren (edo «teknikoa»ren) arteko alde** horren (24. adi.) bilakaera monitorizatu ahal izatea. Horren bidez, indarkeria pairatu duen zuzenean galdetuta indarkeria gisa identifikatzen edo adierazten denaren eta errealitate ezkutuari arteko alde identifikatu nahi da. Errealitate ezkutua sarritan hainbat indarkeria-egoerak nozitu izanetik eraikitzen da, eta egoera horietaz banaka galdetzen da. Barne Sailak 2012an egindako inkestako datuen arabera, esaterako, alde 16,2 puntukoa da: emakumeen % 2k aitortu dute azken urtean indarkeriaren biktima izan direla, baina indarkeria-egoera jakinak nozitu izanean oinarrituta, emakumeen % 18,2 ziren.

Halaber, interesgarria litzateke baloratzea lehen eraso (fisikoa edo psikologikoa) pairatzen duten unean emakumeek hura identifikatzeko eta erantzuteko mailak duen bilakaera. Elementu horrek, emakumeen jabetasuna eta sentsibilizazio prozesuei buruzko informazio zuzena eman ez ezik, haiek eta haien inguruek indarkeria-egoeren aurrean duten tolerantzia ezabatzeko ideal batera hurbiltzen gaitu. Hala, garrantzitsua litzateke pairatutako indarkeria-egoera identifikatzen ez duten emakumeen proportzioa monitorizatu ahal izatea, inkestako datuen zein erregistroko datuen bidez –zerbitzuen arreta-protokoloetan–, baina mementoz azken horiek ez daude erabilgarri oraindik.

Zentzu berean, gizarte osoak identifikatu eta arbuiatu behar ditu emakumeen aurkako indarkeria modu eta maila guztiak, haiek egiatan murriztu eta, denboraren poderioz,

errotik kentzea lortzeko. **Gizartearen indarkeriarekiko tolerantziaren murrizketak** (4.2.2 FF) murrizketa horretan eragiten duten zenbait faktoreren berri eman dezake aldi berean; haien artean daude, esaterako, erakundeen horretarako esfortzua edo gizarte-balioen aldaketa.

Alderdi hori baloratzeko herritarrek gertakari horren aurrean dituzten sinesmenen, jarreraren eta pertzepzioen eremuari heldu behar diogu. Arbuiatze batez ere erretorikoa (gizarteak indarkeria zuritzea edo ulertzea zigortzen duelako pertzepzio oso zabalduak datorrena) egoteak eragin dezakeen distortsioa saihesteko, analisisa alderdi zehatzagoei begira egitea proposatu da. Zehazki, **Emakumeek eurek eragindako emakumeen aurkako indarkeria kasuak daudela esatearekin ados dauden pertsonen proportzioak** (25. adi.) desberdintasunak gidatutako emakumeen eta gizonen arteko harremanen esparruan emakumeen aurkako indarkeria zer mailatan zuritzen den esan diezaguke. Zentzu horretan, dokumentatuta dago herritarren artean dirauten sinesmen batzuen arabera indarkeria ulertu eta ezkututzen dela; izan ere, gizonekin zerikusirik ez duen faktoretzat jotzen dute, asmoa ukatzen dute eta gertakariari garrantzia kendu eta ezkututzearen alde egiten dute.

Adierazlea erabilgarri dago Barne Sailaren azterlanean, eta haren balioa biztanleriaren % 22 da. EAEko lurralde historikoen artean balio oso desberdinak erakutsi ditu, proportziorik handiena Gipuzkoan dagoela, Araba eta Bizkaiaren gainetik (BS, 2012: 41), eta alde esanguratsuak erakutsi ditu faktoreen artean ere⁴⁴.

3.4 KONPARATZEKO INDIZE KONPOSATUAK

EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politiken eragina ebaluatzeko adierazle-sistemaren helburu nagusietako bat gai honetan Euskadin dauden egoera eta bilakaera beste lurralde, eskualde edo estatuetakoeekin erkatu ahal izatea zen. Horretarako, sisteman gaiari buruzko aurrerapenak laburbilduko zituen **emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-indize sintetikoa** sartzea proposatu zen.

Halako indize edo adierazle konposatuen indarra da konparatzeko aukera zabala ematen dutela eta oso intuitiboak direla. Beraz, oso erabilgarriak dira herritarrei komunikatzeko eta politikoki bistartzeko. Agregazio konplexuko estrategiak garatu beharra dela-eta, ordea, aurrerapen zehatzagoak ulertzeko eta ebaluatzeko erabilgarritasun urria dute, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak anitz dimentsio daukalako.

Zentzu horretan, interesgarria deritzogu EAEko adierazle-sistemaren baitan berdintasun-indize agregatu bat sartzeari, xede horiei guztiei erantzun ahal izateko. Zehazki zer indize hartu nahi den hautatzea, ordea, erabaki guztiz teknikoa da eta, beraz, txosten honen esparrutik harago doa.

Hortaz, atal honetan Estatuan eta nazioartean identifikatu diren sintesi-indizeak aurkeztuko ditugu. Deskribapen laburra, haiek baloratzeko irizpide batzuk eta EAEko indize-sisteman indize horietako bat edo gehiago sartu behar den baloratu ahal izateko kontuan hartu beharreko gomendio batzuk sartu ditugu.

⁴⁴ Hala nola udalaren tamaina, adina, ikasketa maila, jarduera, diru-sarrerak, jatorria edo ideologia. Adibidez, nabarmendu denez, 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnek udalerrri handiagoetan edo euskal hiribururen batean bizi direnek baino onartuago dituzte emakumeen aurkako indarkeriari buruzko topikoak eta sinesmen faltsuak.

3.4.1 ESTATU MAILAKO SINTESI INDIZEAK

Estatu mailan, egoera aztertuta, lau berdintasun-indize sintetiko daudela azpimarratu behar dugu⁴⁵. Proposatuta dauden adierazle-sistemek ez bezala⁴⁶, sintesi-indize horiek adierazle bakarra formulatzera iritsi nahi dute, esanguratsutzat jotzen diren zenbait aldagaik eta dimentsioak osatuta.

Aurkeztutako lehen indizea, Espainiako Gizarte Barometroaren **Genero Berdintasunaren Indizea** (IIG) irabazi-asmorik gabeko erakunde baten, Colectivo Ioéren, ekimenez egin da (Colectivo Ioé, 2008). Bigarrena, **Genero Desberdintasunaren Indizea** (IDG) gobernu autonomiko baten mendeko ikerkuntza zentro batek, Centro de Estudios Andalucesek egin du (CEA, 2008). Hirugarrena ere, **Genero Desberdintasunaren Indizea** (INDESGEN), Andaluziako Gobernuaren ekimenez egin da, kasu honetan, Europako Funtsen eta Plangintzaren Zuzendaritza Nagusiak egina. Azkenik, laugarrena, **Genero Berdintasunaren Sintesi Adierazlea**, (ISIG) eremu akademikoan egin dute Ricok eta Gómez-Limónek, eta Gaztela eta Leongo Erkidegoari aplikatu zaio (Rico, M. eta Gómez-Limón, J.A, 2011).

Kasu guztietan, sintesi-indizea diseinatzeko prozesuan genero-desberdintasunaren gertakaria kontzeptualizatu behar izan da, eta funtsezkotzat jo diren dimentsioak lehenetsi eta sistematizatu behar izan dira, ondoren indize batean sartzeko. Lehenesteko oinarria, desberdintasunaren gertakarira hurbiltzeko kontzeptu-esparruak izan dira, eta aukera tekniko eta akademikoen arabera ez ezik, haiek egin diren lurraldeko testuinguruari –autonomikoa edo estatukoa– lotutako ikuspuntu politiko, sozial eta instituzionalen arabera ere ezarri dira.

Zentzu horretan, indize horiek diseinatzeko jarraitutako kontzeptualizazio eta leheneste prozesua EAerako txosten honen esparruan egindakoaren antzekoa izan da. Desberdintasunaren gertakariaren berri emateko garrantzitsutzat jo diren dimentsioei dagokienez, ordea, lortutako emaitzak desberdinak dira, bai atzemandako lau indizeen artean, bai haien eta hemen diseinatutako erreferentzia-sistemaren artean. Azken hori, bestalde, dokumentu honetako hurrengo kapituluetan aurkeztuko da.

Hurrengo ataletan, Estatu mailan nabarmendutako lau indizeen ezaugarri substantiboak eta osagaiak aztertuko dira, haien eta EAerako proposatutako adierazle-sistemaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak erakutsi eta eduki dezaketen interesa baloratzeko.

⁴⁵ Halaber, beste proposamen interesgarri batzuk ere identifikatu dira, baina ez ditugu sartu sektorekakoak direlako. Haien artean, Elena Riobóok eta Carolina Martínek (Riobóo eta Martín, 2010, 2011), egindako lan-merkatuari buruzko indizea, eta e-berdintasunari buruzko indizea (Castaño, Martín eta Martínez, 2011) lirateke.

⁴⁶ Adibidez, Estatuko genero-berdintasunari buruzko adierazle-sistema, Emakumearen Erakundeak (IM) sustatua (Red2Red, 2010); sistema oso zabala pentsatu da eta IMren sektorekako antolamenduaren araberako gizonen eta emakumeen arteko aldeei buruzko informazioa ematea bilatzen du, sintesi proposamenik definitu gabe.

Indizeen aurkezpena

GENERO BERDINTASUNAREN INDIZEA (IIG)

Colectivo IOEk, 2008an, Genero Berdintasunaren Indizea egin zuen, espainiar Estatu osorako Espainiako Gizarte Barometroaren esparruan kalkulatuta⁴⁷; Espainiako gizarte egoeraren ebaluazio etengabearen datza proiektua eta gai eta sektorekako sintesi-adierazle eta -indize anitzetan oinarritu zuten (Ioé, 2008).

Proposamen horren egitura ez da berariaz pentsatu genero-berdintasunari buruzko gairik esanguratsuenak islatzeko eta, beraz, darabiltzan adierazle multzoak eta haien dimentsioen sailkapenak gizarte-adierazleak aztertzeko egitura oso klasikoari jarraitu diote. Beste indize batzuen aldean, ordea, osasuna (autopertzepzioa eta toxikoen kontsumoa barne) eta gizarte-babesa sartzeko modua nabarmendu da.

IIGk 27 adierazle bildu ditu (ikus honako taula), lau dimentsiotan banatuta: Jarduera (lana zein botere politikoko presentzia bildu ditu), Osasuna, Prestakuntza eta Gizarte babesa.

15. taula. Genero Berdintasunaren Indizearen -IIG- osagaiak

Genero Berdintasunaren Indizearen -IIG- osagaiak	
Jarduera	Emakumeen langintza-tasa (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeen langabezia-tasa (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeen luzaroko langabezia-tasa (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeen enpleguaren behin-behinekotasun tasa (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeen batez besteko soldata (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Soldatapekoak dituzten emakume enpresariak (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeak enpresen zuzendaritzan eta herri-administrazioan (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakume teknikariak eta zientzialari profesionalak eta intelektualak (batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeen proportzioa Diputatuen Kongresuan
	Emakumeen proportzioa Autonomia Erkidegoetako legebiltzarretan
	Emakume alkatesen proportzioa Espainiako udaletan
Osasuna	Emakumeen bizi itxaropena jaiotzean (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Euren osasun egoera erdipurdikoa, txarra edo oso txarra dela sentitzen duten emakumeak (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Tabakoa erretzen duten emakumeak (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Alkoholodun edariak hartzen dituzten emakumeak (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Kanabisa kontsumitzen duten emakume gazteak (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Kokaina kontsumitzen duten emakume gazteak (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Haurdunaldiaren borondatezko etendura

⁴⁷ Argibide gehiagorako, ikus <http://barometrosocial.es/>

Prestakuntza	Lehen mailako ikasketarik ez duten 16 urte eta gehiagoko emakumeak (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Goi-mailako ikasketak dituzten 16 urte eta gehiagoko emakumeak (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	15 urte betetakoan ikasturterik errepikatu ez duten emakumeak (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Eskola goiz utzi duten emakumeak (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
Gizarte babesa	Txirotasun-egoera edo -arriskua (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeen aurkako gehiegikeriak eta erasoak
	Emakumeen batez besteko pentsioa (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Kotizaziopeko alargun-pentsioaren batez besteko kopurua erretiro-pentsioarekiko (%-tan)
	Emakume langabetuen batez besteko langabezia-prestazioa (sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)

Dimentsio bakoitzaren adierazlea haientzako azpiindize haztatu batean bateratzen dira, eta haien bidez kalkulatzen da IIG, zein batez besteko aritmetiko haztatua baita. Proposamena malgua da, ikertzaileek euren aukeren edo ikuspegi teorikoaren arabera azpiindize bakoitzari eman diezaioketen pisu espezifikoki dagokionez.

Bestalde, adierazle horrek beste alderdi interesgarri bat ere badauka: adierazleetarako ratioen balioak eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak edo aldeak hartu beharrean, orokorrean haien eta biztanleria osoaren batez bestekoaren arteko aldea neurtzen du –batzuetan emakumeen portzentajearekiko formulatutako adierazleren bat ere sartu arren–.

GENERO DESBERDINTASUNAREN INDIZEA (IDG)

Genero Desberdintasunaren Indizea (IDG) Eduardo Bericategi eta Eva Sánchezek egin zuten, Andaluziako Juntako Lehendakari Zuzendakari Sailaren mendeko Centro de Estudios Andalucesen. 2008an proposatu eta kalkulatu zen, Espainia osoan eta Autonomia Erkidegoetan zegoen genero-desberdintasuna ebaluatzeko, eta, azkenean, desberdintasun hori Andaluziaren eta Estatuaren artean erkatzeko (Bericat eta Sánchez, 2008).

Indize hori emakumeen eremu publikoko desberdintasuna behatzeko dago berariaz pentsatuta. Eremu pribatuaren garrantzia inondik inora ukatu ez arren, egileek alderdi publikoari heldu zioten, haien esanetan, hark erakusten duelako hoberen rol-esleipen tradizionalak eragindako emakumeen eskusioaren gertakaria. Hori dela-eta, egokiena iritzi zioten desberdintasunaren joera orokorra behatzeko.

IDGk 23 adierazle bildu ditu, eta desberdintasunaren gertakariaren hiru dimentsiori dagozkie: Hezkuntza, Lana eta Boterea. Dimentsio bakoitzarentzat funtsezko 2-3 faktore ezarri dira, eta haiek bideratu dute adierazleen formulazioa (ikus behetako taula). Indize hori kalkulatzeko, lehenago azpiindize bat eraiki behar da dimentsio bakoitzerako eta ondoren haiek bateratu.

16. taula. Genero Desberdintasunaren Indizearen -IDG- osagaiak

Genero Desberdintasunaren Indizearen -IDG- osagaiak		
HEZKUNTZA	Hezkuntza maila	17 urte eta gehiagoko biztanleetatik derrigorrezko mailatik gorako ikasketak dituzten 17 urte eta gehiagoko biztanleen ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko)
		17 eta 40 urte arteko biztanleetatik derrigorrezko mailatik gorako ikasketak dituzten 17 eta 40 urte arteko biztanleen ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko)
		20 urte eta gehiagoko biztanleetatik unibertsitate ikasketak dituzten 20 urte eta gehiagoko biztanleen ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko)
		20 eta 40 urte arteko biztanleetatik unibertsitate ikasketak dituzten 20 eta 40 urte arteko biztanleen ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko)
	Ikasketa mota	20 urte eta gehiagoko unibertsitario guztietatik ikasketa teknikoak dituzten unibertsitarioen ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko).
	IKTen erabilera	16 urte eta gehiagoko biztanleetatik Interneten egiazko erabiltzaileak diren 16 urte eta gehiagoko biztanleen ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko).
LANA	Lan-merkatuko parte-hartzea.	Jarduera-tasa (16-64 urte). (Gizonen ratioa emakumeekiko).
		Enplegu-tasa (16-64 urte). (Gizonen ratioa emakumeekiko).
		Jarduera-tasa (16-44 urte). (Gizonen ratioa emakumeekiko).
		Enplegu-tasa (16-44 urte). (Gizonen ratioa emakumeekiko).
	Parte hartzeko baldintzak	Soldatapeko guztietatik kontratu mugagabea duten soldatapekoak (%). (Gizonen ratioa emakumeekiko).
		Okupatu guztietatik lanaldi osoa duten okupatuak (%). (Gizonen ratioa emakumeekiko).
		Orduko batez besteko soldata (gizonen ratioa emakumeekiko).
		Orduko batez besteko soldata, gizezkoen okupazio-egituraren arabera haztatuta (Gizonen ratioa emakumeekiko).
		Okupatu guztietatik emakumeen presentzia urriegia duten okupazioak dituzten okupatuak. (Gizonen ratioa emakumeekiko).
BOTEREA	Botere politikoa	20 urte eta gehiago duten biztanleetatik zinegotzien eta alkateen ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko).
		20 urte eta gehiago duten biztanleetatik parlamentarien ehunekoa.
		20 eta 64 urte arteko biztanleetatik epaileen eta magistratuen ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko).
	Gerentziako boterea	16 eta 64 urte arteko biztanleetatik 10 soldatapeko edo gehiagoko enpresetako zuzendaritza nagusian edo presidentzia exekutiboan okupatutako ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko).
		16 eta 64 urte arteko biztanleetatik 10 soldatapeko edo gehiagoko enpresetako zuzendaritza nagusian edo presidentzia exekutiboan dauden enpresarien ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko).
		16 eta 64 urte arteko biztanleetatik herri-administrazioetako zuzendarien ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko).
	Gizarte boterea	16 eta 64 urte arteko biztanleetatik prestigioko lanetan diharduten okupatuaren ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko).
		20 eta 40 urte arteko biztanleetatik prestigioko lanetan diharduten 20 eta 40 urte arteko okupatuaren ehunekoa. (Gizonen ratioa emakumeekiko).

Indize horretan nabarmendu behar da hezkuntzaren dimentsioan teknologia berriak sartu direla eta, politika eremuan ez ezik, ekonomia eta gizarte eremuetan ere prestigio eta botereko posizioetan emakumeek duten presentziari buruzko berriazko adierazleak ere sartu direla.

Bestalde, adierazleetako batzuk kalkulatzeko oinarri biztanle gazteenak hartuta, genero-desberdintasunak belaunaldien artean izango duen bilakaeraren berri ere eman nahi du IDGk.

GENERO DESBERDINTASUNAREN INDIZEA (INDESGEN):

Genero Desberdintasunaren Indizea (INDESGEN) Andaluziako Juntako Ekonomia, Berrikuntza, Zientzia eta Enplegu Saileko Europako Funtsen eta Plangintzaren Zuzendaritza Nagusiaren Ikerketa eta Kudeaketa Bulegoak egin zuen, Andaluziako Autonomia Erkidegoaren 2010erako Estatistika Programan sartzeko. INDESGEN Andaluziaren Lehiakortasunerako Estrategiako Aukera-Berdintasunerako Estrategia Horizontala (2007-2013) ebaluatu ahal izateko diseinatu da.

INDESGENen helburua Andaluzian gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak ikuspegi ekonomiko zabal batetik hobeto ezagutzea da. Andaluziako Juntak argitaratutako txostenak (DGFE, 2012) indizearen kalkulua dakar Andaluziarako eta balio hori gainerako Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko batez besteko balioekin erkatu du.

INDESGENek 19 adierazle sinple bildu ditu, 12 dimentsiotan banatuta, aldi berean, 5 «eremu sozioekonomiko» osatuz: hezkuntza, ordaindutako produkzio lana, sarrera ekonomikoak, erabakimena eta ordaindu gabeko lana. Adierazle kopurua dimentsio batetik bestera aldatzen da, eta batzuek bat baino gehiago daukate.

Indize horrek 2 agregazio maila dauzka. Dimentsio bakoitzaren indizeak kalkulatu ondoren, eremu bakoitzerako sintesi-indizeak (5) kalkulatu dira, haztatu gabeko batez besteko geometriko baten bidez. Era berean, bost indize partzial horien beste batez besteko geometriko baten emaitza izango da INDESGEN.

Adierazle horrek hainbat eremu eta azpi-dimentsiotan behatu du genero-arrakala, eta gizartearen eremu publikoa eta pribatua bildu ditu. Ikuspegi ekonomikotik egin denez, ordea, ez die heldu errealitate ekonomikoari hain lotuta ez dauden alderdiei, hala nola osasunari, indarkeriari edo gizarte parte-hartzeari.

17. taula. Genero Desberdintasunaren Indizearen -INDESGEN- osagaiak

Andaluziako Genero Desberdintasunaren Indizearen -INDESGEN- osagaiak		
Hezkuntza	Parte-hartzea hezkuntzan eta prestakuntzan	Bigarren etapako bigarren hezkuntza amaitu ez duten 18 eta 24 urte arteko biztanleen ehunekoa. (Emakumeen ratioa gizoneko).
	Lortutako prestakuntza maila	Goi-mailako ikasketak dituzten 25 eta 64 urte arteko pertsonen ehunekoa. (Emakumeen ratioa gizoneko).
	IKTen erabilera	Azken hiru hiletan Intenet gutxienez astean behin erabili duten 16 eta 74 urte arteko pertsonen ehunekoa. (Emakumeen ratioa gizoneko).
Ordaindutako produkzio lana	Parte-hartzea lanindarrean	Jarduera-tasa (Emakumeen ratioa gizoneko).
		Enplegu-tasa (Emakumeen ratioa gizoneko).
	Langabezia	Langabezia-tasa (emakumeen ratioa gizoneko).
	Lanpostuaren ezaugarriak	Kualifikazio urriko postuetan okupatutakoen ehunekoa. (Emakumeen ratioa gizoneko).
Behin-behinekotasun tasa. (Emakumeen ratioa gizoneko).		
Sarrera ekonomikoak	Soldata	Irabaziak lanordua arrunteko. (Emakumeen ratioa gizoneko).
	Sarrerak (pobrezia)	Kontsumo unitateko batez bestekoaren %60 baino sarrera txikiagoak dituzten pertsonen ehunekoa. (Emakumeen ratioa gizoneko).
	Pentsioak	Gizarte Segurantzaren Nazio Sistemaren pentsioen batez besteko zenbatekoa (erretiroa, alarguntza eta ezintasuna). (Emakumeen ratioa gizoneko).
Erabakiak hartzeko Prozesua	Botere politikoa	Adin nagusiko biztanleria osoarekiko parlamentari autonomikoen ehunekoa. (Emakumeen ratioa gizoneko).
		Adin nagusiko biztanleria osoarekiko tokiko hautetsien ehunekoa. (Emakumeen ratioa gizoneko).
		Adin nagusiko biztanleria osoarekiko Gorte Nagusietako parlamentarien ehunekoa. (Emakumeen ratioa gizoneko).
	Botere sozioekonomikoa	Enpresa eta herri-administrazioetako zuzendaritza postuetan dauden pertsonen ehunekoa. (emakumeen ratioa gizoneko).
Pertsona okupatu guztietatik «Enplegatzaile» lan egoeran dauden pertsonen ehunekoa. (Emakumeen ratioa gizoneko).		
Ordaindu gabeko produkzio lana	Etxeko lanengatik autopertzibitutako aktibitaterik eza	BAIn, autopertzibitutako aktibitaterik ezaren zioen artean, «etxeko lanak» aipatzen dituzten 16 urtez gorako pertsonen ehunekoa. (Emakumeen ratioa gizoneko).
		Lanpostu bat duten pertsonen lanegun batean etxeko lanetan emandako minutuak. (Emakumeen ratioa gizoneko)

GENERO BERDINTASUNAREN SINTESI ADIERAZLEA (ISIG)

Azkenik, Genero Berdintasunaren Sintesi Adierazlearen (ISIG) proposamena nabarmendu nahi dugu. Margarita Ricok eta José A. Gómez-Limónek (Rico, M. eta Gómez-Limon, J.A, 2011) garatu dute Gaztela eta Leongo landa ingurunerako, 2011rako. Kasu honetan, egileek bereziki landa-ingurunean gertatzen diren genero-desberdintasunak atzematen dituen tresna bat eraiki nahi izan dute. Genero-desberdintasun horiek desabantaila bikoitzeko egoeran jartzen dituzte lurralde horietan bizi dira emakumeak, hiri-lurraldeetan bizi direnekiko⁴⁸.

ISIGek 26 adierazle bildu ditu, zazpi dimentsiotan banatuta: Biztanleria eta familia, Hezkuntza eta prestakuntza, Enplegua eta errenta, Parte-hartze politiko eta soziala. Denboraren erabilerak, Bizi kalitatea, Aukera-berdintasunari buruzko iritziak (ikus beheko taula).

18. taula. Genero Berdintasunaren Sintesi Indizearen -ISIG- osagaiak

Genero Berdintasunaren Sintesi Indizearen -ISIG- osagaiak	
Biztanleria eta familia	Emakumeen eta gizonen proportzioa biztanle guztiekiko. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	15 eta 64 urte arteko emakumeen eta gizonen proportzioa. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeen eta gizonen immigrazioen eta emigrazioen arteko aldea. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeen eta gizonen jaiotzen eta heriotzen arteko aldea. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
Hezkuntza eta prestakuntza	Unibertsitate ikasketak egin dituzten emakumeak eta gizonak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Gidatzeko baimena duten emakumeak eta gizonak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Lan-prestakuntzako ikasketak egin dituzten emakumeak eta gizonak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Informatikari buruzko ezagutzak dituzten emakumeak eta gizonak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
Enplegua eta errenta	Emakume eta gizon aktiboak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakume eta gizon langabetuak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Kontratu mugagabea duten emakumeak eta gizonak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Zuzendaritza postuak dituzten emakumeak eta gizonak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	1.000 Eurotik Gorako Sarrerak Dituzten Emakumeak Eta Gizonak. (Sexu Bien Batez Bestekoaren Aldea, %-tan)

⁴⁸ Proposamenaren interesa alde batera utzita, gogoan hartu behar da, etorkizunean arindu beharko delako, biztanleria maila txikia eta sakabanaketa handia duten lurraldeetarako dauden estatistika datuen adierazgarritasun zaila. Hala, landa-lurraldeei begira jartzen diren heinean datuek dituzten errore-marjina gero eta handiagoak dira proposatutako indizea kalkulatzeko zailtasun nagusietako bat.

Parte-hartze politikoa eta soziala	Elkarte batean dauden emakumeak eta gizonak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Elkarte baten zuzendaritzan dauden emakumeak eta gizonak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Udal kargu politiko bat izan duten emakumeak eta gizonak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
Denboraren erabilera	Emakumeek eta gizonak ordaindutako lanean emandako denboraren ehunekoa. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeek eta gizonak etxeko lanetan emandako denboraren ehunekoa. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeek eta gizonak aisian emandako denboraren ehunekoa. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
Bizi kalitatea	Emakumeek eta gizonak euren familia eta gizarte bizitzaren aurrean duten batez besteko asebetetasuna. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeek eta gizonak euren lan-bizitzaren eta bizitza ekonomikoaren aurrean duten batez besteko asebetetasuna. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeek eta gizonak gizarte zerbitzuen eskuragarritasunaren aurrean duten batez besteko asebetetasuna. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeek eta gizonak garraio eta telekomunikazio zerbitzuen aurrean duten batez besteko asebetetasuna. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
Aukera-berdintasunari buruzko iritziak	Emakumeek eta gizonak lan-erantzukizuneko berdintasunari buruz dituzten iritziak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeek eta gizonak etxeko lanen banaketari buruz dituzten iritziak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)
	Emakumeek eta gizonak gizarte eta politika lidergoko berdintasunari buruz dituzten iritziak. (Sexu bien batez bestekoaren aldea, %-tan)

Indizea eraikitzeke prozesuari dagokionez, haztatze metodologiaren erabilera nabarmendu da. Ezarri zituen irizpideak prozesu osoan lagundu zuen aditu talde bati eskatutako aholkularitzatik eta haren partaidetza aktibotik sortu ziren.

Adierazleak kalkulatu eta bateratzeko metodoari dagokionez, ISIGek desberdintasun maila adierazteko ematen dituen balioak biderkatuz bateratzen direnean handiagoak direla frogatu da. Batuketaren bidezko bateratzeak, ordea, emaitza hobeak ematen ditu, balio batzuek dauzkaten desorekak hobeak diren beste batzuek orekatzen dituztelako eta, beraz, indize neurritsuagoa da eta ezin da puntu edo alderdi oso negatiborik sumatu.

Bestalde, nabarmentzekoa da asebetetasun pertsonalaren dimentsioak, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunari buruzko pertzepzioak eta iritziak eta lan-merkatuan parte hartzeko baldintzak bildu dituela.

Hura kalkulatzeko informazio-iturriei dagokienez, garrantzitsua da azpimarratzea, *Biztanleria eta Familia* eremukoak izan ezik, adierazle guztiak inkesta *ad hoc* baten bidez kalkulatu direla. Horrek zailtasun argia dakar aldian behingo konparazio sistematiko batean erabiltzeko.

Balorazioa

Aztertutako Estatu mailako lau sintesi-indizeek –IIG (Ioé), IDG eta INDESGEN (Andaluziako Junta) eta ISIG (Rico eta Gómez-Limón)– ikuspegi aniztasun handia daukate, eta haietako batere ez dator guztiz bat Eusko Jaurlaritzak urteetan egin duen desberdintasunaren kontzeptualizazioarekin. Honako taulan aurkeztu dugun adierazle-sistemaren proposamena oinarritzen den dimentsioen eta aztertutako indizeek jasotzen dituztenen arteko konparazioa jaso da.

19. taula. IIG, IDG, IDESGEN eta ISIGen eta EAErako proposatutako sistemaren ezaugarrien konparazioa

Euskal sistemaren dimentsioak	IIG	IDG	INDESGEN	ISIG
Ikuspegi orokorra	Desberdintasuna gizarteratze adierazleetan neurtzen du	Eremu publikoko berdintasuna neurtzen du	Zenbait eremu sozioekonomikotako desberdintasuna neurtzen du	Zenbait sektore eremutako desberdintasuna osotasunean neurtzen du
Jabekuntza	Ez da zuzenean ageri (baina bai Baliabide ekonomikoen eta sozialen eskuragarritasuna)	Ez da zuzenean ageri (baina bai gizarte baliabideen eskuragarritasuna)	Ez da zuzenean ageri (baina bai gizarte errentaren eskuragarritasuna)	Berregituratuta ageri da (zenbait alderdi bildu ditu baina ez daude batera sistematizatuta)
Erantzunkidetasuna/ Gizarte antolamendu erantzunkidea	Ez da zuzenean ageri (baina bai Baliabide ekonomikoen eta sozialen eskuragarritasuna)	Ez da zuzenean ageri (baina okupazioa bildu du)	Berregituratuta ageri da (lanen – ord. eta ord. gab.– eta errenten banaketa bildu du baina ez daude batera sistematizatuta)	Berregituratuta ageri da (zenbait alderdi bildu ditu baina ez daude batera sistematizatuta)
Indarkeria errotik kentzea	Ez da zuzenean ageri (baina sexu indarkeriari buruzko adierazle bat dakar)	Ez	Ez	Ez
Demokratizatzea	Ez da zuzenean ageri (baina bai botere politikoaren eta zuzendaritza esparruen eskuragarritasuna)	Ez da zuzenean ageri (baina bai botere politikoaren eta zuzendaritza esparruen eskuragarritasuna)	Ez da zuzenean ageri (baina bai botere politikoaren eta zuzendaritza esparruen eskuragarritasuna)	Berregituratuta ageri da (zenbait alderdi bildu ditu baina ez daude batera sistematizatuta)
Berdintasunari emandako dimentsioan bat etortzea	Oso baxua	Baxua	Ertaina	Ertaina

Beraz, indize bakar batek ere ez du sartu jabekuntza ikuspegi osoa, eta genero-arrakalaren ideari heldu diote denek, zenbait formularen bidez kalkulatu. Funtsezko eremu batzuk ere, hala nola demokratizatzea eta emakumeen aurkako indarkeria, ez dituzte sartu. Hortaz, ikuspuntu substantibotik, denek dauzkate alde handiak EAerako proposatutako adierazle-sistemak jaso dituen dimentsioen proposamenarekin.

EAerako proposatutako dimentsioak eta aztertutako sintesi-indizeak osatu dituztenak INDESGEN eta ISIGen kasuan daude hurbilen eta, beraz, horiek liriateke gomendagarrienak EAerekin erkatu ahal izateko, baina bigarrenak, aipatu denez, arazo handiak dauzka datu erabilgarriak lortzeko.

Ikuspuntu politiko edo operatibo batetik, kontuan hartu behar da agente bultzatzaileak zein diren ere. Aipatu dugunez, haietako bi beste administrazio autonomiko batetik datoz, bat akademikoagoa da eta hirugarrena irabazi-asmorik gabeko erakunde batetik dator. Zentzu horretan, Andaluziako Autonomia Erkidegoak bere lurraldean genero-berdintasuna neurtzeko eta beste erkidegoekin erkatu ahal izateko tresnak ezartzeko egin duen esfortzua azpimarratu behar da.

Haietako bakar bat ere ez da orokorrean hartu eta, jakin ahal izan dugunez, INDESGEN baino ez da behin baino gehiagotan kalkulatu. Hortaz, komunikazio, erakunde edo gizarte mailan ez omen dago indize horien interesari buruzko adostasunik.

Sintesi-indize baten xedea batez ere komunikatzea izanda, oso onartuak eta hedatuak egotea oso garrantzitsua da. Horregatik, **Emakunde eta Eusko Jaurlaritzarentzat erabilgarriagoa deritzogu nazioarteko erreferentziatzeko indize bat hautatzeari.**

3.4.2. NAZIOARTEKO SINTESI INDIZEAK

Identifikatu diren nazioarte mailako indizeak **nazioarteko erakunde publikoek** (zehazki, NBGP –Nazio Batuen Garapenerako Programa–, MD –Munduko Bankua– edo ELGA –Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea– eta maila globaleko politika eta gizarte eragin handia duten **erakunde pribatuek** (World Economic Forum⁴⁹ eta, neurri txikiagoan, Social Watch⁵⁰) bultzatu dituzte.

Erakunde horiek aldi behingo jarraipen txostenak egiten dituzte eta mundu osoko hedabideek eta herri-administrazioek kasu handi edo txikiagoa egiten diete. Hori dela eta, oso interesgarriak dira konparazio esparru zabala ematen dutelako eta eragin handia daukatelako. ELGari dagokionez izan ezik, ordea, mundu osora iritsi nahi dute indizeek eta, beraz, erabat heterogeneoak diren herriak erkatu ahal izateko, estatistika sistemen garapen mailen artean desberdintasun handiak izanda, batzuetan ez dira oso sentikorrak garapen maila handiagoa duten estatuen arteko desberdintasunekiko.

⁴⁹ Munduko Ekonomia Foroa (World Economic Forum, WEF) irabazi-asmorik gabeko fundazioa da, Genevan du egoitza, eta urtero Davosen (Suitza) egiten den batzarragatik ezagutzen da, bertan munduko enpresa eta politika lider nagusiak biltzen baitira.

⁵⁰ Social Watch nazioarteko oinarritzko erakunde sare bat da eta pobreziaen aurkako eta genero-berdintasunaren aldeko politikak babesten eta monitorizatzen lan egiten du. Egun kontinente guztietako 70 herri baino gehiagotan dago. Sareak Kopenhageko Gizarte Garapenerako Goi-bileran, 1995eko Emakumeen Nazioarteko Laugarren Biltzarrean eta 2000ko New Yorkeko Milurteko Goi-bileran gobernuek hartutako konpromisoak betetzen direla zaintzen du. Lan horretan, garapenari, gizarte justiziari, generoari eta klima aldaketari lotutako gaiei ematen die garrantzirik handiena.

Europar Batasunaren eremuan, azpimarratu behar da genero-berdintasunaren sustapenean lidergo ukaezina izan arren, egun ez dagoela ofizialki egin eta aurkeztutako genero-berdintasunaren sintesi-indizerik. Hala ere, hasita daude hori bilatzen duten prozesu batzuk eta epe ertainean emaitza zehatzak ekarriko dituztela aurreikusi da.

Alde batetik, Europako Batzordea, Genero Berdintasunaren aldeko Europar Erakundearen bidez (EIGE), duela zenbait urte genero-berdintasunaren indizea egiten hasi zen, eta prozesuak, printzipioz, 2012an amaitu behar luke. Esparru horretan, 2003an bideragarritasunaren lehen azterketa egin zen (bidezko banaketa monitorizatu zuen honako funtsezko dimentsioetan: Ordaindutako lana, Baliabide ekonomikoak, Erabakiak hartzeko boterea, Ezagutza, eta ordaindu gabeko lana –ikus Plantenga et al., 2003: 4–, baita indizearen oinarritzko egiturarako lehen proposamena ere⁵¹, eta topaketak egin ziren adituekin.

Bestalde, esparru jakin batzuetan emakumeen egoera eta hari buruz Estatu kideek dituzten politikak ebaluatzeko adostutako adierazleak sortu ditu EBk. Europako Enplegurako Estrategiaren ondorioz, alde batetik, eta Beijingeko Ekintza Plataforman ezarritako 12 arlo kritikoetan EBk izandako aurrerapena ebaluatzeko adierazle multzo bat definitzeko (amaitzeke) 1998ko Europako Kontseiluaren erabakiaren ondorioz, bestetik (Verloo eta Van der Vleuten, 2009). Era berean, Gizarte Adierazleen Europar Sistema (EUSI) eraikitzen ari da –hari dagokionez, aurreikusitako 12 dimentsioen 9 adierazleak kalkulatzeko ari dira dagoeneko–; sistema horretan zenbait eremutako desberdintasunak sartu dira, hala nola lan-merkatukoak, familietakoak edo segurtasunekoak⁵².

Azkenik, aipatu behar dugu ikerketa egitean beste sintesi-indize interesgarri batzuk ere aurkitu direla, baina ez direla aurkezpen honetan sartu nazioartekoak ez direlako eta, beraz, erkatzeko interes urria dutelako⁵³.

Jarraian, identifikatutako zazpi indizeak deskribatuko ditugu eta, azkenik, konparazio laburra egin eta EAerekin erkatzeko egokienak izan daitezkeenak gomendatuko ditugu.

⁵¹ Orain arte, EIGEk eskatuta, Janneke Plantengak, Colette Faganek, Friederike Maiierrek eta Chantal Remeryk (2010) prestatutako ‘Study for the development of the basic structure of a Gender Equality Index for the European Union’ barne dokumentua ekarri du.

⁵² Ikus <http://www.gesis.org/en/services/data-analysis/social-indicators/eusi/>

⁵³ Zehazki, Norvegiako Estatistika Erakundeak 1999az geroztik Estatuko 430 udalerritarako egiten duen Udal eremuko genero-berdintasunaren indizea azpimarratu nahi dugu. Indize agregatu horren bidez udalen arteko konparazio sinpleak egin daitezke, adierazle kopuru handia kontuan hartuta. Banaketa ikuspegitik hainbat alderdi jasotzen ditu, gizonen eta emakumeen arteko harremanek familia, gizarte eta politika antolamenduko funtsezko esparruetan eragiten dituzten desberdintasun-egoeren berri emateko; halaber, desberdintasun hori definitzean egitura esparruen eta kultura ereduaren eragina mugatzen du, eta toki eremuko botere publikoek egoera hori aldatzen laguntzeko burutu behar dituzten jarduketaren garapena monitorizatzea ere bilatzen du. Dimentsioak honakoak dira: Berdintasun potentziala garatzeko erraztasunak, Egitura industrial eta kultura ereduak, Denboraren banaketa, Banakako baliabideen eta eraginaren banaketa, Eragin politikoaren banaketa eta Diruaren banaketa. Argibide gehiagorako, ikus 356/11 Proiektua emaitzen txosten partziala eta <http://www.ssb.no/likekom/en/>.

Indizeen aurkezpena

GENEROARI BURUZKO GIZA GARAPENAREN INDIZEA – NBGP (GGGI)

Amartya Senen premien teoriaren ikuspegitik eta Giza Garapenaren Indizearen logikari jarraituz, NBGPk Generoari buruzko Giza Garapenaren Indizea deritzona (GGGI) sortu zuen. GGGIren helburua ongizatearen irismena neurtzea da eta kalkulu horretan dirauten genero-desberdintasun mailak behatzen dira.

GGIk bezala, GGGIk hiru dimentsio nagusi bildu ditu: Bizi luze eta osasuntsua, Hezkuntza eta Bizi maila duina. Dimentsio bakoitzak azpiindize konposatu bat dauka lotuta (ikus behako taula). Bere eraketa dela-eta, GGGI txikia izango da gizon eta emakumeen ekonomia eta gizarte aurrerabide maila txikiagoak daudenean, edo sexuen arteko alde handia dagoenean.

20. taula. Generoari buruzko Giza Garapenaren Indizearen –GGGI– osagaiak

Generoari buruzko Giza Garapenaren Indizearen –GGGI– osagaiak		
Bizi luze eta osasuntsua	Berdintasunez banatutako bizi itxaropenaren indizea	Bizi itxaropena, sexuen arabera
Hezkuntza	Berdintasunez banatutako hezkuntza-indizea	Helduen alfabetatze maila
		Matrikulazio tasa gordina sexuen arabera
Bizi maila duina	Berdintasunez banatutako sarrera-indizea	Kalkulatutako sarrerak, sexuaren arabera

GGGIren eskala makroa da eta biltzen duen adierazle kopuru txikiagatik nabarmentzen da; kalkulatzeko eta nazioarte mailan erkatzeko aukerak oso handitzen ditu horrek. NBGPren ebaluazioaren beraren arabera, ordea, indize hori berdintasun-indizetzat jotzea maiz gertatzen den akatsa da. GGGI doitutako GGI bat baino ez da eta ez ditu aintzat hartzen genero-desberdintasunaren funtsezko osagaietako asko, hala nola boterearen eskuragarritasuna.

GENERO JABEKUNTZAREN INDIZEA – NBGP (GJI)

Genero-berdintasunaren beste indize oso ezagun eta erabilia NBGPren Genero-Jabekuntzaren Indizea –GJI– da (edo Gender Empowerment Index –GEI–, ingelesez). Emakumeen jabekuntza neurtzeko modu bat proposatzen du indizeak, politikan eta ekonomian duten partaidetza maila eta baliabideetan duten kontrola behatuz. Hala, NBGPren webgunean azaldu denez, indize horrek: «emakumeek foro politiko eta ekonomikoetako partaidetzan duten aurrerapena ebaluatzen du. Emakumeek eta gizonak bizi politiko eta ekonomikoan eta erabakietan norainoko parte-hartze aktiboa izan dezaketean aztertzen du».

21. taula. Genero-Jabekuntzaren Indizearen –GJI– osagaiak

Genero Jabekuntzaren Indizearen –GJI– osagaiak	
Partaidetza politikoa eta erabakimena	Parlamentuko jarlekuak dituzten emakumeen eta gizonen proportzioa
Partaidetza ekonomikoa eta erabakimena	Emakumeek eta gizonak legegile, goi-funtzionario edo zuzendari duten partaidetza
	Emakumeek eta gizonak profesional eta teknikari duten partaidetza
Bizi maila duina	Emakumeek eta gizonak jasotako sarreren kalkulua

GJik, GGGIk bezala, abantaila bat dauka: adierazle sinple gutxi darabiltza, erraz kalkulatu daitezke herri gehienetarako eta, beraz, oso errazten du konparazioa.

Aipatu behar da, ordea, partaidetza ekonomikoa neurtzeko «sarrera kalkulatuak» erabiltzen direnez gero, herri txiroen GJI nekez iritsiko dela garatuago daudenen balioetara. Hala, adierazle horrek jakintzat jotzen du pobreak oztopo gehiago sortuko dituela emakumeak ahalduz, eta ez ditu aintzat hartzen bestelako egoerak, hala nola hegoaldeko emakumeak jabekuntza maila handia edo are iparrekoek baino handiagoa lortzen duteneko, desberdintasuneko eta behin-behinekotasuneko gizarte testuinguruaren gainetik edo are hark bultzatuta.

GENERO DESBERDINTASUNAREN INDIZEA – NBGP (GDI)

NBGPk 2010ean sortu zuen Genero Desberdintasunaren Indizea (NBGP, 2011), GGGI eta GJI ordeztzeko. Hala, arestiko bi indizeak interpretatzeko zailtasunei eta biek garapena eta zuzentasuna lotzen zituela eta herri pobretuenak beti puntuazio baxuak izatera kondenatzen zituela zioen kritika hedatuari erantzun zien NBGPk.

Funtsezko hiru eremu behatzen ditu: Ugalketa-osasuna, Lan-merkatua eta Jabekuntza; baina 5 adierazle oso sinpleren bidez behatzen dira, eta munduko herri gehienek erraz kalkulatu ahal izatearen abantaila dute (ikus beheko taula). Indizea kalkulatzeko zenbait eragiketa estatistiko egin behar dira; eragiketa horien bidez, sexuen arabera medianak bateratu eta mediana geometrikoa kalkulatzeko dimentsioak hazta daitezke, eta hala 0 eta 1 arteko balio estandarizatua hartzen da dagoen berdintasun maila adierazteko.

Beraz, eratzeko moduagatik beragatik, GDI txikiagoa izango da emakumeen egoera okertzen denean, gizonekin edo gizarte osoarekin zer ere gertatzen den, GGGIrekin ez bezala.

22. taula. Genero Desberdintasunaren Indizearen -GDI- osagaiak

Genero Desberdintasunaren Indizearen -GDI- osagaiak	
Ugalketa-osasuna	Amen heriotza-tasa 100.000 jaiotzako
	Nerabeen ugalkortasun-tasa 1.000 emakumeko
Jabekuntza	Bigarren hezkuntza edo gehiago egin duten emakumeak
	Emakume parlamentarien ehunekoa
Lan-merkatua	Emakume okupatuen ehunekoa

GENERO ETA GIZARTE ERAKUNDEEN INDIZEA - ELGA (GGEI)

ELGAk 2009az geroztik darabil Genero eta Gizarte Erakundearen Indizea -SIGI, ingelesezko sigletan-⁵⁴. Indize horren helburua testuinguru jakin batean genero desberdintasunen jatorri instituzional eta soziala atzematea da. Genero-desberdintasunak garapen bideko herrien aurrerabidean duen eginkizuna behatzeko pentsatuta dago eta, beraz, ELGAz kanpoko herriak ebaluatzeko.

Funtsezko 10 faktore bildu ditu, 5 dimentsiotan banatuta: Familia, Osotasun fisikoa, Semeak alabak baino nahiago izatea, Askatasun zibilak eta Jabetza eskubideak.

23. taula. Genero eta Gizarte Erakundearen Indizearen -GGEI- osagaiak

Genero eta Gizarte Erakundearen Indizearen -GGEI- osagaiak	
Familia	Ezkontza goiztiarra: 15 eta 19 urte arteko emakume ezkondu, dibortziatu edo alargunen ehunekoa neurtzea.
	Poligamia: poligamiaren gizarte-onarpen maila. Harreman poligamoetan dauden emakumeak euren senarrak baino askoz gazteagoak dira eta ez dute lanbide garapenik izaten.
	Aitarenekin agintea: emakume ezkondu edo dibortziatek euren seme-alaben jagoletzarako eskubideak dituzten edo darabiltzaten neurtzea.
	Jaraunspenak: emazteek eta alabek gizonen eskubide berdinak dituzten edo darabiltzaten neurtzea. Kasu batzuetan jaraunspena da jabeak izateko bide bakarra.
Osotasun fisikoa	Emakumeen aurkako indarkeria: emakumeek eraso bortitzen, hala nola bortxaketa, oldar edo sexu jazarpenen aurkako lege babesik duten neurtzea.
	Emakumeen genitalen mozketak: edozein mozketak genital mota jasan duten emakume kopurua kalkulatzeko.
Semeak alabak baino nahiago izatea	Galdutako emakumeak: emakumeen abortu selektiboaren eta neskatilen zaintzako arduragabekeriagatik tratatu txarren gainean neurtuta.

⁵⁴ Ikus <http://genderindex.org/>

Askatasun zibilak	Mugimendu askatasuna: emakumeek euren etxeetatik askatasunez irteteko, hala nola erosketetan edo lagun bat bisitatzera bakarrik (senide edo gizon batek lagunduta joan gabe) irten ahal izateko pairatzen duten murrizketa maila neurtzea.
	Janzteko askatasuna: neurtzea emakumeak zer mailatan dauden behartuta jendaurrean kode jakin batzuei jarraituz, hala nola etxetik kanpo aurpegia edo gorputza estalita dutela, janztera.
Jabetza eskubideak	Emakumeentzako lurraren eskuragarritasuna: emakumeek nekazaritza lurren jabetza eskura dezaketen edo eskuratzen duten neurtzea.
	Emakumeentzako lurretik haragoko beste jabetza batzuen eskuragarritasuna: emakumeek bestelako jabetzak izatez eskura ditzaketen edo eskuratzen dituzten neurtzea.
	Emakumeentzako banku-kredituaren eskuragarritasuna: emakumeek, senarraren abalaren beharrik gabe edo eurak lurren edo bestelako ondasunen jabeak izaterik ez dutela, banku-maileguak izatez eskura ditzaketen eta eskuratzen dituzten neurtzea.

Verlook eta Van der Vleutenek erakutsi dutenez (2009: 177), jende askok jarri du zalantzan GGEI, bi alderdi garrantzitsuri dagokienez: lehenengoa da arreta handiegia jartzen diela desberdintasunaren alderdi formalei, emakumeen egiazko egoeraren kaltetan, indizean genero-erakundeak gehienbat lege xedapenak ebaluatuz neurtzen direlako, eta ez zenbait ohituraren iraupenaren bidez (haurren ezkontzaren eta emakumeen genitalen mozketaren kasuetan izan ezik).

Bestalde, genero-erakunde horien hautaketa ere zalantzan jarri da, esan denez, beste testuinguru kulturalen azterketari eta, bereziki, herri islamdarrei, ikuspegi eurozentriko edo mendebaldarra ezartzen dielako. Sintesi-adierazle horren beste zailtasun bat biltzen duen dimentsio kopurua (bost) eta dimentsio horiek atzemateko adierazle kopuru handia dira, baita neurketa konparagarriak lortzeko zailtasuna ere. Adierazle horrek ematen duen ikuspegia behatu nahi den tokiko berariazko errealitateari egokitu beharra dela-eta, elkarren artean oso desberdinak diren adierazleak hauta daitezke egokitzat eta, beraz, genero-indizeei balio desberdinak emango dizkiete eta nekez erkatu ahalko dira elkarrekin.⁵⁵

Indize horrek konparagarritasun-irizpide batzuk bete ahal izateko mugak izan arren, ordea, haren ikuspegiaren balorazio ona egin behar da, desberdintasuna genero-mendekotasuna gertatu eta errepikatzen den zenbait praktikaren –zenbait instituzio eta gizarte erakundetan egonkortuta– bilakaeraren bidez behatzeko ahalegina delako.

⁵⁵ Kritika horiek izan zitzakeela jakitun, ELGak genero-adierazleei buruzko eztabaida zabaldu du, interneteko esparru bat sortuz: Wikigender. (Verlooo & Van der Vleuten, 2009, 177. or.).

WOMEN'S ECONOMIC OPORTUNITY INDEX -EIU-BM (WEOI)

Erakundeen eremuari erreparatzeko ildo berean, Women's Economic Opportunity Index (WEOI) izenekoa daukagu; Economist Intelligence Unit-ek egiten du, nazioarte mailan, Munduko Bankuak finantzatuta⁵⁶. Emakumeen Aukera Ekonomikoen Indizea ahalegin pilotua da emakume langile eta ekintzaileei eragiten dieten legeak, arauketak, praktikak eta jarrerak ebaluatzeko. WEOIren ikuspegitik, emakumeen egoera, dauden legeen eta arauketen mende ez ezik, gizartean dauden jarreraren eta balioen mende ere badago.

WEOIk 26 adierazle bildu ditu, 5 dimentsiotan banatuta: Lan-politika eta lan-merkatuaren praktikak, Kredituaren eta finantza munduaren eskuragarritasuna, Hezkuntza eta prestakuntza, Emakumeen lege eta gizarte estatusa eta Negozioaren ingurune orokorra.

24. taula. Emakumeen Aukera Ekonomikoen Indizearen -WEOI- osagaiak

Emakumeen Aukera Ekonomikoen Indizearen -EAEI- osagaiak	
Lan-politika eta lan-merkatuaren praktikak	Herriaren egoera Ordainketa Berdinaren Nazioarteko Konbentzioari dagokionez
	Herriaren aurrerapena Lanean eta Okupazioan Ez Baztertzeko Nazioarteko Konbentzioari dagokionez
	Aitatasun- eta amatasun-baimenen estaldura
	Emakumeentzako legezko murrizketak lan mota batzuetarako
	Emakumeen eta gizonen legezko erretiro-adinen arteko aldea
	Herriaren aurrerapena Ordainketa Berdinaren Nazioarteko Konbentzioari dagokionez
	Herriaren aurrerapena Lanean eta Okupazioan Ez Baztertzeko Nazioarteko Konbentzioa betetzeko
	Izatezko bazterkeria maila lan eremuan
	Haurrak zaintzeko zerbitzuen kalitatea eta eskuragarritasuna eta familia zabalaren eginkizuna
Kredituaren eta finantza munduaren eskuragarritasuna	Kreditu-historia eraikitze gaitasuna
	Emakumeentzako finantzazio-programen eskuragarritasuna
	Finantza-zerbitzuen hornidura
	Kreditu pribatu maila BPGd-ren ehuneko gisa
Hezkuntza eta prestakuntza	Emakumeen eskola-bizirako itzaropena (lehen eta bigarren hezkuntza)
	Emakumeen eskola-bizirako itzaropena (hirugarren hezkuntza)
	Emakume helduen alfabetatze maila
	Enpresa txiki eta ertainei prestakuntza eskaintzen dieten programak (publikoak edo pribatuak) egotea

⁵⁶ Ikus https://www.eiu.com/public/topical_report.aspx?campaignid=weoindex2012

Emakumeen lege eta gizarte estatusa	Emakumeak indarkeriaren aurka babesten dituzten legeak egotea
	Emakumeak etxetik kanpo mugitzeko aukera
	Berdintasuna jabetza-eskubideetan
	Nerabeen ugalkortasun-tasa
	CEDAW berrestea
Negozio-ingurune orokorra	Arauketaren kalitatea
	Enpresa bat hasteko prozedurak, iraupena eta kapital minimoa
	Azpiegituren arriskua
	Mugikorraren erabiltzaileak 100 biztanleko

Adierazleek genero-berdintasunari lotutako alderdiak eta zerikusirik ez dutenak bildu ditu, eta kasu askotan kategoriakoak dira, aztertutako gertakarien balorazio kualitatibotik atereak. Indizearen azken balioa adierazleen batez besteko haztatu gabetik kalkulatu da, 1 eta 100 arteko eskala batean estandarizatuta. Horrek esan nahi du kategoria guztiek orekaz parte hartzen dutela osotasunean.

GENERO ALDEAREN INDIZEA – WEF (GGI)

Munduko Foro Ekonomikoaren esparruan ere indize oso onartu bat egin da. Genero Aldearen Indizea da –Gender Gap Index, GGI– (Hausmanh et al., 2011).

Indize horrek 14 adierazle bildu ditu, 4 dimentsiotan banatuta: Aukerak eta partaidetza ekonomikoa, Eskolatzea, Osasuna eta biziraupena eta Jabekuntza politikoa.

25. taula. Genero-Aldearen Indizearen –GGI edo GAI– osagaiak

Genero Aldearen Indizearen –GGI edo GAI– osagaiak	
Aukerak eta partaidetza ekonomikoa	Emakumeen lan-indarraren partaidetza ratioa gizonetikiko
	Gizonen eta emakumeen arteko soldata ratioa antzeko lanpostuetan
	Emakumeek jasotako sarrera kalkulatuaren ratioa gizonetikiko
	Emakume legelari, ofizial senior eta zuzendarien ratioa gizon kopuruarekiko
	Emakume profesional eta langile teknikarien ratioa gizonetikiko
Eskolatzea	Emakumeen alfabetatze ratioa gizonetikiko
	Emakumeen lehen hezkuntzako sarrera tasa garbiaren ratioa gizonetikiko
	Emakumeen bigarren hezkuntzako sarrera tasa garbiaren ratioa gizonetikiko
	Emakumeen hirugarren hezkuntzako sarrera tasa garbiaren ratioa gizonetikiko
Osasuna eta biziraupena	Gizonetikiko emakume ratioa jaiotzean
	Emakumeen bizi osasuntsurako itxaropen ratioa gizonetikiko
Jabekuntza politikoa	Parlamentuan jarlekua duten emakume ratioa gizonetikiko
	Gizonetikiko emakume ratioa ministerio mailatan
	Emakumeak estatuburu izandako urte kopuruaren ratioa gizonak izandakoarekiko

GAI sintesi-adierazlea da eta nahiko erraza da hura kalkulatzeko, bere osagaiei pisu espezifiko desberdinak ematen ez dizkielako. Adierazle horien mediana aritmetikoa kalkulatu da, haien balio estandarizatuak erabiliz. Adierazle horiek gizonetik emakume ratioetan formulatu dira beti eta lehenago, eraikitzeko, haztatzeko prozesu batetik edo batzuetatik igarotzen dira.

GENERO ZUZENTASUNAREN INDIZEA – Social Watch (IEG)

Social Watch erakunde sareak proposatzen duen Genero-Zuzentasunaren Indizea (GZI, edo GEI ingelesezko sigletan) funtsezko eremu eta alderdietan gizonen eta emakumeen artean dagoen tartea jartzen du analisiaren erdian, haietan gizarte-desberdintasunaren ondorioak handiagoak direlako eta, beraz, emakumeentzako ondorioak larriagoak. Hala, zuzentasun-indize horretan emakumeen jabekuntza politikoari, ekonomia produktiboaren esparruan duten partaidetzari eta haien hezkuntza mailari buruzko alderdiak sartu dira, gizonen egoerarekiko beti.

GZIk 10 adierazle bildu ditu, hiru eremutan banatuta: Hezkuntza, Jarduera ekonomikoa eta Jabekuntza.

26. taula. Genero-Zuzentasunaren Indizearen –GZI– osagaiak

Genero Zuzentasunaren Indizearen –GZI– osagaiak	
Hezkuntzako tartea	Analfabetismo tasa sexuen arabera
	Lehen hezkuntzako eskolatze tasa sexuen arabera
	Bigarren hezkuntzako eskolatze tasa sexuen arabera
	Goi-mailako eskolatze tasa sexuen arabera
Jarduera ekonomikoko tartea	Jarduera ekonomikoko tasa sexuen arabera
	Soldata kalkulatu sexuen arabera
Jabekuntzako tartea	Kargu politikoetako emakumeen ehunekoa
	Gobernu eta zuzendaritza karguetako emakumeen ehunekoa
	Parlamentuko emakumeen ehunekoa
	Ministerioko posizioetako emakumeen ehunekoa

Eremu bakoitzeko sintesi-azpiindize bat kalkulatu da haren adierazleetatik, haztapan batez eratuta. GZI kalkulatzeko, azpiindize estandarizatuaren mediana aritmetikoa eginez bateratu dira azpiindizeak, 0 eta 100 arteko balioa hartuz.

Balorazioa

Honako taulan indize guztien ezaugarriak sistematizatuta aurkeztu dira, zenbait elementuren arabera aztertuta: erakunde sustatzailea, EAEn adierazleek duten erabilgarritasuna, bildu dituen dimentsioak, ikuspegi orokorra, gure ikuspuntutik EAeko berdintasunerako politiketarako izan dezakeen egokitasuna, eta txostenen periodikotasuna.

27. taula. Aztertutako nazioarteko indizeen sistematizazioa

	Erakunde sustatzailea	Adierazleen erabilg.	Dimentsioak	Ikuspegia	EAErako egokitasuna	Periodikotasuna	Balorazioa
GEI Social watch	NBren helburu batzuen jarraipena egiten duen GKE (garapenari lotuta)	Bai	Jabekuntza, hezkuntza, parte-hartze ekonomikoa	Arrakala	Ona	Hirurtekoa (?) (azkena 2012)	Indize bakuna. Osasun-adierazlerik gabe
GGI WorldEconomic Forum	Irabazi-asmorik gabeko fundazioa, aurrerabidea bilatzen du, negozioen, politikaren eta gizarte zibilaren liderrak engaiatuz	Bai	Parte-hartze ekonomikoa, osasunerako hezkuntza, jabekuntza politikoa	Arrakala	Ona	Urterokoa (azkena 2011)	Adierazle kopuru handia. Batez ere ekonomia eremuan
SIGI ELGA	Politika ekonomiko eta sozialen koordinaziorako estatuen elkarte	Eraiki behar dira	Lan-politika eta lan-merkatuaren praktikak, kredituaren eta finantza munduaren eskuragarritasuna, hezkuntza eta prestakuntza, emakumeen lege eta gizarte estatusa eta negozioaren ingurune orokorra	Mistoa (arrakala, emakumeen aurrerapena, gizarte erakundeak)	Txarra	Hirurtekoa (?) (azkena 2012)	Ez da egokia
G(G)GI NBGP	Garapena sustatzen duen NBEren erakundea	Bai	Hezkuntza, osasuna, pobrezia. Ez du genero-desberdintasuna neurtzen, oinarrizko gaitasunak baizik	Biztanleriaren garapena gi-rekin	Urria: ez du lan-eremua islatzen, baina bai bizi itxaropena; errenta handieneko herriek hobe lortzen dute	Urterokoa (azkena 2011)	Oinarrizko gaitasunen adierazleak
GJI NBGP		Bai	Parte-hartze politikoa eta ekonomikoa eta baliabide ekonomikoen kontrola	Mistoa (arrakala eta emakumeen aurrerapena)	Ertaina: errenta handieneko herriek puntuazio hobe lortzen dute	Urterokoa (azkena 2011)	
GDI NBGP		Bai	Ugalketa-osasuna, jabekuntza (hezkuntza+politika), lan-merkatuko parte-hartzea	Mistoa (arrakala eta emakumeen aurrerapena)	Ertaina: ugalketa-osasunaren dimentsioaren eraketak lerra dezake	Urterokoa (azkena 2011)	NBGPren gainerako indizeak ordeztu ditu
WEOI Economist Intelligence Unit-BM	Ekonomia liderrentzako aholkularitza (Munduko Bankuak finantzaturako proiektua)	Eraiki behar dira	Lan politika eta lan-merkatua; kredituaren eta finantza ekonomien eskuragarritasuna; hezkuntza; lege eta gizarte estatusa; negozio ingurunea	Mistoa (gizarte erakundeen rankinga eta arrakalak)	Ona	? (azkena 2010)	Indize konplexua eta ekonomizista

Haiek aztertu ondoren, EAeren konparagarritasunerako GGEI, WEOI, GJI eta GGGI baztertu behar ditugu, haien ikuspegi substantiboak ez datozelako bat interesatzen zaigun helburuarekin: gizarteetan gizonen eta emakumeen artean dagoen berdintasuna neurtzea. Ikusi dugunez, GGEI ez da esanguratsua Europako gizarteak erkatzeko. WEOIk lan eremua baino ez du aintzat hartu eta ez du berdintasunaren bestelako dimentsiorik bildu; bestalde, haren adierazleak ez daude erabilgarri. GJI eta GGGIri dagokienez, berdintasuna eta garapena lotzeagatik herri garatuen alde daukan joeraz gain, garrantzitsuena da NBGPk berak GZIrekin ordeztu dituela indize horiek.

Hortaz, EAE beste eskualde edo Estatuekin erkatu ahal izateko bideragarriak deritzegun indizeak **GEI** (Social Watch), **GGI** (World Economic Forum) eta **GDI** (NBGP) dira. Lehenengo biak erakunde pribatuek sustatu dituzte, eta hirugarrena nazioarteko erakunde publiko batek.

Esan dugunez, GDI Nazio Batuen sistemako erakunde batek sustatu du. Erakunde hori, gainera, aitzindaria da desberdintasunak eta garapena maila globalean neurtzen. Horrek zilegitasun handia ematen die indizeari eta konparazioaren emaitzei. Indize hori GGGI eta GJI hobetzeko sortu zen, maila globalean generoari lotuta gehien kalkulatzeko diren indizeak izanik biak, eta, beraz, mundu osoan erreferentziazko funtsezko indizeetako bat bihurtuko da azkenean, seguruenik. Metodologiari dagokionez, adierazle kopuru txikia dauka, eta horrek, *a priori*, konparazioaren irismenik handiena bermatzen du, baina hura kalkulatzeko konplexuagoa gerta daitekeela esan behar da.

Bestalde, erakunde pribatuek sustatutako indizeen artean, GEI eta GGI oso errazak dira, kalkulatzeko metodoari dagokionez. Ikuspegi substantiboari erreparatuz gero, GGI GEIren gaineratik nabarmenduko litzateke, berdintasunaren dimentsioei dagokienez aberatsagoa delako. Horregatik, erakunde pribatuek edo erakunde sare pribatuek sustatutako indizeen artean, gure ustez interesgarriagoa da hura –**GGI**– proposatzea EAE beste herri edo eskualdeekin erkatzeko.

Hortaz, aztertutako indize guztietatik, **GGIri eta GDIri deritzegu interesekoak EAE erkatzeko**. Honako tauletan haietako bakoitzaren ahultasun eta indar batzuk jaso ditugu.

28. taula: Lehen hautaketako bi indizeen –GGI eta GDI– AMIA analisia

GENERO DESBERDINTASUNAREN INDIZEA: DGI-NBGP	
INDARRAK	AHULTASUNAK
<p>-Sendotasun tekniko handia</p> <p>-Ikuspegi mistoa: arrakala eta emakumeen aurrerapena.</p>	<p>-Dimentsio gutxi (ez die heldu funtsezko gai batzuei, hala nola zaintzari, eremu politikotik kanpoko erabakimenari, erakundeen berdintasunarekiko engaiamenduari, emakumeen arteko desberdintasunari, edo errentari eta pobrezia-arriskuari).</p> <p>-Adierazleak herri aberatsak eta txiroak erkatzeko pentsatu dira eta, beraz, oinarritzko gaitasunei heldu diete: euskal gizarteko aldaketei antzemateko sentikortasun urria izan dezake.</p>
AUKERAK	MEHATXUAK
<p>-NBGPren indizeak administrazio askok, baita autonomikoen ere, kalkulatu ohi dituzte.</p> <p>-NBGP, NBren sistemako erakunde publikoa, garapeneko gizarte-desberdintasunak ebaluatzeko zilegitasun handiena duen erakundea da, beharbada, eta haren indizeak oso onartuta daude, bai politikan bai hedabideetan.</p>	<p>-GJI eta GGGI ordeztu behar dituen adierazle berria izanik, erresistentziak egon daitezke aurreko indizeak baztertzeke.</p>

GENERO ALDEAREN INDIZEA: GGI-WEF	
INDARRAK	AHULTASUNAK
<p>-Dimentsio aniztasun handia dauka (aukerak eta partaidetza ekonomikoa, eskolatzea, osasuna, jabeakuntza politikoa).</p> <p>-Adierazleak euskal errealitatearekiko sentikorragoak izan daitezke, iparraldeko herrietako funtsezko desberdintasunetako batzuei heldu dielako (soldata-desberdintasuna, kristalezko sabaia, adib.).</p> <p>-Indizearen adierazle guztietan genero-arrakalaren ikuspegia hautatzeak homogeneotasun handia ematen die haren datuei.</p>	<p>-Eremu publikoari oso begira: Ez dauka zaintzari eta lan-zamaren banaketari eta eguneroko eremuari heltzen dien adierazlerik ezta errentako desberdintasunari buruzko ikuspegi agregaturik ere.</p> <p>-Arrakala ikuspegia baino ez dauka, eta jabeakuntzaren eta oinarritzko gaitasunen ikuspegia ezkututzen du.</p>
AUKERAK	MEHATXUAK
<p>-Indize horren urteroko kalkuluak eragin handia dauka hedabideetan.</p>	<p>-Indizearen ikuspegia nahiko zabala eta osoa izan arren, indize horren arabera egindako rankinga urtero atera eta hedatzeak logika nahiko ekonomizista izan ohi du⁵⁷, sustatzen duen erakundearen misioarekin bat datorrena. Gizonen eta emakumeen berdintasunari eginkizun hori eman nahi zaion baloratu behar da.</p>

⁵⁷ Berdintasunaren kontzeptu nahiko mugatuaren esparruan hedatu ohi da, eta honako ideia azipimarratzen da: «lehiakortasun ekonomikorako galdutako emakume-kapitala».

Bi indizeek gainerako autonomia erkidegoekin edota mendebaldeko estatuekin erkatzeari begira duten **sentikortasunari** dagokionez, hura ikertzeko analisi bat egin da. Honako hipotesia hartu da abiapuntu: EAEn eta gainerako erkidegoen arteko desberdintasunak espainiar Estatuaren eta EB-15eko beste herrien artean dauden desberdintasunekin pareka litezke. Horri jarraituz, egiaztatuenez, alde nahikoa dago espainiar Estatuaren eta EB-15eko Estatu kideen posizioen artean⁵⁸. Zentzu horretan, GGIn arabera, Espainia EB-15eko bosgarren tokian legoke, berdintasunari dagokionez (ikus Eranskina). Horren arabera, pentsa dezakegu adierazlea autonomia erkidegoen arteko balizko barne aldeekiko nahiko sentikorra dela. GDIn sentikortasuna egiaztatuta ere, ikusi da hura ere nahiko sentikorra litzatekeela autonomia erkidegoen arteko aldeak erakusteko eta, 3. Eranskinean ikusten denez, EBn ere barneko desberdintasunak leudeke. Indize horren arabera, Espainia EB-15eko zazpigarren tokian legoke; horrek taularen erdian kokatzen du.

Dimentsionalizazioaren ikuspuntutik, GGIn GDIn baino zabalagoa da, baina ez da desberdintasunean hainbeste oinarritu, oinarritzko gaitasunei dagokienez. A priori, antzeko herrien artean erkatzeak abantaila lekarke ezaugarri horrek. Kalkulu sintetikoaren emaitzak, ordea, antzeko heinak eman ditu EB-15eko herrietan, eta NBGPk sustatutako indizeak GGIk berak baino puntuazio okerragoa eman dio Espainiari (ikus erantsitako taula)⁵⁹.

Puntu honetan esan behar da indize horiek ez dituztela zenbait dimentsio bildu, hala nola erantzunkidetasuna, edo emakumeen aurkako indarkeria, baina ordezkari-esparru politikoetan egotea eta hezkuntzaren eskuragarritasuna azpimarratu dituzte, aldiz. EAEk berdintasun handia duen alderdiei erreparatzen dien irudi orokorra eman dezake horrek, eta desberdintasunak dirauen eremuak ezkutatu, baina aurkitutako indize guztien arazo orokorra da hori.

Komunikatzeko eraginkortasunari dagokionez, bi indizeek izan dezakete harrera eta hedapen handia espainiar Estatuan. GGIk urtero izan du, batez ere hedabideetan – emakumeek garapen ekonomikoan duten eginkizunari lotuta–. Bestalde, GDIn aurrekoak (GGI eta GJI) maiz kalkulatu dituzte erakunde ofizialek, eta pentsatzekoa da Estatu edo autonomietako administrazioek ere euren kalkulurako ordezteak ekarriko duela NBGPk berak haiek ordezteak.

Puntu honetan gogoratu behar da, bi indize horietako bat zein biak erabiltzea hautatzen bada, Europako Batzordeak eta Genero Berdintasunerako Europar Erakundeak bultzatu duten sintesi-adierazlearen bilakaerari erreparatu behar litzaikeela. Adierazle horretaz atal honetako sarreran hitz egin dugu. Seguruenik, hura izan liteke neurririk egokiena EAE bere inguruko beste herri edo eskualdeekin erkatzeak, zio politiko eta substantiboengatik. Ikuspuntu politikotik zilegitasun handia izango du, EAEk osatzen duen Europako esparruan adostu baita. Ikuspuntu substantibotik, seguruenik esparru kontzeptual zabalago batetik abiatuko da eta antzeko herriekin erkatzeak eta EAEk bere testuinguruan betetzen duen tokiaren aldean dauden joera positibo edo negatiboei antzemateko adierazle sentikorrek bilduko ditu.

Mementoz, EAEko berdintasunaren eta desberdintasunaren konplexutasuna eta dimentsio aniztasuna atzemateko gomendagarriagoa da txosten honetan proposatutako bezalako adierazle multzoa ere erabiltzea.

⁵⁸ GEIn ez bezala; horretan, alde batetik, hiru indizeen mailarik zabalena erakutsi du baina, bestetik, Espainia EB-15eko laugarren tokian jarri du, oso goian.

⁵⁹ Horren arrazoia da GGIn ministerioei dagokien genero-arrakalaren adierazlea sartu dela (beste indize batzuetan bezala, parlamentarietako dagokien erabiltzeaz gain).

4. **A**ZKEN GOGOETAK

Txosten hau laburbildu eta azken oharrak egiteko, garrantzitsua deritzogu adierazle-sistema honen ekarpenak globalki aipatzeari, Emakundek, Eusko Jaurlaritzak eta euskal gizarte osoak erabil dezaten.

Sisteman honakoak bildu dira:

- Lehenbizi, Eusko Jaurlaritzak egun dauzkan berdintasun-adierazle guztien berrikusketa, eta haiek hobetzeko irizpideak eta elementuak proposatu dira.
- Bigarrenik, berdintasun-adierazle sistema erraza, maneiagarria eta euskal herritarrei komunikatzen erraza zehaztu da; alderdi sektorialak eta EAEk eremu horretan egindako esfortzu publikoaren indizea dauzka, eta etekina ateratzen dio lehendik dagoen informazio-sistemari (proposamena bi fasetan egin da, administrazioaren benetako posibilitateei egokitzeko).
- Azkenik, sistema osatzeko EAEko egoera beste eskualde eta herriekin erkatzeko indize konplexu erabilgarrien hautaketa bat egin da.

Zehazkiago, honako elementuak azpimarratu nahi ditugu, adierazle-sistemaren ezaugarri eta ekarpenei dagokienez:

- a) Adierazle-sistemaren proposamen honek gizonen eta emakumeen arteko **berdintasunari buruzko** EAEren **ikuspegi/eredu** bereizgarri baten alde egin du. Beste sistema batzuen aldean, honakoengatik nabarmentzen da: (i) jabekuntza eta birbanaketa osagarritzat hartzen dituen ikuspegia sartu du; (ii) berdintasunaren analisisian eremu publikoa eta pribatua bateratzeko kezka du –tradizioz gizona zegoen eremu publikoan emakumeak eta gizonak parekatzeari baino begiratzen ez dion joera androzentrikoa saihestuz hala–; eta (iii) sektoreei era zabalean heldu die, sartu ohi diren dimentsioetara (lan-merkatua, ordezkaritza-politika, eta hezkuntza) mugatu gabe.
- b) Aurkeztu dugun adierazle-sistemaren proposamenak zenbait **maila** bildu ditu: bertsio sinplifikatuagoa (12 adierazle); ertaina (25 adierazle); edo dimentsio anitzekoa (adierazle osagarriekin eta zehaztutako gomendioen arabera bereizitako analisiarekin).
- c) Proposatutako sistema oso **malgua** da aplikatzeko. Aipatu hiru informazio mailengatik ez ezik, etorkizuneko kalkulu premien eta posibilitateen arabera adierazle nagusiak bigarren mailako adierazleekin ordeztuz egokitzeko aukeragatik ere bai.
- d) Sistema honek bildu dituen berdintasunaren **eremuei** dagokienez, gure ustez aipatu behar da interesgarria dela adierazleak berdintasunaren bosgarren eremu bat ere aintzat hartuz interpretatzea (governantzarekin, jabekuntzarekin, gizarte erantzunkidearekin eta emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzearekin batera): genero-ikuspegiko demokratizazioa edo kalitate demokratikoa. Dimentsio horren adierazleak zeharka sartu dira gainerako eremuetan, baina denek batera berdintasunaren aurrerapenaren ideia bat eman dezakete, demokraziaren kalitate hobeari dagokionez. Honakoak liriateke adierazleok:

berdintasunerako gobernantza, emakumeen presentzia ordezkartza-esparru politikoetan, eta emakumeen euren artean dagoen berdintasun maila.

- e) Sistema osatzeko, bestalde, estatu eta nazioarte mailako **berdintasun-indizeak** aztertu eta berrikusi dira, EAEk emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko aurrerapenak erkatu ahal izan ditzan. Hala ere, ikusienez, indize horien prestaketa oso urria da gaur egun. Bi salbuespen nabarmendu dira, Andaluziako gobernua eta Ioé erakundea, Estatuan berdintasunaren egoera diagnostikatu nahiari dagokionez. Nazioarte mailan, aipatu behar da, alde batetik, NBGPk berrikusketa kritikoa egin duela eta ezarrienez (GGGI eta GJI) beste adierazle berri baten alde (GDI) egin duela. Bestalde, erakunde ekonomiko batzuek (MB eta ELGA) berdintasuna monitorizatzeko agertu duten interesa nabarmendu behar da.
- f) Adierazi behar da, ateratako sistemaren dimentsio aniztasunak eta aberastasunak zerikusi handia dutela berdintasunerako euskal politiken sailartekotasunaren alde sendo egin izanarekin; hala, sail guztietan daude berdintasun-agenteak, ikuspegi eta lehentasun pluralak dituzte, eta haiek oso aberastu dute azken eraketa; halaber, zerikusi handia du azken berdintasun-planen sakoneko ikuspegiaren sendotasunarekin ere.
- g) Adierazle-sistemaren diseinua Emakunderekin eta Eusko Jaurlaritzako berdintasun-agente guztiekin izandako elkarrizketa prozesu baten emaitza izan da. Zentzu horretan, aurkeztutako proposamenak prozesu osoan parte hartu duten agente guztiek adierazitako lehentasunak batu nahi izan ditu. Lehentasun horien bilakaerak, aldaketak, aberasteak edo birpentsatzeak adierazle-sistema birpentsaraz edo berrikusaraz lezakete.

Azkenik, beraz, gure ustez, txosten honetan diseinatutako adierazle-sistemak EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna neurtzeko ikuspegi berriak dakartza eta aukerak zabaldu ditu etorkizunean haren lorpenen sakonduko duten politika publikoak egiteko. Era berean, egindako lanaren bidez proposatutako adierazle eta indize batzuk etorkizuneko faseetan sakondu eta zabaltzeko aukerak identifikatu dira. Horretarako, dokumentu honetan egindako proposamena baloratu behar da eta sistemaren ezarpen eta erabilera fasean oportunitate-leihoak identifikatu behar dira.

5. **B**IBLIOGRAFIA

Alfama, Cruells, De la Fuente eta Obradors (2011) *Revisión, valoración y sistematización de los indicadores de las políticas de igualdad de mujeres y hombres de la CAE. Panorama internacional, base conceptual y exploración de indicadores existentes*. Emakunderentzako txostena.

Amorós, C. (1991). *Hacia una crítica de la razón patriarcal*. Anthropos Editorial.

Balbo, L. (1987). Crazy quilts: rethinking the welfare state debate from a woman's point of view. *Women and the State*, 45-71.

Balbo, Laura. (1987). *Time to care: politiche del tempo e diritti quotidiani*. F. Angeli.

Bastia, T. (2000) *Qualitative and Quantitative Indicators for the Monitoring and Evaluation of the ILO Gender Mainstreaming Strategy*, Working Paper, ILO: Geneva

Benhabib, S. (2006). *Las reivindicaciones de la cultura: igualdad y diversidad en la era global*. Katz Editores.

Bericat, E., & Sánchez, E. (2008). *Balance de la desigualdad de género en España. Un sistema de indicadores sociales*. Sevilla: Centro de Estudios Andaluces. Hemen eskura daiteke: http://www.juntadeandalucia.es/export/drupal_cpre/Actualidad23.pdf

Blasco, J; Casado, D. (2009) *Guia pràctica 5. Avaluació d'impacte*. Col·lecció Ivàlua de guies pràctiques sobre avaluació de polítiques públiques, Bartzelona. Hemen eskura daiteke:

http://www.ivalua.cat/documents/1/01_03_2010_11_33_12_Guia5_Impacte_Setembre_2009_revfeb2010_massavermella.pdf

Borràs, V.; Torns, T.; Moreno, S. (2007). Las políticas de conciliación: políticas laborales versus políticas de tiempo. *PAPERS Revista de Sociologia*, 83 zk., 83-96 or.

Bourdieu, P. (2007). *La dominación masculina*. Anagrama.

Braidotti, R. (2004) *Feminismo, diferencia sexual y subjetividad nómada*, Bartzelona, Gedisa.

Butler, J. (1990). *El género en disputa*. Paidós.

Butler, J. et. Al (2003). *Contingencia, hegemonía y universalidad*, Fondo de cultura Económica, Mexiko.

CAC, ICD eta CPC, 2011. *Gènere i Mitjans de Comunicació. Eines per a visibilitzar les aportacions de les dones*. Bartzelona.

Carrasco, C. (1999). *Mujeres y economía: nuevas perspectivas para viejos y nuevos problemas*. Icaria Editorial.

Carrasco, C. (2001). «La sostenibilidad de la vida humana: ¿un asunto de mujeres?» *Mientras tanto*, 82, 43-70.

Carrasco, C. et al. (2006). *Estadístiques sota sospita. Proposta de nous indicadors des de l'experiència femenina*. Institut Català de les Dones. Generalitat de Catalunya. Bartzelona.

Cherchye, L., Moesen, W., & Puyenbroeck, T. (2004). «Legitimately Diverse, yet Comparable: On Synthesizing Social Inclusion Performance in the EU». *JCMS: Journal of Common Market Studies*, 42(5), 919-955.

Colectivo Ioé (2008). *Propuesta de sistema de indicadores sociales*. <http://ctinobar.webs.ull.es/1docencia/Canarias/INDICADORES%20SOCIALES/PROPUESTAIOE.pdf>

- Collins, P. H. (1991), *Black Feminist Thought. Knowledge, consciousness, and the politics of empowerment*. London: Routledge.
- Crenshaw, K. (1994), «Mapping the Margins: Intersectionality, Identity Politics, and Violence against Women of Color», 93-118 or., Martha Albertson Fineman eta Rixanne Mykitiuk (eds) *The Public Nature of Private Violence*. New York: Routledge.
- Devetter, F. (2009). «Gender Differences in Time Availability: Evidence from France». *Gender, Work & Organization*, 16(4), 429-450.
- BS (2012). *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna*. Eusko Jaurlaritza.
- JLGSS (2009). *Pobrezari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta, 2008. Emaizen txostena*. Azterlanen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Domínguez, Màrius, eta Montse Simó (2003). *Tècniques d'Investigació Social Quantitatives*. Edicions Universitat de Barcelona.
- Domínguez, R., & Guijarro, M. (2009). «Gender Inequality and Economic Growth in Spain: An Exploratory Analysis». *Review of Regional Studies*, 39(1), 23-48.
- Earl, Sarah, Fred Carden eta Terry Smutylo. (2001). *Outcome Mapping: Building Learning and Reflection into Development Programs*. International Development Research Centre, Ottawa.
- Emakunde (2009). *Emakumeen eta gizonen presentzia Euskadiko erabaki-guneetan*. 24. txostena. Gasteiz.
- Emakunde (2010). *Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak*. 26. txostena. Gasteiz.
- Emakunde (2011). *ZIFRAK 2011 txostena*. Gasteiz.
- European Commission, & OECD. (2008). *Handbook on constructing composite indicators: Methodology and user guide*. Organization for Economic Development.
- EVALSED, 2010. «The resource for the evaluation of Socio-Economic Development. European Commission». Hemen eskura daiteke: http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/evaluation/evalsed/guide/index_en.htm
- Ferrant, G. (2010): *The Gender Inequalities Index (GII) as a New Way to Measure Gender Inequalities in Developing*. (Documents de Travail). Paris: Université Panthéon-Sorbonne (Paris 1), Centre d'Economie de la Sorbonne.
- Ferree, M. (2009) «Inequality, Intersectionality and the Politics of Discourse: Framing Feminist Alliances», Lombardo, E., Meier, P. eta Verloo, M. *The Discursive Politics of Gender Equality. Stretching, Bending and Policy-making*. London: Routledge.
- Forti, S. (2003) «Forward looking Evaluation of Gender Mainstreaming in UN-Habitat», *Evaluation 1/2003*, UN-HABITAT publications.
- Fraser, N. (2008). *Escalas de Justicia*. HERDER.
- Fraser, N, & Honneth, A. (2006). *¿Redistribución o reconocimiento?* Ediciones Morata.
- GMMP, 2010. *¿Quién figura en las noticias? Proyecto de Monitoreo Global de Medios 2010*. Espainia. Nazio Txostena.

- Gopal, G. (2005). *Evaluating a Decade of World Bank Gender Policy, 1990-99*. World Bank publications.
- Hancock, A.(2007), «When multiplication doesn't equal quick addition: Examining intersectionality as a research paradigm», *Perspectives on Politics* 5: 63-79.
- Hausmanh, R. et al. (2011). *The Global Gender Gap Report 2011*.
- Hobson, B, Lewis J, eta Siim B. (2002). *Contested Concepts in Gender and Social Politics*. Edward Elgar Publishing.
- Hoetmer, R. (2009). *Repensar la política desde América Latina*, Fondo editorial de la Universidad Mayor de San Marcos, Lima.
- ILO (1998). «Mujeres en puestos directivos: son pocas las elegidas». *Trabajo: Revista de la OIT*. 23. zk.
- Izquierdo, M. J (1998). *Aguantando el tipo: desigualdad social y discriminación salarial: las luchas de mujeres trabajadoras*. Diputació de Barcelona, Area de Serveis Socials.
- León, Magdalena. (1997) *Poder y empoderamiento de las mujeres*. Santafé de Bogotá: TM Editores.
- Lestón, I. R., & López, C. M. (2011). Xénero e mercado de traballo en Galicia: análise de equidade mediante indicadores sintéticos. *Revista galega de economía: Publicación Interdisciplinar da Facultade de Ciencias Económicas e Empresariais*, 20(2), 213-226.
- Lewis, J. (2009). *Work-family balance, gender and policy*. Edward Elgar Publishing.
- Lombardo, E., & Meier, P. (2009). Power and Gender: Policy Frames on Gender Inequality in Politics in the Netherlands and Spain. *Journal of Women, Politics & Policy*, 30(4), 357.
- Lovenduski, J. (2005). *Feminizing politics*. Polity.
- Mayne, John. (1999). *Addressing Attribution Through Contribution Analysis: Using Performance Measures Sensibly*. Discussion paper, Office of the Auditor General of Canada.
- Martínez, P.; Morán, E. *Renta personal y familiar: un nuevo enfoque en el análisis de la renta*. Cuadernos Técnicos. Eustat. Donostia.
- Martínez-Bascuñán Ramírez, M. (2010). «¿Puede la deliberación ser democrática?» *Revista española de ciencia política*, (24), 11-32.
- Maruani, M., Rogerat, C., & Torns, T. (2000). *Las nuevas fronteras de la desigualdad: hombres y mujeres en el mercado de trabajo*. Icaria Editorial.
- Millett, K. (1970). *Política sexual*. Cátedra.
- Moreno, S. (2005). Conciliació: l'èxit d'un concepte, la insatisfacció d'unes polítiques. *Revista Nous Horitzons*, 180:21-26.
- Munda G. (2008). Social multi-criteria evaluation for a sustainable economy, *Operation Research and Decision Theory Series*, Springer, Heidelberg, New York, 227 or. ISBN: 978-3-540-73702-5.
- Munda G. (2004). Social multi-criteria evaluation: methodological foundations and operational consequences, *European Journal of Operational Research* , 158/3 lib., 662-677 or.

- Munda G. (1995). «Multicriteria evaluation in a fuzzy environment. Theory and applications in ecological economics», Contributions to Economics Series, PhysicaVerlag, Heidelberg, 255 or. ISBN: 3-7908-0892-X. *Review in Journal of Economic Literature*, Vol. 34, No. 4, December 1996 (JEL 96-1719).
- Nardo, M., Saisana, M., Saltelli, A., & Tarantola, S. (2005). «Tools for composite indicators building». *European Commission-Joint Research Centre*.
- ELGA (2011a). *¿Busca ayuda? Proporcionar y pagar cuidados de larga duración*. Espainia.
- ELGA (2011b). *Panorama de la salud 2011*. ELG Aren adierazleak. OECD.
- ELGA (2008). *Handbook on Constructing Composite Indicators. METHODOLOGY AND USER GUIDE*. OECD.
- Okin, S. M. (1989). *Justice, Gender and the Family*. S.l.: Basic Books.
- Phillips, A. (1995). *The politics of presence*. Oxford University Press.
- Plantenga, J., Fagan, C., Maier, F. eta Remery, C. (2010). *Study for the development of the basic structure of a Gender Equality Index for the European Union*. European Institute for Gender Equality (EIGE).
- Plantenga, J., Figueiredo, H., Remery, C., eta Smith, M. (2003). *Towards an EU gender equality index. Feasibility commissioned by and presented to the European Commission*. Utrecht, Netherlands: Utrecht School of Economics.
- Plantenga, J., & Hansen, J. (1999). *Benchmarking equal opportunities in the European Union*. Utrecht, Institute of Economics.
- NBGP (2011). *Informe sobre Desarrollo Humano 2011*.
- Red2Red Consultores. (2010). *Sistema estatal de indicadores de género*. Observatorio. Instituto de la Mujer.
- Rico, M., & Gómez-Limón, J. A. (2011). «Propuesta metodológica para la construcción de indicadores sintéticos de igualdad de género. El caso del medio rural de Castilla y León». *Revista Internacional de Sociología*, 69(1), 253-286.
- Riobóo Lestón, I. eta Riobóo Almanzor, J.M. (2011): «Modelling gender inequality using synthetic indexes», en *Modelling and simulation in Economics: Applications in the private and public sector*, 87-100 or.
- Riobóo Lestón, I. eta Martín López, C. (2011): Género y mercado de trabajo en Galicia: Análisis de equidad mediante indicadores sintéticos. *Revista Gallega de Economía*, 1-13 or.
- Riobóo Lestón, I. eta Martín López, C. (2010): Título: Medición de las desigualdades de género en el mercado laboral de Castilla-La Mancha. *CLM.Economía*, 315-334 or.
- Sadik, N. (2006) *Evaluation of gender mainstreaming in UNDP*. UNDP publications
- Sainsbury, D. (1994). *Gendering welfare states*. SAGE.
- Sainsbury, D. (1996). *Gender, equality, and welfare states*. Cambridge University Press.
- Sainsbury, D. (1999). *Gender and welfare state regimes*. Oxford University Press.
- Saisana, M., & Tarantola, S. (2002). «State-of-the-art report on current methodologies and practices for composite indicator development». *European Commission Report*.

- Saraceno, C. (2003). «La conciliazione di responsabilità familiari e attività lavorative in Italia: paradossi ed equilibri imperfetti». *Polis*, (2/2003).
- Sassoon, A. S. (1996). *Las mujeres y el estado: los límites cambiantes de lo público y lo privado*. Vindicación Feminista.
- Sousa Santos, B. (2004), *Democratizar la democracia: los caminos de la democracia participativa*, Fondo de Cultura Económica, México.
- Tilly, Ch. (2010) *Democracia*, Akal, Madril.
- Torns, T., & Moreno, S. (2005). *De l'Estat del benestar al benestar quotidià*. Bellaterra.
- Torns, T., Borràs, V., Colom, S. M (2004). *La Vida quotidiana: exploració d'un marc conceptual i d'una proposta de [sic] indicadors*.
- Valcárcel Quirós, A. (1997). *La política de las mujeres*. Universitat de València.
- Verloo, M., & Van der Vleuten, A. (2009). «The discursive logic of ranking and benchmarking: Understanding gender equality measures in the European Union». *Lombardo et al, The Discursive Politics of Gender Equality. Stretching, Bending and Policy-Making*. London: Routledge, 169-185.
- Verloo, M. (2006) «Multiple inequalities, intersexuality and the European Union», in *European Journal of Women's studies* 13; 221.
- Walby, S. (2005). «Measuring women's progress in a global era». *International Social Science Journal*, 57(184), 371-387
- Yarza, I. M., & Peinado, J. M. (2003), «La pobreza humana y su feminización en España y las Comunidades Autónomas». *Reis*, 57-90.
- Young, I. M. (1990). *La justicia y la política de la diferencia*. Universitat de València.

6. ERANSKINAK

6.1 1. ERANSKINA: ADIERAZLE ESTRATEGIKOEN PARAMETRIZATZE FITXAK:

Jarraian 25 adierazle nagusien parametrizatze fitxak aurkeztu dira –Gobernantzaren 1. adierazleari dagozkionak izan ezik, 3.3.1 atalean xehetasunez azaldu baitira.

Irudia. Adierazleen parametrizatze ikonoak ulertzeko esanahia

Legenda



Esanguratsua emakumeen arteko barneko desberdintasuna aztertzeko



Esanguratsua emakumeen eta gizonen arteko arrakalaren ikuspegitik aztertzeko



Erabilgarria lurraldeen arteko balizko desberdintasunak aztertzeko



Adierazle berria edo birformulatua

2. Eremua. Jabekuntza

		2.1.1 Funtsezko Faktorea Autopertzepzioa		
2. adi.	Euren itxura fisikoa onartzeko arazorik ez duten emakumeen proportzioa			
Formula	(Euren itxura fisikoa onartzeko arazorik ez duten emakume kopurua/ Inkestatutako emakume guztiak)*100	Unitateak	Heina	Joera
Egjaztatze iturria	Osasun inkesta	Proportzioa	0-100	↓
Oharpenak	<p>Osasun eta Kontsumo Sailaren Osasun inkestan beste galdera bat sartzea proposatu da, adierazlea kalkulatu ahal izateko informazioa eskuratzeko.</p> <p>EJko Azterketa Soziologikoaren Bulegoaren EAEko emakumeen eta gizonen arteko iritzi desberdintasunei buruzko Ikuskerak 1 inkestan (2007) antzeko galderak sartu ziren sexualtasunari eta itxura fisikoari buruz, eta errepika litezke bilakaera baloratzeko.</p> <p>Interesgarria da emakumeen arteko desberdintasunak atzematea informazioa adinaren, ikasketa mailaren, nazionalitatearen eta errentaren arabera bereiziz.</p> <p>Bestalde, bizitzeko tokiak emakumeen autopertzepzioa baldintza lezake, gizarte, kultura eta ekonomia testuinguruagatik edo bizitzeko tokiaren testuinguruagatik, baita genero estereotipoak indartzen dituzten presio eragileak (adib. modako markak, estetika zentroak, kaleko iragarkiak, eta abar) egotearen lurralde-eraginagatik ere. Horregatik, EAE barruko lurralde desberdintasunak (hiri berberetako auzoen artean, hiria-landa, eskualdeen, udalen, aldundien artean, eta abar) aztertzeko interesgarria iritzi zaio adierazleari.</p>			
		Erakundea	Osasun eta kontsumo saila	

3. adi. Eguneroko jarduera pertsonalei dagozkien erabakietan kontrol maila handia dutela uste duten emakumeen proportzioa		2.1.2 Funtsezko Faktorea Norberaren eremuko erabakimena		
Formula (Eguneroko jarduera pertsonalei dagozkien erabakietan kontrol maila ertaina edo txikia dutela uste duten emakume kopurua/ Inkestatutako emakume guztiak)*100.		Unitateak Proportzioa	Heina 0-100	Joera ↓
Egiaztatze iturria Kapital sozialaren inkesta		Erakundea EUSTAT		
<p>Oharpenak</p> <p>Proposatutako adierazlea pertzepziozkoa da. Kontrol maila baloratzeko eskala Kapital Sozialaren Inkestan adierazle berbererako hartutakoa da. Hura hiru mailakoa izanda (txikia, ertaina eta handia), "ertaina" eta "txikia" mailen batura kontrol "ez handi"tzat hartu da.</p> <p>Interesgarria da emakumeen arteko barne desberdintasunak atzematea, adierazlea adin, nazionalitate eta bizilekuaren arabera bereiziz. Halaber, interesgarria litzateke ezagutzea inkestatutako emakumeak familia guneetan bizi diren eta zaintza lanak egiten dituzten, emakumeek euren eguneroko jarduera pertsonaletan duten kontrol maila nola kalkulatu den ulertzeko.</p> <p>FFaren adierazle osagarria:</p> <p>3C1: Euren sexu-desirei buruz hitz egitera ausartzen ez diren emakumeen proportzioa</p> <p>3C2: Ugalketari lotutako kontuetan (metodo antikontzeptiboak, laguntza bidezko ugalketa, seme-alaba kopurua, eta abar) erabakitzeko askatasuna dutela uste duten emakumeen proportzioa</p>				

2.1.3 Funtsezko Faktorea
Familia eremuko baliabideen gaineko erabakimena

4. adi. Emakumeak aurrekontu komunaren antolakuntzan parte hartzen duten familien proportzioa



Formula	Unitateak	Heina	Joera
(Emakumeek aurrekontu komunaren antolakuntzan parte hartzen duten familia kopurua/ Inkestatutako familia guztiak)*100	Proportzioa	0-100	↑
Egjaztatze iturria	Erakundea		
Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta	EUSTAT		

Oharpenak

Adierazlea Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako galdetegiko galdera baten bidez eraikitzen da («Nor arduratzen da aurrekontu komuna antolatzeaz?» eta honako erantzunak eman daitezke: i) batera; ii) pertsona nagusia; iii) ezkontidea edo bikotekidea; iv) etxeko beste pertsona bat).

Emakumeak aurrekontuaren antolamenduan parte hartzen duela onartzen da galderari («Nor arduratzen da aurrekontu komuna antolatzeaz?») honako erantzunetako bat ematen zaionean: i) «Batera»; ii) «pertsona nagusia» eta hura emakumea bada; iii) «ezkontidea edo bikotekidea» eta hura emakumea bada.

Etxeko eta zaintzako zereginen ardurua duela-eta, maiz eguneroko familia-aurrekontua kudeatzeko arduraduna emakumea dela kontuan izanda, negoziatzeko eta egiazko kontrola izateko duen gaitasunari balio handiegia eman lekiokela kontuan hartu behar litzateke. Adierazle egokiagoa izan liteke gastu garrantzitsuetara mugatzen dena, pobreziari edo kontsumoari buruz dauden inkestetan sartuz.

Zentzu horretan, beste datu iturri batzuetan (EINren Bizi baldintzei buruzko 2010eko inkestan, adibidez) bestelako erabakiei buruzko informazio zehatza eman da: erabaki garrantzitsu orokorrak hartzea, kreditua (hipotekak eta epekako erosketak barne) eskatzeari, aurrezkien erabilerari, kontsumo-ondasun iraunkor baten edo altzari baten erosketari, eta haurrei lotutako gastu handiei buruz erabakitzea. Inkesta horrek autonomia erkidegoen arabera bereizitako datuak eman arren, erabaki pertsonalak hartzeko gaitasunaren multzo horri buruzkoak ez daude erabilgarri webean. EINri zuzenean eskatuta EAeri buruzkoak lor daitezkeen ikusi behar litzateke. Euskadiko bizi baldintzei buruzko inkestan edo kontsumo estatistikan horri buruzko antzeko galderaren bat ere sar liteke.

Interesgarria da emakumeen arteko desberdintasunak atzematea etxeko emakumeari buruzko informazioa adinaren, ikasketa mailaren, nazionalitatearen, lan egoeraren, lan harremanaren eta errentaren arabera bereiziz.

Bestalde, bizilekuak ere emakumeak familiaren baliabide ekonomikoaren antolamenduan parte hartzea baldintza lezake. Horregatik, lurralde barruko desberdintasunak (hiri berberetako auzoen artean, hiria-landa, eskualdeen, udalen, aldundien artean, eta abar) aztertzeko interesgarria iritzi zaio adierazleari.

Adierazlea erabilgarria da beste autonomia erkidegoekin kanpoko konparazioak egin ahal izateko.

2.2.1 Funtsezko Faktorea
Errentaren eskuragarritasuna

5. adi. Bizitzeko baliabide nahikoak (errenta) dituzten emakumeen proportzioa



Formula (Errenta minimoa duten emakume kopurua/ Emakume guztien kopurua)*100	Unitateak Proportzioa	Heina 0-100	Joera ↑
Egiaztatze iturria Errenta pertsonal eta familiarraren estatistikak	Erakundea EUSTAT		

Oharpenak
Errenta minimoa honela definitu da: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI) (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, 2009) metodoaren arabera, bere azpitik emakumeak pobrezia-egoeran leudekeen errenta.

PGDIren metodoak norberaren errenta garbiaren medianaren % 40an ezarri du pobrezia-maila. Esan behar da EUROSTATen mantentzeko pobrezia-atalasea ere (sarrera garbien medianaren % 40 eta 70 artean pertsona baliokideko) erreferentziatzat har daitekeela, edo EAeko PGDIren xostenean proposatutako beste metodoak, lehenetsun eta norberaren errentari buruzko datu erabilgarrien arabera.

Interesgarria da emakumeen arteko desberdintasunak aztertzeke adierazlea lan egoeraren, jatorriaren eta prestakuntza mailaren arabera bereiztea, pobrezia-egoeran egoteko posibilitatea baldintzatzen dutelako.


Bestalde, bizilekuak lanaren, errentaren, prestakuntzaren eta zerbitzuen eskuragarritasuna eta, beraz, pobrezia-arriskua, baldintza ditzake. Horregatik, lurralde barruko desberdintasunak (hiri berberetako auzoen artean, hirialanda, eskualdeen, udalen, aldundien artean, eta abar) aztertzeke interesgarria iritzi zaio adierazleari.


Adierazlea erabilgarria da beste autonomia erkidegoekin kanpoko konparazioak egin ahal izateko.

FFaren adierazle osagarria:

- 5C1 Soldatapeko guztien artean irabazi txikiak dituzten emakumeen proportzioa
- 5C2 Emakume-biztanleriaren errenta-dispersioa

		2.2.2 Funtsezko Faktorea Bizigarritasun duineko baldintzen eskuragarritasuna			
6. adi.	Etxebizitza egokietan bizi diren emakumeen proportzioa				
Formula		Unitateak	Heina	Joera	
(Etxebizitza egokietan bizi diren emakume kopurua/ Inkestatutako emakume guztiak)*100		Proportzioa	0-100	↑	
Egiaztatze iturria		Erakundea			
Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI) edo Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI)		EUSTAT			
Oharpenak					
Adierazle hau kalkulatzeko honako bi aukerak erabil daitezke:					
<p>a) PGDIk etxebizitza bizigarria izateko beharrezkotzat jo diren bost elementuz galdetzen du. Honakoak dira: ur beroaren instalazioa, instalazio elektrikoa, irola, bainuontzia edo dutxa, hezetasunik gabeko etxebizitza lehorra, pertsonako 20m2 baino azalera erabilgarri handiagoa eta zaratarik edo kutsadurarik eza. Bestalde, batez ere etxetresna elektrikoei dagozkien ekipamenduak izateari buruzko datuak ere ematen ditu (hozkailua, sukaldea, garbigailua, labea edo mikrouhin-labea, ontzi-garbigailua, koloretako telebista, musika katea (edo antzekoa) eta hiztegia edo entziklopedia). Halaber, etxebizitzaren kontserbazio egoerari eta haren erosotasun eta kontserbazio mailari buruzko pertzepzioaz ere galdetzen du.</p> <p>b) BBIko galdetegian honako zerbitzuak hartu dira aintzat: ur beroa, aire-girogailua, trastelekua, horma-armairuak, zerbitzuko atea, ate blindatua, segurtasunezko sarraila, hodiz banatutako gasa, berogailu sistemaren bat. Haietatik, ur beroari, segurtasunezko sarrailari eta berogailu sistemaren bati deritzegu oinarritzkoak. BBI kontuan hartutako ekipamenduak elikagaiak prestatzeko, garbiketarako eta etxea mantentzeko etxetresnak dira batez ere: telefono finkoak, hozkailu-izozkailua, hozkailu hutsa, garbigailua, ontzi-garbigailua, bitrozeramikazko sukaldea, gas-labea, labe elektrikoa, lehorgailua, erabilera anitzeko robota, irabiagailu elektrikoa, haizagailua, zukugailu elektrikoa, mikrouhin-labea eta xurgagailua. Haietatik, BBIk (Emitzen analisiaren dokumentua) 4 jo ditu oinarritzotzat: telefono finkoa, hozkailu-izozkailua, garbigailua eta bitrozeramikazko sukaldea. Gainerakoak hautazkotzat jo ditu.</p> <p>Interesgarria da emakumeen arteko desberdintasunak aztertzeke adierazlea adinaren, errentaren, nazionalitatearen eta prestakuntza mailaren arabera bereiztea, pobrezia-egoeran egoteko arriskuan egotea eta, hortaz, bizigarritasun arazoak dituzten etxebizitzetan bizitzea baldintzatzen dutelako.</p> <p>Bestalde, barne bereizketako aipatu aldagaiek bizilekua baldintza dezaketenez gero, bizigarritasun arazoak dituen etxebizitzan bizitzeko arriskua ere baldintza dezakete. Horregatik, lurralde barruko desberdintasunak (hiri berberetako auzoen artean, hiria-landa, eskualdeen, udalen, aldundien artean, eta abar) aztertzeke interesgarria iritzi zaio adierazleari.</p> <p>Adierazlea erabilgarria da beste autonomia erkidegoekin kanpoko konparazioak egin ahal izateko.</p>					

		2.2.3 Funtsezko Faktorea IKTei buruzko gaitasunetako prestakuntzaren eskuragarritasuna		
7. adi.	Ordenagailuaren erabilera gaitasun aurreratuak dituzten emakumeen proportzioa			
Formula	(Gaitasun aurreratuak dituzten emakume kopurua/ Inkestatutako emakume guztiak)*100	Unitateak	Heina	Joera
Egiaztatze iturria	Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta	Proportzioa	0-100	↑
Oharpenak		Erakundea		
Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren (IGI) arabera, zehazki hari lotutako galdetegiko 326. galderan, ebatzi da azken hiru hiletan honako tresnetako baten bat erabili dutela diotenean dauzkatela ordenagailuaren funtzio jakin batzuen erabilera gaitasun aurreratuak emakumeek: kalkulu-orriak, datu-baseak eta berariazko programa informatikoak (adibidez, kontabilitatekoak, diseinu grafikokoak, bezeroen kudeaketakoak, salmentetakoak, eta abar).		EUSTAT		
<p>Erabileren gaitasun mailen arabera sailkapena eta inkestako galderari eman dakizkiokeen erantzunen kategoriak zabaldu egin daitezke. Halaber, IGIk 325.ari azpi-galdera bat eranstea gomendatu da, ordenagailua maiz ez erabiltzeko zioa ezagutza falta den jakiteko. 323. galdera ere nabarmendu behar da. Gutxienez 4 orduko ordenagailu ikastaroren bat egin den galdetzen du, baina ez da oso sendoa ikastaroak ordenagailua erabiltzeko gaitasun nahikoak eman ditueneko hipotesia ezartzeko.</p> <p>Interesgarria deritzogu adierazlearen emaitzak prestakuntza mailaren eta adinaren arabera bereizteari. Bestalde, lurraldekako analisiak berrets dezake udalen, lurraldeen, landa-hiri inguruneen... artean prestakuntza baliabideen eskuragarritasun aldeak dauden.</p>				

		2.3.1 Funtsezko Faktorea Erabaki-guneetarako irisgarritasuna		
8. adi.	Emakumeen presentzia zuzendaritza karguetan			
Formula	(zuzendaritza karguak dituzten gizonen % / zuzendaritza karguak dituzten emakumeen %)	Unitateak	Heina	Joera
Egiaztatze iturria	Lan-merkatuaren errolda	Proportzioa	0-1	↓
Oharpenak		Erakundea		
Lan-merkatuaren erroldan ezarritako Zuzendaritza Karguaren lanbide mailan zuzendariak, gerenteak eta goikoadroak/teknikari profesionalak sartu dira eta CNO-11 mailetan oinarritzen da; EUSTATEk proposatu bezala, honakoak sartuko lirateke:		Lan eta Gizarte Gaietako Saila		
<p>– Botere betearazleko eta legegintza-kidegoetako kideak; herri-administrazioko eta interes sozialeko erakundeetako zuzendariak; zuzendari exekutiboak (11. kod.)</p> <p>– Administrazio eta salmenta sailen zuzendariak (12. kod.)</p> <p>– Produzio eta eragiketen zuzendariak (13. kod.)</p> <p>– Ostatu, ostalaritza eta merkataritza enpresetako zuzendariak eta gerenteak (14. kod.)</p> <p>– Beste epigrafe batzuetan sailkatu gabeko zerbitzu enpresetako zuzendariak eta gerenteak (15. kod.)</p> <p>Ikus: http://www.eustat.es/documentos/codigos_c.html#axzz27rDH5nWS</p> <p>Interesgarria deritzogu analisirako adierazlea nazionalitatearen eta prestakuntzaren arabera bereizteari, aldagai horiek zuzendaritza karguak dituzten emakumeen proportzioan norainoko desberdintasunak dakartzaten aztertzeko.</p> <p>Adierazlea erabilgarria da beste autonomia erkidegoekin kanpoko konparazioak egin ahal izateko.</p>				

2.3.2 Funtsezko Faktorea
Emakumeen hitza eztabaida publikoan

9. adi. Emakumeek hedabideetako informazio eta eztabaida saioetan iritzi sortzaileak izateko duten presentzia



Formula	Unitateak	Heina	Joera
(Informazio eta eztabaida programetako emakume kopurua (aurkezle edo gonbidatu) / Haietako aurkezle eta gonbidatu guztiak)*100	Proporzioa	0-100	↑
Egiaztatze iturria Zehazteke	Erakundea Zehazteke		

Oharpenak

Informazio eta eztabaida saioetan emakumeek duten presentzia globala monitorizatzea proposatu da, aurkezle eta gonbidatu guztiekiko emakumeen proportzioa atereaz. Lehen urratsa litzateke hedabideak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegitik monitorizatzeko estrategian. Proposatutako adierazlea kalkulatzeko, monitorizatzeko interesa duten informazio eta eztabaida saioak identifikatu behar dira.

Hedabideen hastapeneko behaketa eta analisi ariketa horren ondoren beste adierazle batzuk monitorizatu behar direla uste da. Adierazle horiek, presentzia globalari ez ezik, hitza izateko denborari eta agertzen diren informazio motari erreparatu behar diete, eta hedabideen bidez eremu politiko eta sozialetan duten eginkizuna adierazi behar dute. *Consell de l'Audiovisual de Catalunya* egiten duena erreferentzia interesgarria da genero-ikuspegitik egindako monitorizatzeko sistema bati dagokionez.

(http://www.cac.cat/pfw_files/cma/actuacions/Continguts/IST_1_2009_Informe_pres_ncia_dones.pdf)





Interesgarria deritzogu analisirako adierazlea adinaren eta nazionalitatearen arabera bereizteari, aldagai horiek, emakumeek hedabideetan duten presentzian, norainoko eragina duten aztertzeke.

FFaren adierazle osagarria:

9C1 Emakumeen proportzioa azken urtean interneteko eztabaida politikoko foro edo talde batean parte hartu dutela dioten pertsonetikiko

9C2 Emakumeen proportzioa azken urtean hedabide batean gai politiko bati buruz duten iritzia adierazi izana (zuzendariarentzako gutunak, deiak irratitari,...) onartzen duten pertsonetikiko





		2.3.3 Funtsezko Faktorea Botere politikoan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua		
10. adi.	Emakumeek betetako erantzukizun publikoko kargu hautetsien proportzioa	   		
Formula		Unitateak	Heina	Joera
(Emakumeek betetako kargu hautetsien kopurua/ Kargu hautetsi guztiak)*100		Proportzioa	0-100	↑
Egiaztatze iturria		Erakundea		
Zifrak: Eusko Legebiltzarra, EUDEL, BAO, GAO eta ALHAO		EMAKUNDE		
Oharpenak				
EAEko erakunde legegileetako (Eusko Legebiltzarra, Foru Aldundien Batzar Nagusiak eta Udaletako zinegotzitzak) kargu hautetsiak hartu dira aintzat.				
Interesgarria da Eusko Legebiltzarrari buruzko datuak lurralde historikoen eta alderdi politikoaren arabera bereiztea, emakumeen presentziari dagozkion aldeak ikusi ahal izateko. Analisia legebiltzarreko organoetara ere eraman daiteke (legebiltzarreko mahaia, bozeramaileen batzordea, batzordeak (azken horien barruan batzordeen gaien arabera ere bai)) (Emakunde, 2009). Batzar Nagusiei buruzko datuak lurralde historikoen eta alderdien arabera bereiz daitezke. Udalei dagokienez ere, alderdi politikoaren arabera bereiz daitezke.				





		2.3.4 Funtsezko Faktorea Presentzia parte-hartze sozialeko guneetan		
11. adi.	Emakumeen proportzioa aurreko urtean sindikatu, gizarte mugimendu, auzo-elkarte, alderdi edo bestelako talde antolatu batean erabaki publikoetan eragiten ahalegintzeko parte hartu duten pertsona guztiekiko	   		
Formula		Unitateak	Heina	Joera
(Sindikatu edo bestelako talde antolatu batean erabaki publikoetan eragiten ahalegintzeko parte hartu duten emakume kopurua/ Sindikatu edo bestelako talde antolatu batean erabaki publikoetan eragiten ahalegintzeko parte hartu duten pertsona guztiak)*100		Proportzioa	0-100	↑
Egiaztatze iturria		Erakundea		
Ikuskerak 4 txostena (ez da aldi behingoa)		Azterketa soziologikoen bulegoa		
Oharpenak				
Parte-hartze eremu antolatu sorta hedatu asmoz, adierazlearen jatorrizko formulazioa zabaltzea proposatu da, galderan parte-hartze antolatuko gune guztiak zehaztuz.				
Interesgarria da parte-hartze sozialari dagokionez emakumeen arteko desberdintasunak atzematea, informazioa adinaren, ikasketa mailaren, nazionalitatearen eta errentaren arabera bereiziz. Analisi zehatzago baterako, datuak aintzat hartutako erakunde moten arabera (sindikatu, gizarte mugimendua, auzo-elkarteak, alderdiak, eta abar) bereiztea gomendatu da, ikusteko haietako zeinetan dagoen emakumeen parte-hartze handiagoa.				
FFaren adierazle osagarria:				
11C1 Partaidetza soziopolitiko maila handia (hiru mailaren artean) duten emakumeen proportzioa				

		2.4.1 Funtsezko Faktorea Genero-estereotipoak gainditzea		
12. adi.	Sexuaren araberako bereizketa derrigorrezkoak ez diren ikasketen hautaketan			
Formula	(Sexuetako baten % 25 baino presentzia txikiagoa duten EAEko unibertsitate eta lanbide heziketako ikasketak/ unibertsitate eta LHko ikasketa guztiak)	Unitateak	Heina	Joera
Egiaztatze iturria	Unibertsitate Irakaskuntzaren Estatistika eta Unibertsitateaz kanpoko Irakaskuntzen Estatistika	Proporzioa	0-1	↓
Oharpenak		Erakundea		
Adierazleak zentro publiko eta pribatuek emandako LHko ikasketak (lehen eta bigarren mailak barne) eta unibertsitate ikasketa guztiak (diplomaturak, lizentziaturak, graduondokoak eta doktoregoak barne) bildu ditu. Presentziarako matrikulatutako pertsonak hartu dira.		EIN		
<p>%25 EMAKUNDEK erabilitako analisi estandarri dagokio (ZIFRAK, 2011). % 25 atalase orientagarri gisa ezarri da, baina beste aukera batzuk ere balora litezke, hala nola % 30 edo are % 20. Izan ere, 2010ari buruzko Zenbakiak txostenean, Lanbide Heziketaren kasuan % 20 ezarri da, segregatuago dagoelako, eta unibertsitateetan % 25. Gure ustez, % 20 ezartzeak ikasketetako segregazioaren benetako tamaina gutxietsiko luke; beraz, % 25 eta 30 artean hauta liteke, hautatzekotan.</p> <p>Adierazlea erabilgarria da beste autonomia erkidegoekin kanpoko konparazioak egin ahal izateko.</p>				

		2.4.2 Funtsezko Faktorea Feminizatutako jardueren balorazio soziala		
13. adi.	Soldata-arrakala feminizatuen eta maskulinizatuen dauden jarduera arloen artean			
Formula	$\left(\frac{5 \text{ jarduera arlorik feminizatuenetako batez besteko soldaten batura} / 5 - (5 \text{ jarduera arlorik maskulinizatuenetako batez besteko soldaten batura} / 5)}{5 \text{ jarduera arlorik maskulinizatuenetako batez besteko soldaten batura} / 5} \right)$	Unitateak	Heina	Joera
Egiaztatze iturria	Biztanleria Aktiboaren Inkesta eta Soldata Egituraren Inkesta	Proporzioa	0-1	↓
Oharpenak		Erakundea		
<p>Proposatutako adierazlea jarduera arlorik feminizatu eta maskulinizatuen arteko desberdintasun-arrakalaren adierazlea da (EJSN-2009). Formulazio zehatza 5 jarduera adarrak (EJSN-2009 2 digitu) feminizatu eta maskulinizatuenetako urteko batez besteko irabazien batez bestekoan dagoen aldea kalkulatzeko datza (hiru hilean behingo datuak aintzat hartzea baztertu da, jarduera batzuen, hala nola nekazaritzaren, sasoikotasunerako joera saihesteko). Soldata Egituraren Inkestaren bidez, arlo feminizatu eta maskulinizatuen arteko soldaten balioen arteko aldea kalkulatzeko iradoki bada ere, maila horretan ez da lortu sexuaren arabera bereizita dagoen jarduera arloen arabera daturik lortu, atalka batutakoak baizik. Zentzu horretan, datu zehatzago horiek eskuratzeko lortzen ez bada, bi sektore segregatuenetako batez besteko irabazien arteko aldea kalkulatu da (2009rako eta espainiar Estatu osorako, sektore horiek B –Erauzketa-industriak, emakumeak % 8 izanik– eta T –Familien jarduerak, etxeko langileen enplegatzaile eta euren erabilerarako ondasun eta zerbitzuen ekoizle, emakumeak % 91 izanik– dira). Halaber, garrantzitsua da erakustea –2 digituko zehaztapenarekin– maskulinizazio maila handia –% 15eraino– duten jarduera adarrak (17 adar: 7, 5, 8, 43, 41, 3, 33, 24, 2, 42, 39, 38, 49, 25, 16, 45, 23, segregazio handiagotik txikiagora ordenatuta) feminizatze maila handia dutenak (2 adar, 99 eta 88) baino gehiago direla.</p> <p>Adierazlea erabilgarria da beste autonomia erkidegoekin kanpoko konparazioak egin ahal izateko.</p>				

3. eremua. Gizarte antolamendu erantzunkidea

		3.1.1 Funtsezko Faktorea Oreka lan-zama osoan		
14. adi.	Genero-arrakala eguneko lan-zama osoan (lan ordaindua + etxeko eta zaintzako lana + lan mota biek behartutako mugikortasuna)	   		
Formula	(Gizonen lan-zama osoa-Emakumeen lan-zama osoa)/ Gizonen lan-zama osoa	Unitateak	Heina	Joera
Egiaztatze iturria	Denbora Aurrekontuen Inkesta	Proporzioa	0-1	↓
Oharpenak		Erakundea		
Lan-Zama Osotzat astean lan ordainduan, etxeko lanean, zaintzako lanean eta hiru lan motak egiteko joan-etorrietan emandako batez besteko orduak hartzen dira. Emakunderen arabera, Lan-Zama Osoa (LZO) lan ordainduan emandako eta etxeko eta zaintzako lanean emandako denboraren batura da (ikus Tratu-Berdintasunaren Behatokia). LZOren barruan hiru lan motak, zaintzako barne, egiteko joan-etorriak sartzea proposatu da. Jatorria, etnia, adina.		EUSTAT		
Datuak errenta mailaren arabera bereiztea iradoki da, baliabide ekonomikoak eskuratzeak, etxeko eta zaintzako lana kontratatu ahal izatean, LZO noraino murrizarazten duen atzeman ahal izateko.		Adierazlea erabilgarria da beste autonomia erkidegoekin kanpoko konparazioak egin ahal izateko.		
FFaren adierazle osagarria:				
14C1 Kotizaziopeko alargun-pentsioen balio erlatiboa kotizaziopeko erretiro-pentsioekiko				

		3.1.2 Funtsezko Faktorea Lan ordainduaren banaketa		
15. adi.	Genero-arrakala kotizatutako batez besteko urteetan	   		
Formula	(Gizonek Gizarte Segurantzari kotizatutako batez besteko urteak– emakumeek Gizarte Segurantzari kotizatutako batez besteko urteak)/ Gizonek Gizarte Segurantzari kotizatutako batez besteko urteak	Unitateak	Heina	Joera
Egiaztatze iturria	Kotizazio urteak	Proporzioa	0-1	↓
Oharpenak		Erakundea		
Gizarte Segurantzari kotizatutako urteek pertsonen lan ordainduan jardundako aldia islatzen dute. Adierazlea arrakalakoa da; izan ere, emakumeek Gizarte Segurantzari kotizatutako urteen eta gizonezkoek kotizatutako arteko aldea erakusten du.		Gizarte Segurantzaren Diruzaintza		
FFaren adierazle osagarria:				
15C1 Gehiegizko lana duten langileen proporzioa				
15C2 Genero-arrakala eguneko ordaindutako lan-zaman				

3.1.3 Funtsezko Faktorea
Ordaindu gabeko lanaren banaketa

**16. adi. Emakumeek egindako etxeko
produkzioaren pisua etxeko
produkzioaren guztizko balioarekiko**



Formula	Unitateak	Heina	Joera
(EKSn sartuta ez dagoen emakumeek egindako etxeko produkzioaren balioa/ Guztizkoa)*100	Proporzioa	0-100	↓
Egiatzatze iturria	Erakundea		
Etxeko Produkzioaren Kontu Sateliteak	EUSTAT		

Oharpenak

Emakumeek egindako ordaindu gabeko etxeko eta zaintzako lan proportzioaren berri ematen du adierazle honek, haren balio ekonomikoaren ikuspuntutik. Hura murriztu eta gizonezkoek egindako proportzioarekin orekatzen den heinean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun handiagoa dagoela uste da.

Denbora Aurrekontuen Inkestaren arabera (EUSTAT), pertsonak familian zaintzeko jarduera familiako adin txikikoak edo nagusiak zaintzeko ordaindu gabeko jarduerak dira; zaintza horien artean, lagun-egiteko, entrenitzeko, laguntzeko eta begiratzeko jarduerak sartu dira. Epigrafe hau, Etxeko lanekin batera, Etxeko Produkzioaren Kontu Satelitea kalkulatzeko oinarria da.

Bestalde, etxeko lana familiaren eta haren kideen mantenu eta ongizaterako egindako ordaindu gabeko jarduerari dagokie; haien artean, eguneroko jarduerak sartu dira, hala nola otorduak prestatzea, arropa garbitu eta lizatzea, erosketak egitea, eta ezohiko jarduerak ere bai, hala nola konponketak, mantenua, landareak eta animaliak zaintzea edo gestio administrazioak, hala nola lana bilatzea.

Kalkulu fidagarriago baterako lanegunetan OGLetan emandako denborak aintzat hartzea gomendatu da.

Adierazlea arrakalaren ikuspegitik formulatuta egon arren, interesgarria da datuak bereizi ahal izatea eta sexuaren araberako adierazlea beste aldagai batzuei lotu ahal izatea; haien artean, honakoak leudeke:


- etxeko lanetan denbora ematen duten pertsonen jarduera, aztertzeko pertsona okupatuek zer neurritan ematen duten denbora gutxiago etxeko lanetan.
- bizi zikloa, hots, pertsona dagoen etapa, ikusteko zer neurritan azal ditzakeen horrek emakumeen eta gizonen arteko alde txikiagoak.

Adierazlea erabilgarria da beste autonomia erkidegoekin kanpoko konparazioak egin ahal izateko.

FFaren adierazle osagarria:


16C1 Etxeko eta etxean pertsonak zaintzeko ordaindu gabeko lanean gizonek emandako batez besteko orduen proportzioa emakumeek emandakoekiko


16C2 Lanaldi partzialaren eta zaintzako arduren arteko erlazioa gizon eta emakumeengan


		3.2.1 Funtsezko Faktorea Birbanaketa-politikak		
17. adi.	Genero-arrakala txirotasun-arriskua gizarte transferentziei esker murriztean			
Formula	(Emakumeen pobrezia tasa gizarte transferentzien aurretik – Emakumeen pobrezia tasa gizarte transferentzien ondoren) / (Gizonen pobrezia tasa gizarte transferentzien aurretik – Gizonen pobrezia tasa gizarte transferentzien ondoren)	Unitateak Proporzioa	Heina 0-100	Joera ↓
Egiaztatze iturria	Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta	Erakundea EUSTAT		
Oharpenak				
<p>Pobrezia-adierazlearen ordez ongizate ezaren adierazlea aintzat hartzea proposatu da, emakumeen eta gizonen arteko alde handiagoa duelako (ikus JLGSS, 2009:79). PGDIk ezarri bezala (JLGSS, 2009:79), transferentzia aurreko pobrezia tasa edozein transferentziaren aurreko hasierako errentari aplikatzen zaio (norberaren zuzeneko jarduera ekonomiko motaren bati lotutako sarrerak bakarrik hartuta). Transferentzia ondorengo pobrezia tasa sarrera erabilgarri mota guztiei aplikatzen zaie eta, beraz, norbanakoen transferentziak eta sistema publikoaren gainerako transferentziak jasotzen dira, bai gizarte laguntzari dagozkionak (oinarizko errenta, GLL, eta abar), bai gizarte segurantzari eta langabeziari dagozkienak (langabezia-prestazioa, familiarentzako babesa, zaintzapeko seme-alaba bakoitzeko prestazioak, gaixotasun-prestazioak, baliaezintasun-prestazioak 65 urtez azpiko kasuan, eta enpresa-birmoldaketatik edo –berregituraketatik eratorritako aurre-erretiroak).</p> <p>Hartutako pobrezia tasa PGDIren metodoarekin kalkulaturakoa da, baina beste erkidego batzuekin erkatu ahal izateko EUROSTAT metodoa erabil daiteke. Berretsi egin behar litzateke PGDEko datuetatik kalkula daitekeen, sexuaren arabera adierazleak kalkulatu diren arren, familiei buruzko inkesta bat delako, eta horrek zailtasunak edo distortsioak eragin ditzakeelako. Printzipioz, EINren Bizi Baldintzei buruzko Inkestako autonomia erkidegoen arabera datuetatik ere kalkula daiteke, baina ezin izan dugu bereizketa maila hori aurkitu (Kataluniako IDESCATen, adibidez, kalkulu hori egiten da).</p>				

		3.2.2 Funtsezko Faktorea Lan-berdintasuna		
18. adi.	Soldata-arrakala			
Formula	(Soldatapeko gizonen orduko batez besteko irabazia – soldatapeko kumeen orduko batez besteko irabazia)/ soldatapeko gizonen orduko batez besteko irabazia	Unitateak Proporzioa	Heina 0-1	Joera ↓
Egiaztatze iturria	Soldata egituraren inkesta	Erakundea EIN		
Oharpenak				
<p>Adierazlea tasa gisa formulatzea hautatu da gizonen soldatarekiko balio erlatiboa izateko. Era berean, feminizatze indize gisa ere formula liteke (Emakumeen batez besteko irabazia/ Gizonen batez besteko irabazia), 0 eta 1 arteko balio bat izateko, haren helburua maximizatzea izanda.</p> <p>Interesgarria da adierazlea nazionalitatearen arabera bereizi ahal izatea, emakumeen arteko desberdintasunak atzemateko. Emakunderen arabera (2001), atzerritarren batez besteko errenta pertsonala espainiar nazionalitatea dutenena baino askoz txikiagoa da, emakumeei zein gizonei dagokienez. Feminizatze indizea handiagoa da Espainiako edo Ipar Amerikako nazionalitatea duten pertsonen errenta pertsonalean gainerako taldeenean baino.</p> <p>Adierazlea adinaren eta ikasketa mailaren arabera bereizteak emakume taldeen artean sarreren banaketan dauden desberdintasunak berrets ditzake.</p> <p>Adierazlea erabilgarria da beste autonomia erkidegoekin kanpoko konparazioak egin ahal izateko.</p>				


		3.2.3 Funtsezko Faktorea Sektore estrategikoetako berdintasuna: I+G		
19. adi.	Jarduera zientifikoetan diharduten emakumeen proportzioa (AOB)			
Formula	(I+Gn diharduten (AOB) emakumeen kopurua/ I+Gn diharduten (AOB) pertsona guztiak)*100	Unitateak	Heina	Joera
Egiaztatze iturria	Zientzia ikerkuntza eta teknologia garapeneko jarduerari buruzko estatistika txostena	Proporzioa	0-100	↑
Oharpenak	<p>Zientzia ikerkuntza eta teknologia garapeneko jardueretan zuzenean okupatutako emakume guztiak bildu dira, erantzukizun maila bereizi gabe, I+G jarduerak administratu eta zuzentzen dituztenak eta I+G lanei zuzenean lotutako zerbitzuak burutzen dituztenak barne, hala nola, laborategi edo ikerkuntza liburutegietako laguntzaileak, ikerkuntza unitate edo zerbitzuei atxikitako administrazio langileak, langile espezializatuak edo ez espezializatuak, eta abar Kanpoan utzi dira zeharkako zerbitzuak egiten dituztenak, hala nola segurtasuneko langileak, eta abar.</p> <p>Arduraldi Osoko Baliokidetzako (AOB) langileak sartu dira: Arduraldi osoko langileak eta arduraldi partzialeko langileak I+G jardueretan ematen dituzten denbora zatiak batuz ateratzen da.</p> <p>Emakume batzuk I+Gko lanpostuetara iritsi ahal izatea baldintza lezake prestakuntza mailak. Horregatik, interesgarria da aldagaia aintzat hartzea adierazlearen azterketa desagregatua egiteko, emakumeen artean prestakuntza mailaren arabera egon daitezkeen aldeak erakuts baititzake.</p> <p>Bestalde, sektorean emakumeen okupazioan dauden lurraldeen arteko desberdintasunak erakusteko interesgarria deritzogu adierazleari, I+G jarduera gehien darabilen enpresa-sareak banaketa desorekatua duelako EAEko lurraldeetan, eta gasturik handiena Bizkaian eta Gipuzkoan pilatzen delako.</p> <p>Adierazlea erabilgarria da beste autonomia erkidegoekin kanpoko konparazioak egin ahal izateko.</p>			
		Erakundea		
		EUSTAT		





		3.3.1 Funtsezko Faktorea Zaintzarako baliabide publikoak		
20. adi.	EAEn epe luzerako zaintza-politiketarako erabiltzen den BPGd-aren proportzioa			
Formula	EAEn epe luzerako zaintza-politiketarako erabiltzen den BPGd-aren proportzioa-ELGAko herri guztietan epe luzerako zaintza-politiketarako erabiltzen den BPGd-aren batez besteko proportzioa	Unitateak Proportzioa	Heina 0-100	Joera ↑
Egiaztatze iturria	EUSTAT eta ELGA	Erakundea Adierazlearen iturria: ELGA (Health at a Glance, 2011. ELGA)		
Oharpenak				
<p>Epe luzerako zaintza-politiketarako erabilitako BPGd-ren zatia zaintza-politiketarako erabilitako gastu publikoaren zatia da, osasunari eta gizarte arretako gastuari dagokiena barne. Osasun gastuan, Osasun Kontuen Sistemaren arabera, arazo kronikoak dituzten gaixoei emandako osasun laguntzako gastua sartu da, eguneroko eta norberaren zaintzako jardueretan (adib., jatea, garbitzea eta janzea) lagun egitekoa barne. Zaintza aringarriak ere sartu dira. Gizarte arretako gastuan muga funtzionalak dituzten pertsonentzako egoitza-zerbitzuetako eta babespeko bestelako ostatu motetako gastua, eguneroko jardueretarako laguntza (adib., erosketak egin, otorduak prestatu, garbiketa zerbitzuak, eta abar) eta eguneko arretako gizarte zerbitzuak (adib., mendeko pertsonentzako gizarte jarduerak, garraioa haurtzaindegietara eta haurtzaindegietatik, besteak beste) sartu dira.</p> <p>Adierazle horri esker EAEk beste herri batzuekiko edo EBko herrietako batez bestekoarekiko zaintza-politiketarako erabilitako gastu publikoan (BPGd-ren proportzioa) duen aldea erka daiteke.</p> <p>FFaren adierazle osagarria:</p> <p>20C1 Prestaziorako eskubidea daukaten eta hura jaso duten onuradunen proportzioa (mendekotasun mailaren arabera)</p> <p>20C2 Familiaren nahiaz besteko arrazoiengatik haurtzaindegi edo ikastetxe batean arretarik ez duten 0 eta 2 urte arteko biztanleen proportzioa</p>				





		3.3.2 Funtsezko Faktorea Enpresetako kontziliazioa		
21. adi.	Baimenak eskatzeko zailtasunak dituela uste duen biztanleria okupatua			
Formula	(Baimenak eskatzeko zailtasun maila ertaina edo handia dutela uste duten pertsona kopurua/ Inkestatutako pertsona guztiak)*100	Unitateak Proportzioa	Heina 0-100	Joera ↓
Egiaztatze iturria	Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta	Erakundea EUSTAT		
Oharpenak				
<p>Adierazleak pertzepzioa neurtzen du. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkestan baimenak eskatzeko zailtasun maila 0 eta 10 arteko eskala batean baloratu da. 0k batere ez esan nahi du, eta 10ek mailarik handiena. Ondoren, Eustatek zailtasunari lotutako hiru mailatan sailkatu du Inkestako puntuazio eskala hori: txikia, ertaina eta handia: Lanik eta soldatarik gabeko egunak, eszedentziak, lanaldien murrizketa eta unean uneko hutsegiteak sartu dira baimenetan.</p> <p>Adierazlea erabilgarria da beste autonomia erkidegoekin kanpoko konparazioak egin ahal izateko.</p> <p>FFaren adierazle osagarria:</p> <p>21C1: 16 eta 64 urte arteko soldatapekoak familia zioak direla-eta lanaldiaren hasiera edo amaiera gutxienez ordu batean aldatzeko duten posibilitatearen arabera</p>				

		3.2.3 Funtsezko Faktorea Zaintza errazteko lurralde antolamendua		
22. adi.	Hurbiltasuneko zerbitzuak eta ekipamenduak eskura ditzaketen pertsonen proportzioa			
Formula	(Euren inguruan eguneroko bizirako funtsezko baliabideak dauzkaten pertsona kopurua/Pertsona guztiak)*100	Unitateak Proportzioa	Heina 0-100	Joera ↑
Egiaztatze iturria	Bizi baldintzei buruzko inkesta	Erakundea EUSTAT		
Oharpenak Adierazlea etxebizitzatik oinez gehienez ere 10 edo 20 minutura dauden zerbitzuen artean bereiz daiteke. BBik ezarritako 8 kategorietatik (farmazia, hiribusaren geralekua, ambulatorioa, lehen hezkuntzako ikastetxea, haurtzaindegia, parkea edo lorategia, liburutegia, kiroldegia) 6 eskuragarri izateari iritzi zaio zerbitzuak edo ekipamenduak eskura izatea. Analisisirako interesgarria da adierazlea errentaren eta jatorriaren arabera bereiztea, haiek baldintzatzen dituztelako eskura daitezkeen etxebizitza mota, bizitzeko ingurua eta, beraz, gertuko zerbitzu eta ekipamenduen eskuragarritasuna. Hirigintza ereduak eta lurraldearen plangintzak gertuko zerbitzu eta ekipamenduen eskuragarritasuna baldintzatzen dituztenez gero, uste da adierazlea interesgarria dela lurraldeen arteko aldeak aztertzeko (hiri berberetako auzoen artean, hiria-landa, eta abar). Adierazlea erabilgarria da beste autonomia erkidegoekin kanpoko konparazioak egin ahal izateko.				

4. eremua. Emakumeen aurkako indarkeria

		4.1.1 Funtsezko Faktorea Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea		
23. adi.	Azken urtean indarkeria motaren bat pairatu duten emakumeen proportzioa			
Formula	(Azken urtean indarkeria motaren bat pairatu duten emakumeen kopurua/ Inkestatutako emakume guztiak)*100	Unitateak Proportzioa	Heina 0-100	Joera ↓
Egiaztatze iturria	EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko inkesta	Erakundea Barne Saila		
Oharpenak Indarkeria motak hitzaren esanahi zabalean identifikatutakoak dira, eta indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomia eta finantzakoa, soziala eta sotila sartu dira. Adierazlea kalkulatzeko aintzat hartu diren indarkeria eremuak Barne Sailak identifikatutakoak dira (BS, 2012:9): bikotekide/ bikotekide ohiaren indarkeria, familia barruko indarkeria, lan eremuko indarkeria eta gizarte eremuko indarkeria. Adierazlea adinaren, ikasketa mailaren, errentaren, egoera zibilaren eta indarkeria motaren arabera bereizteak emakumeen artean indarkeriaren eraginetan dauden desberdintasunak berrets ditzake. Halaber, interesgarria izan daiteke adierazlea lan jarduerari lotutako egoeraren arabera bereiztea, okupazioak edo desokupazioak indarkeria mota batzuen alde zer neurritan egin dezaketen identifikatzeko. FFaren adierazle osagarria: 23C1: Egun indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen proportzioa, hura duela urte bat eta hamar urte artean gertatzen ari delarik				

		4.2.1 Funtsezko Faktorea Indarkeriako egoeran dauden emakumeek indarkeria identifikatzea		
24. adi.	Pairatzen duten indarkeria egoera identifikatzen ez duten emakumeen proportzioa	   		
Formula	(Indarkeria pairatu izana onartzen duten emakume kopurua / Indarkeria pairatu duten emakume guztiak)*100	Unitateak Proportzioa	Heina 0-100	Joera ↑
Egiaztatze iturria	EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko inkesta	Erakundea Barne Saila		
Oharpenak				
<p>Hala, interesgarria da Aitortutako indarkeriaren eta pairatutako indarkeriaren (edo «teknikoaren») arteko alde horren (24. adi.) bilakaera monitorizatu ahal izatea. Horren bidez, indarkeria pairatu duen zuzenean galdetuta indarkeria gisa identifikatzen edo adierazten denaren eta errealitate ezkutuaren arteko aldea identifikatu nahi da. Errealitate ezkutua sarritan hainbat indarkeria-egoerak nozitu izanetik eraikitzen da, eta egoera horietaz banaka galdetzen da. Barne Sailak 2012an egindako inkestako datuen arabera, adibidez, aldea 16,2 puntukoa da (emakumeen % 2k onartu zuten egun indarkeriaren biktimak sentitzea, eta portzentajea emakumeen % 18,2 zen).</p> <p>Interesgarria da adierazlea adinaren, ikasketa mailaren, errentaren, egoera zibilaren, nazionalitatearen eta indarkeria motaren arabera bereiztea aztertzekeo aldagai horiek zer neurritan azal ditzaketen emakumeen artean indarkeria onartzeko dauden aldeak. Nazionalitatea azpimarratu nahi dugu, kode kultural eta erlijioso batzuek baldintza dezaketelako emakumeak eremu desberdinetan pairatzen dituzten indarkeria mota jakin batzuekin jabetzea.</p>				

		4.2.2 Funtsezko Faktorea Gizarte-tolerantziaren murrizketa		
25. adi.	Emakumeek eurek eragindako emakumeen aurkako indarkeria kasuak daudela esatearekin ados dauden pertsonen proportzioa	   		
Formula	(Emakumeek eurek eragindako emakumeen aurkako indarkeria kasuak daudela esatearekin ados dauden pertsona kopurua/ inkestatutako pertsona guztiak)*100	Unitateak Proportzioa	Heina 0-100	Joera ↓
Egiaztatze iturria	EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko inkesta	Erakundea Barne Saila		
Oharpenak				
<p>Interesgarria da adierazlea adinaren, sexuaren, ikasketa mailaren, lan jarduerarekiko erlazioaren (okupatua, erretiratua, eta abar), errentaren, posizio politikoaren (eskuma/ erdia/ ezkerra) eta nazionalitatearen arabera bereiztea aldagai horiek indarkeria zuzitzen duen mitoa egoteko desberdintasun sozialak zer neurritan azal ditzaketen aztertzekeo. Nazionalitatea azpimarratu nahi dugu, kode kultural eta erlijioso batzuek baldintza dezaketelako emakumeak eremu desberdinetan pairatzen dituzten indarkeria mota jakin batzuekin jabetzea.</p> <p>Bestalde, adierazlea bizi den herriaren tamainaren arabera bereizteari ere lehentasuneko deritzogu, aztertzekeo mitoa mota horiek zer neurritan izan daitezkeen ohikoagoak herri txikietan. Balizko lotura hori gizarte desagregazioko aldagai batzuei, hala nola adinari eta ikasketa mailari ere lotuta legoke.</p>				

6.2 2. ERANSKINA: XEHETASUN METODOLOGIKOAK

Adierazleek euren helburuekiko dituzten erabilgarritasuna eta garrantzia bermatzeko, ezarri den lan-metodologiak eztabaida eta laguntza esparruak ezarri nahi izan ditu Emakunderekin eta Eusko Jaurlaritzako Saitetako berdintasun-agenteeekin.

Metodologiak honako 5 faseei jarraitu die, zeinek bere helburuak dauzkalarik:

Faseak	Faseen helburuak
1. fasea: Adierazle-sistemaren esparrua, helburuak eta irismena ezartzea	1.1.helb. Emakunderekin metodologia eta partaidetza prozesua ezarri eta zehaztea. 1.2.helb. EAE-EGBPetako adierazle-sistemaren ahultasun operatibo nagusiak aurkitzea. 1.3.helb. EAE-EGBPetako adierazle-sistema hedatzeko haien irismena, berariazko helburuak eta ezaugarriak ezartzea.
2. fasea: Adierazleak (sinpleak eta nazioarteko sintesikoak) hautatu eta parametrizatzea	2.1.helb. EAE-EGBPetako adierazle esanguratsu eta operatiboan zerrenda ezarri Emakunderen eta sailen partaidetzarekin. 2.2.helb. Ezarritako adierazle zerrenda parametrizatzea.
3. fasea: Sistemaren konfigurazio grafikoa	3.1.helb. Adierazleak grafikoki irudikatzen tresna bat diseinatzea haiek interpretatzen laguntzeko.
4. fasea: Sistemaren aurkezpena eta azken ekarpenak	4.1.helb. Emakunderekin diseinatutako adierazle-sistema eztabaidatu eta ixtea. (Egokia iritiz gero, sailekin egindako aurkezpena eta eztabaida sartu).
5. fasea: Azken txostena egin eta ematea	5.1.helb. EAE-EGBPetako adierazle-sistema operatibizatua ematea.

1. fasean –Sistemaren esparrua, helburuak eta irismena ezartzea–, berariazko erreferentzia-esparrua finkatu (funtsezko dimentsioak eta dimentsio horien baitako helburu estrategikoak), eta haren gainean eraiki da adierazle-sistema. Esparrua garatzeko, berdintasunerako politiken helburuak berrikusi eta zenbait alderdi, eremu edo gai identifikatu dira, azken urteotan haietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oso handitu edo murriztu dela sumatu denean. Erreferentzia-esparrua ezartzeko honako jarduerak burutu dira (ikus 2. irudia):

- *Lan saioa Emakunderekin.* Saio horren helburuak prozesua eta espero zen emaitza bideratzea izan ziren (dimentsionalizatzea, lana sailekin, gauzatze erabilgarriaren maila, parametrizatzea, erantzukizunak zehaztea, eta abar).
- *Tailerra Eusko Jaurlaritzako sailetako berdintasun-agenteeekin.* Tailerrak honako helburuak izan zituen: i) EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak ebaluatzeko erreferentzia-esparrua diseinatzeko prozesuaren emaitzak partekatzea eta ii) erreferentzia-esparruan berdintasun-agenteen eta Emakunderen ezagupenak eta lehentasunak sartzea.


Tailerrean erreferentzia-esparruaren helburu eta dimentsioetarako funtsezko faktoreak identifikatzeko eztabaidatu zen. Tailerra dinamizatzen metodologiari

dagokionez, bi lan-talde antolatu eta dimentsio eta helburu desberdinei heldu zieten, aldez aurretik egindako eduki fitxa batzuk erabiliz (ikus Eranskinak).

2. fasean –Adierazleen hautaketa eta parametrizatzea– atariko adierazle proposamen bat egin da, EAEn, Estatuan eta nazioartean dauden adierazle-sistemak eta datu-baseak aztertu ondoren. Atariko proposamena eztabaidatzeko honako jarduerak burutu dira (ikus 2. irudia):

- *Kontsultak edo elkarrizketak adituei*⁶⁰; emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko adituak ziren eta, zehazkiago, eskarmentua zuten lehentasunik handiena eman zaien helburuen gai zehaztutan (xehetasun gehiago Eranskinetan).
- *Lan saioa Emakunderekin* adierazle proposamena eztabaidatzeko eta proposatutako adierazleen erabilgarritasuna eta bideragarritasuna elkarrekin baloratzeko (ikus 6. Eranskina). Saio hartan adierazleak identifikatzeko eta funtsezko faktoreekin duten lotura baloratzeko ekarpenak egin ziren eta hutsuneak eta aukerak aurkitu ziren. Haien parametrizatzeari buruzko hausnarketa ere aberastu zen.

2. irudia. Burututako kontsulta-jarduerak



3. fasean –Sistemaren konfigurazio grafikoa–, adierazle bakoitzaren parametrizatzea fitxa eta Excel matrize banatan sistematizatu da. Haien monitorizatu eta haien emaitzak sistematizatzen diren unean grafikoki irudikatzea erraztuko du horrek.

4. fasean –Sistemaren aurkezpena eta azken ekarpenak– adierazle multzoaren zirriborroa eman zaio Emakunderi eta haren ekarpenak jaso dira.

5. fasean Emakunderen ekarpenak sartu eta azken txostena itxi da.

⁶⁰ Sara Moreno (Eguneroko biziari eta lanari buruzko QUIT ikerkuntza zentroa, Universitat Autònoma de Barcelona), Tània Verge (Zientzia Politikoen Saila, Universitat Pompeu Fabra) eta Beatriu Masià (Tamaia elkarte, Viure sense violència).

6.3 3. ERANSKINA: EAEKO BERDINTASUNERAKO POLITIKEN ADIERAZLE SISTEMAREN BERRIKUSPENA

Dagoeneko dauden adierazle-sistemen berrikuspenaren baitan, EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako V. planean aurreikusitako 193 ebaluazio-adierazleen azterketa sakona egin da. Hasierako hipotesia zen neurri batean proposamen honekin bat etor zitezkeela⁶¹. V. planeko adierazle-sistema berrikusita, adierazle-sistema **hobetzeko aukera** batzuk aurkitu dira eta proposatutako sistemaren diseinua hobetzen lagundu dute.


Aurkitu diren aukera nagusiak honakoak dira:

- a. Adierazleen izaera bateratzea eta monitorizatu nahi den gertakari mota ezartzea.
Adierazle batzuek zenbait izaera leukakete Helburu Operatiboen (HO) arabera: identifikatu denez, haietako batzuk erakundeen esfortzuari buruzkoak dira (emaitzak eta estaldura), eta beste batzuk berdintasunaren gertakariaren aldaketei buruzkoak (Eragina) (ikus atxikitako irudiko adibideak).
- b. Haien formulazioak adierazle batetik espero diren ezaugarriak betetzen dituela bermatzea. Adierazle batzuek ez leukakete adierazle-formulaziorik eta, beraz, ez lukete hura kalkulatu (ikus atxikitako irudiko adibideak).
- c. Adierazlea eta neurtu behar duen helburua bat datozela bermatzea. Adierazle batzuen formulazioak ez luke lotura logikorik dagokion helburuarekin (ikus atxikitako irudiko adibidea).
- d. Adierazleen monitorizatzea egin behar duten agenteen ardurak eta eginkizunak ezartzea. Adierazle bakoitzaren monitorizatzea egin behar duten agenteen arduren/ eginkizunen identifikazioa ez legoke osaturik. Ez da identifikatu zerikusia duten agenteetatik adierazlea kudeatu behar duen agentea.
- e. Adierazlea ezarritako maiztasunarekin kalkulatzeko informazioa erabilgarri dagoela ziurtatzea. Ez legoke adierazleak kalkulatzeko informazioaren erabilgarritasunaren eta egiaztatze iturrien zehaztasunaren baloraziorik.
- f. Diseinatutako adierazleak euren formulazioa osatuz eraginkor bihurtzea. Adierazleen formulazioa ez legoke osaturik, eta formula (behar den kasuetan), informazio mota (kualitatiboa/ kuantitatiboa), unitateak, balorazio heina eta eskalak, eta xede-balioa ezarri behar direla sumatu da.
- g. Estandar teknikoak eta sozialak dauden edo erakundeek haiek finkatzea bideragarria den pentsatzea. Adierazle batzuetarako, xede-balioa finkatzea zaila izan daiteke, gaiari buruzko estandar arau-mailerik eta irizpide teknikorik ez dagoela kontuan izanda. Horren ondorioz, xede-baliorako bi aukera baino ez daude: irizpide politiko eta sozial bati erantzutea edo erakundeek finkatzea.
- h. Adierazleek abiaraziko ditugun ekintzekiko duten sentikortasuna ziurtatzea.


⁶¹ Zentzu berean, eta zio beragatik, «Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak» urteko txostenean jasotako adierazleen azterketa sakona ere egin zen.

Euren dimentsioen bidez desberdintasunaren gertakaria deskribatzen duten adierazle batzuk (egoeraren adierazleak) agian ez dira ezarritako neurri/helburu operatibo/ekintzekiko sentikorrak eragina izango dutela bermatzeko.


Irudia. V. planeko adierazleen izaerei buruzko adibideak




Irudia. V. planeko adierazleen formulazioari buruzko adibideak



Irudia. V. planeko adierazleen formulazioaren eta helburuen arteko loturari buruzko adibideak



Irudia. V. planeko adierazleentarako estandarrak finkatzeko zailtasunari buruzko adibideak



6.4 4. ERANSKINA: GOBERNANTZA ADIERAZLEEN BALIZKO OSAGIAK ERAGINKOR BIHURTZEA INFORMAZIO SISTEMAKO GALDEREN ARABERA

Tresna	Osagaiak	Iturri galdera*		Balio positiboa emango luketen erantzunak	2011ko erantzun maila
Plangintza	Berdintasun planak	1.A.2	Zure erakundean indarrean dagoen berdintasunerako planik edo programarik daukazu egun?	Bai + Diseinatzen	%58,5
		1.A.8	Berdintasunerako plan edo programaren ezarpenean ardura duten sailak, arloak edo sektoreak zehaztu	Sektore bat baino gehiago nahastuta	% 100 (1.A.2ri erantzun dioteneke baino ez dute erantzuten)
		1.A.4	Berdintasunerako plana edo programa egiten zure erakundeko zenbait arlok parte hartu zuten?	Bai maila politikoan + Bai maila teknikoan + Bai maila politiko eta teknikoan	% 100 (1.A.2ri erantzun dioteneke baino ez dute erantzuten)
	Barneko plana	1.B.2	Lanari buruzko barneko berdintasun planik daukazue indarrean?	Bai + Diseinatzen	Ez dago jasota (baina erantzun anizkun gisa ageri da, eta hori ez dator bat hasierako galdetegiarekin, begiratu ea aldaketarik dagoen. Gainera galdera gehigarri bat dago. 1.B.1 izan daiteke eta orduan erantzun maila % 4 da)
	Berariaz berdintasunerako ez diren planak	1.K.3	Azken urtean onartutako sektoreko eta zeharkako plan edo programa estrategikoetatik emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako helburuak edota berdintasun horren aldeko neurriak jaso dituztenen kopurua	> 0 Edo plan globalen kopuruarekiko %-aren arabera atalasea ezar liteke, baina galdera honetan erantzun maila %17,8 da. (1.K.1 Azken urtean onartutako sektoreko eta zeharkako plan edo programa estrategikoen kopuru osoa)	%13,6
		1.K.2	Azken urtean onartutako sektoreko eta zeharkako plan edo programa estrategikoetatik diagnostikoan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen bilketa eta azterketa jaso dituztenen kopurua	> 0 Edo plan globalen kopuruarekiko %-aren arabera atalasea ezar liteke, baina galdera honetan erantzun maila % 17,8 da. (1.K.1 Azken urtean onartutako sektoreko eta zeharkako plan edo programa estrategikoen kopuru osoa)	%12,1

		1.K.4	Azken urtean onartutako sektoreko eta zeharkako plan edo programa estrategikoetatik berdintasunerako unitateak edo agenteak haiek prestatzen parte hartu duenen kopurua	> 0 Edo plan globalen kopuruarekiko %-aren araberrako atalasea ezar liteke, baina galdera honetan erantzun maila % 17,8 da. (1.K.1 Azken urtean onartutako sektoreko eta zeharkako plan edo programa estrategikoen kopuru osoa)	% 10,3
Egiturak	Unitateak / Langileak	1.C.1	Berdintasuna bultzatzen diharduen langilerik daukazue?	Bai	% 94,4
		1.C.7	Sailaren, Foru Aldundiaren, Udalaren, Mankomunitatearen, administrazio organoen edo erakundearen Lanpostu-Zerrendan (LPZ) berdintasuna bultzatzen baino ez diharduten langileentzako plazarik jaso da?	Bai (denak) + Bai (batzuk)	Ez dago jasota. Kalkulatzeke dauden erantzun anizkun gisa ageri da hasieran halakoa ez bazen ere. (1.C.1i baietz esan diotenen baino ez dute erantzuten)
		1.C.9	Formalki eratuta daukazue berdintasunerako organo edo unitate administratiborik?	Bai + Diseinatzen	% 89,8
	Koordinazioa	1.D.1	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez sail arteko koordinazio-egiturarik dago?	Bai	% 85,3
		1.D.5	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez sail barneko koordinazio-egiturarik dago?	Bai	% 84,1
		1.D.8	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lotutako beste gai batzuetan koordinazio-egiturarik (sail artekoa zein sail barnekoa izan) dago? (adibidez, emakumeen aurkako indarkeriari, erantzunkidetasunari, lanari... buruzkoak)	Bai	% 80,5
	Partaidetza	1.E.1	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean berriaz diharduen Sailari, Foru Aldundiari, Udalari, mankomunitateari, bestelako administrazioei edo erakundeari lotutako herritarren partaidetza batzorde edo organorik dago?	Bai	% 86,4

		1.E.3	Euren eginkizun eta helburuen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea daukaten herritarren partaidetza batzorde edo organoen kopuru osoa	> 0 Edo batzorde edo organoen kopuru osoarekiko %-aren arabera atalasea ezar liteke, baina galdera honetan erantzun maila % 30,5 da. (1.E.2 Zure erakundeari lotutako herritarren partaidetza batzorde edo organoen kopuru osoa)	% 22
		1.E.4	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean lan egiten duten gizarte zibilaren erakundeek parte hartutako herritarren partaidetza batzorde edo organo kopurua	> 0 (edo atalasea zehaztu) Edo batzorde edo organoen kopuru osoarekiko %-aren arabera atalasea ezar liteke, baina galdera honetan erantzun maila % 30,5 da. (1.E.2 Zure erakundeari lotutako herritarren partaidetza batzorde edo organoen kopuru osoa)	% 22,9
		1.E.6	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko adituen parte hartzea bermatuta duten herritarren partaidetza batzorde edo organo kopurua	> 0 Edo batzorde edo organoen kopuru osoarekiko %-aren arabera atalasea ezar liteke, baina galdera honetan erantzun maila % 30,5 da. (1.E.2 Zure erakundeari lotutako herritarren partaidetza batzorde edo organoen kopuru osoa)	% 9,3
Ekonomia	Aurrekontuak	1.F.2	Sailak, Foru Aldundiak, Udalak, mankomunitateak, bestelako administrazioek edo erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako esleitutako urteko aurrekontua.	Edozein erantzun «Ez daukagu aurrekontuaren banakatze hori» izan ezik.	% 88,8
		1.F.3	Erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako erabilitako urteko aurrekontu betearazia	Edozein erantzun «Ez daukagu aurrekontuaren banakatze hori» izan ezik. Edo aurrekontu globalaren bolumenarekiko %-aren arabera atalasea ezar liteke, baina galdera honetan erantzun maila % 49,2 da, hots, berariazko aurrekontua baino txikiagoa eta, beraz, une horretan ezin liteke. (1.F.1 Sailaren, Foru Aldundiaren, Udalaren, mankomunitatearen, bestelako administrazioen edo erakundearen urteko guztizko aurrekontu betearazia)	% 42,7

		1.F.5	Sailaren, Foru Aldundiaren, Udalaren, mankomunitatearen, bestelako administrazioen edo erakundearen urteko aurrekontuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean izango duen eragina baloratu da lehenago?	Bai	% 37,9
	Kontratuak, hitzarmenak eta diru-laguntzat	1.L.2	Azken urtean egindako kontratuetatik emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideak jaso dituztenen kopuru osoa	> 0 Edo kontratu kopuru globalarekiko %-aren arabera atalasea ezar liteke, baina galdera honetan erantzun maila % 33,9 da. (1.L.1 Azken urtean agenteak egindako kontratu kopuru osoa)	% 20,2
		1.L.5	Azken urtean egindako hitzarmenetatik emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideak jaso dituztenen kopuru osoa	> 0 Edo hitzarmen kopuru globalarekiko %-aren arabera atalasea ezar liteke, baina galdera honetan erantzun maila % 22,9 da. (1.L.4 Azken urtean agenteak egindako hitzarmen kopuru osoa)	% 10,2
		1.L.8	Azken urtean emandako diru-laguntza eta laguntzetatik emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideak jaso dituztenen kopuru osoa	> 0 Edo diru-laguntza eta laguntza kopuru globalarekiko %-aren arabera atalasea ezar liteke, baina galdera honetan erantzun maila % 27,1 da. (1.L.7 Azken urtean agenteak emandako diru-laguntza eta laguntza kopuru osoa)	% 21,2
		1.L.11	Azken urtean emandako beketatik emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideak jaso dituztenen kopuru osoa	> 0 Edo beka kopuru osoarekiko %-aren arabera atalasea ezar liteke, baina galdera honetan erantzun maila % 12,7 da. (1.L.10 Azken urtean agenteak emandako beka kopuru osoa)	% 7,6
Informazioa	Estatistikak	1.G.2	Estatistika eta azterlanen ardura du(t)en arlo horrek/horiek egindako estatistika, inkesta eta datu bilketetan sexuaren aldagaia sartu da?	Bai, arlo edo unitate batek + Bai, arlo edo unitate bat baino gehiagok	Ez dago jasota (erantzun anizkun gisa ageri da galdetegian hala ez zegoen arren)
		1.G.3	Estatistika eta azterlanen ardura du(t)en arlo horrek/horiek egindako informazioaren ustiapen eta interpretazioan sexuaren arabera bereizketa erabili da?	Bai, arlo edo unitate batek + Bai, arlo edo unitate bat baino gehiagok	Ez dago jasota (erantzun anizkun gisa ageri da galdetegian hala ez zegoen arren)

		1.G.5	Estatistika eta azterlanen ardura du(t)en arlo horrek/horiek egindako informazioaren interpretazioan genero-arrakala identifikatu eta aztertu da?	Bai, arlo edo unitate batek + Bai, arlo edo unitate bat baino gehiagok	Ez dago jasota (erantzun anizkun gisa ageri da galdetegian hala ez zegoen arren)
Langileak / aditutasuna	Prestakuntza	1.H.5	Erakundeak azken urtean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko prestakuntzarako eskaini eta burututako ordu kopurua	> 0 (edo atalasea zehaztu)	Ez dago jasota (HAEEn batuketa egiteke)
		1.H.4	Erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko prestakuntza planik dauka?	Bai + Diseinatzen	Ez dago jasota (HAEEn batuketa egiteke)
		1.H.8	Erakundeak azken urtean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko prestakuntzarako egindako ikastaro, saio edo mintegi kopurua	> 0 (edo atalase arbitrario bat zehaztu)	Ez dago jasota (HAEEn batuketa egiteke)
		1.H.9	Erakundeak urtean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean berariaz prestatzera zuzendu gabe egin dituen prestakuntza ikastaro, saio edo mintegietatik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko moduluak edo edukiak izan dituztenen kopurua	> 0 (edo atalase arbitrario bat zehaztu)	Ez dago jasota (HAEEn batuketa egiteke)
